

Euskal zibilizazioa (hiru urte geroago)

Alfontso Mtz. Lizarduikoa
EHUko irakaslea

Euskal Zibilizazioa liburuaren inguruan azkeneko hiru urteetan gertatutako arrakastaz nahiz kritikaz balantzea egiten da artikulu honetan eta J. Lakarrak UZTARON liburu horri buruz agertutako kritika luzeari kontrakritika ere egiten zaio. Zientzia-mailan, *Euskal Zibilizazioa*-ren hipotesiaren egituraren metatzen diren maila subjektiboak nahiz objektiboak ere aztergai ditugu eta, horrekin loturik, Euskal Herriko Unibertsitatean garatzen den ikerketa entziklopedistaren inguruko ezkutukoak aztertuko dira, unibertsitate horretan sortzen den pentsamenduaren klase-edukia agerian uzteko. Gainera, Euskal Herriaren iraganaldiari buruz ikerketak egiteko, *Euskal Zibilizazioa*-n agertzen den diziplinarteko izaera bide egoki eta bakarra delako iritzia aztertuko da, eta J. Lakarraren idazkiaren hizkuntzalaritza-mailako kritika konparatista murriztuaren (ez-sintetikoaren) izaera mugatuaz hitz egingo dugu.

This article offers a balanced appraisal of both the success and criticism that the book *Euskal Zibilizazioa* has elicited during the last three years. In particular, it makes a critical analysis of the piece written by Mr. J. Lakarra about the aforementioned book and published in UZTARO magazine. This article, which by the way, refutes and contradicts Mr. J. Lakarra's contentions, analyzes the different existing levels of subjectivity and objectivity in science, when the time comes to structure hypotheses such as those offered in *Euskal Zibilizazioa*. It expresses strong disapproval of the encyclopedic characteristics in the research being carried out at the UPV-EHU. It also questions the kind of subject matter and material being used in such investigation. Furthermore, the article points out the interdisciplinary nature of the research done in *Euskal Zibilizazioa*. This comprehensive, multi-discipline approach, appears to be the only correct way to proceed when it comes time to study the issue of the Basque Country's past. Through careful analysis, the article also reveals the forced parameters which are used in linguistic critiques. Such critiques are based on non-synthetical, inflexible comparativeness as made evident in the writing of Mr. J. Lakarra.

1. Sarrera

Lehen-lehenik, UZTARO aldizkariari eskerrak eman nahi dizkiot, *Euskal Zibilizazioa* izenarekin duela hiru urte argitara eman nuen dibulgazio-liburuari buruzko balantzea egiteko aukera eman didalako.

Liburu hori argitaratzeak “euskal kultura” dei genezakeen esparruan izan duen eragina da, aurren-aurrenik, jorratu nahi dudan alderdietako bat, zinez ikusgarria delako. Autorea bera ere ustekabeen harrapatu du eragin horrek, bosgarren edizioa argitaratu ondoren eskakizunak etengabe segitzen dutelako gaur bertan. Fenomeno paradigmaticoa da, saiakerazko (areago, euskaraz idatziriko) liburuen batez besteko salmentak nolakoak izaten diren gogoan hartuta.

Salmenta-kopurua argialetxe-munduan gai zehatz baten inguruko interesaren indizetat ager badaiteke ere, bada oraindik ezusteko larriagorik: era guztietako giroetan —euskal (Gara, Egunkaria, Argia, Ostiela, Uztaro, Jakin) eta erdal (El País, Diario Vasco, Correo Español) komunikabide idatzi zein ikus-entzunezkoetan (Euskadi Irratia, Euskal Telebista)— *Euskal Zibilizazioa*-ko tesiei buruz argitaratu diren iritzi-artikuluetatik hasi eta Interneteko ezbai-foroetan izaniko eztabaidetarraino, lana espainierara itzultzeko Espainiako argialetxeak eginiko eskaintzak ahantzi gabe, liburuaren edukiak piztu duen pasioa.

Fenomeno honek beste dimentsio batean ere izan du oihartzunik. Zuzeneko pedagogian eta, kulturaren baitatik, aldakuntza sozial (eta nazional) guztietan herriaren funtsezko eginkizunean sinesten dugunontzat berebiziko garrantzia du dimentsio pizgarri horrek: Euskal Herriko bazter guztietatik gonbit egin zaio lan honen autoreari baina, denetara iritsi ezinik, hamaikatxo txokotara joan da (50 hitzaldi baino gehiagotan, 1.500 parte-hartzaile inguru izan ditugu) azken bi urteotan. Mintzaldi horietan izaniko herritarren partaidetza eta sorturiko eztabaidak ikusgarriak izan dira askotan. Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegian egileari jakinarazi zaionez, *Euskal Zibilizazioa* argitara eman ondorengo hilabeteetan, obran azaltzen diren liburu eta artikuluak buruzko kontsultak izugarri ugaldtu ziren. Egun, liburua plazaratu zenetik hiru urte igaroak diren honetan, haren amaieran, laburpen gisa proposatzen ziren ikerkuntza-bideetako batzuk aztertu eta sintetizatzeke xedea hartuta lantalde txikiak sortzen hasiak direla ikusi dugu, pozarren ikusi ere.

Zergatik interes-eztanda hori? Printzipioz behintzat, liburuan jorratzen diren gaiak antropologia, arkeologia, mitologia edo linguistika alorrekoak izanik, sail horietan ez da maiz sartzen herritar xehea. Artikulu honetan zehar, ordea, saiatuko naiz galdera horretara hurrantzen eta ihardespeneen bat bilatzen. Horrekin batera, *Euskal Zibilizazioa* hipotesia lantzeko baliatu dudan metodoaz sarrera txiki bat egin eta ene kritikoetako bati erantzungo diot.

2. Subjektibitatea zientzian

Euskal Zibilizazioa liburuan (Martinez Lizarduikoa 1998) datzan oinarritzko ideia hauxe dugu: euskaldunok, aspaldi-aspaldidanik herria (aurreindoeuroparra) osatuz, bizirik irauten dugu oraino Pirinioetako mendebaldean, geure hizkuntza, mito, labar-pintura, lan-molde kolektibo, filosofia panteista-animista, egitura ma-

triarkalisten hondar, kosmobisio sinboliko eta guzti eta, herri garen aldetik, geure historia (historiaurrea, batik bat) izan dugu: bide horretan barrena etorri gara orain dela 30.000 urtetik XXI. menderaino etnia bereizitza; eta, gainera, gizakia eta gizartea protagonista dituen abentura horren hariak bilatzeko eskubidea zor zaigula, gure etsaiek gutaz egin duten (egiten segitzen duten) historia ofizial (eta interesez josiriko) horretatik kanpo. Beste hitz batzuetan, bada garaia historia egiten hasteko —eraikuntza nazional, sozial eta kulturalako prozesuan diharduen herri garen neurrian— interesatzen zaizkigun galdera eta ikuspegietatik (historia subjektiboa) abiatu eta jardunez.

Planteamendu honek irakurle bat baino gehiago begiak zabal-zabalik utziko zuen, agian: historia diziplina zientifikoa (horrenbestez, objektiboa) da, ikuspuntu batetik zein bestetik (hau da, subjektiboki) azter daitekeen arren. Zientzia eta subjektibotasuna elkartu ezinezkoak ote dira?

Zientziaren metodologiak, zientziaren ontologiak eta zientziaren historiaren azterketak argi eta garbi adierazi digute zientzia-diziplina guztiek —antropologiatik hasita linguistikaraino edo, biologiatik hasita, fisikaraino— dituztela balio subjektiboak (gizabanakoaren edo taldearen interesak), bai diskurtsoaren elementuei dagokien alorrean (oinarri ontologikoa, hau da, zientzia-eraikina altxatzeko adreiluak), bai azken helburu teleologikoei (hau da, interesatzen zaizkigun galderei eta soluziorik gabe uztea komeni direnei) dagokienez ere. Oinarri ontologiko horretatik geure buruari ezarri dizkiogun helburuetaraino (biak ere, subjektiboak) iristeko, ordea, jolastoki zabal-zabala dago (diskurtso logiko-matematiko-esperimentalak edo metodoak): hor zientifiko huts gisa jokatu behar dugu. Metodoaren joko-arauak errespetatzen ez baditugu, zientzia faltsutzen ari gara, okerreko zientzia egiten ari gara. Ez gara objektiboki ari.

Zientziaren historian izan diren zientifiko handiek argi eta garbi izan dituzte beti zientziaren bi maila subjektiboak: oinarri zientifikoa eta lortu beharreko helburuak. Galileok, unibertso osoa espazio- eta denbora-esparru bateko partikula masadun hutsak (m, e, t) baizik ez zirela aldarrikatu zuenean, argi asko zehaztu zuen unibertso (ontologiko) hura aukeratutako unibertsoa zela, bere fisikak jasotzen ez zituen beste unibertso asko baliogabe uzten ez zituena. Newtonen ondorengo fisikari erdipurdikoak izan ziren jauzi (ez-zientifiko) latza egin zutenak, galilear fisikak adierazten zuen errealitateaz kanpo deus ez zela sinetsi eta aldarrikatzen zutelako, fisika hura ez zen beste guztia azientifikotzat gaitzetsiz.

Zergatik egungo fisikak ez du aztertzen espazio-denboran mugitzen diren atomoak besterik? Erantzuna begien bistakoa da: fisika horrek bere diziplinatik aztertzea merezi duten izaki bakarrak atomoak direla erabaki duelako, bertatik beste entitate batzuk —sentsazioak, koloreak, musika, balio etikoak, esate baterako— kanporatuta; aukeratutako mundu (biziki murriztu) horretan oin harturik, eraikin teoriko-esperimental (metodologiko) osoa altxa da. Newtonen fisikaren arrazionalizatzaile izan zelarik, honela zioskun Kant pentsalari handiak, ironiaz: «Ez dugu harriarrik sentitu behar mundua arrosa kolorez ikustearren, kolore horretako betaurrekoak jarriak ditugunean». Aukeratutako unibertso ontologiko hori arbitrarioa da; hortaz, zientifikoak sentitzen duen subjektibitatearen edo, bestela, zientzia osatzen duten entitateek emaniko aginduen arabera egin ahal izango da, beste era (balia-

garria eta zientifikoa, orobat) batera. Gogoan izan dezagun txinatar zientziaren kasu paradigmaticoa: era askotako aplikazio teknologikoz apainduriko ezagutza-egitura indartsua antolatzeko gauza izan zen, europarra baino 2.000 urte lehenago, Mendebaldeko zientziak zituenez zeharo bestelako oinarri ontologiko eta teleologikoen gainean¹. Hitz gutxitan, azterketa zientifikoaren unibertsoa, zeinahi dela, aukeratutakoa izatearren, arbitrario eta subjektiboa da.

Zer esan nahi du horrek? Gaur egun zientzialariek edozein unibertso pentsagarri aukeratu eta bertatik zientzia egin dezaketela, agian? Honez gero, Williard V.O. Quine zientziaren filosofo itzaltsuaren aipamen ezagun hura ekarri beharko dut (Quine 1962), arazo honi irtenbidea edo konponbidea ematea dela eta, egiaz paradigmaticoa baita (lodiz nabarmendua nirea da):

Empirista naizen aldetik, zientziaren eskema kontzeptuala, azken finean, bizi izaniko eskarmentuan oinarriturik geroaldiko bizipenak aurreikustea xede duen **lanabesa** da ene iritziz. Ulerkera horretan objektu fisikoak (atomoak edo materia) kontzeptualki sartu ditugu, arrazoi osoz sartu ere, bitarteko komenigarriak ditugulako; komenigarri, ez esperientzia-terminoetan eginiko definizioaren arabera, baizik Homeroren jainkoenarekin konpara daitekeen estatutu epistemologiko gisa, ezinbestez ezarrita.

Nik, fisikari ezjakina naizen honek, objektu fisikoetan sinesten dut, ez Homeroren jainkoetan; horrenbestez, sinesmena bestela orientatzea akats zientifikoa da ene ustez. **Oinarri epistemologikoari dagokionez, aldiz, objektu fisikoak eta jainkoak graduz bakarrik dira desberdinak, ez esentziaz.** Bi entitate-mota horiek kultura-elementutzat bakarrik osatzen dute gure pentsakera. Objektu fisikoen mitoa, epistemologiaren ikuspegitik, beste mito asko baino hobea da, esperientziaren fluxuan maneiatzeko moduko egiturak eratzekeo prozedura gisa jainkoenak baino **eraginkortasun handiagoa daukala** frogatu duelako.

Quinerean aipamen zoragarri eta adieraz beteriko horrek zientziaren bigarren faktore subjektiboaren aurrean ezarri gaitu: helburua (funts teleologikoa, alegia). Quinerean arabera, mundu ontologiko hori aukeratzen dugu (eta ez beste hura), eskarmentuan oin harturik, beste ezeinek baino gauza gehiagoren zergatia azaltzen digulako. Zer esan nahi ote du “zergatia azaltze” horrek? “Zergatien azalpenak” esanahitsua (erabilgarria) izan behar du, batik bat, une historiko bakoitzean zientziak egiten dituen galderei dagokienez. Galdera zientifiko horiek, ordea, egitura hierarkikoen (botere ekonomikoa daukaten konpainia pribatuetatik hasi eta, unibertsiteatean barrena, herri xeheari aurreko eliteek azaldutakoaz beste unibertsoz ez dagoela sinestazten dion zientziaren dibulgazio alorrera arte) interes sozial, ekonomiko eta politikoez baldintzatuak eta arbitrarietatearen zama astunak zanpatuak daude: hortik bertatik zuzentzen da ikerkuntza, maila denetan. Horrela gertatu da, behintzat, XX. mendean zehar (gogoan ditugu ikerkuntza nuklearra, digitala eta bioteknologikoa, esate baterako, gertu-gertuko hiru adibide besterik ez

1. Txinako iraultza zientifikoaren ezaugarriak aztertu dituen ikerlari famatuena Joseph Needham dugu. Bere obra itzelaren laburpen oso egokia Alianza Editorialean argitaratuta dago:

Needham, J. (1997): *La gran titulación (Ciencia y sociedad en Oriente y Occidente)*. Madril, Alianza Editorial.

aipatzearren).² Orokorki, beraz, boterea daukatenek garrantzizkoa edo interesgarria dela deliberatu dutenaren zergatiak azaltzen ditu zientziak azken finean; galdegite horiek, noski, erantzunen maila goitik behera baldintzatuko dute. Azterketa zientifikoaren funtsezko gune hau beti datza ezkutuan, metodoaren balizko objektibotasunaren azpian mozorroturik.

Horrenbestez, zientziaren oinarri ontologikoari subjektibitatea, hein handi batean, zientzia-eginkizun orok dituen helburuen subjektibitateak datorkiola esan dezakegu. Pierre Thuillier zientziaren historialariak liburu magistral batean (Thuillier 1983) ederki azaldu digu Galileo Galileik XVII. mende hartan zergatik eta nola aukeratu zuen espazio, denbora eta masak osaturiko bere unibertsoa (eta ez beste bat), sasoiko egoera sozial, ekonomiko eta kulturalen oinarrituta.

Erdi Aroko funtzionamendua gainditurik, mende jori haietan sortuberria zen italiar burgesia baserriko lehengaiak baliatzen hasi zen, estatu-hirietan manu fakturatu eta, prozesu industrialen bitartez, balio erantsi batekin osatzeko: balio erantsi huraxe izango zen, merkataritzari (itsasokoa, batik bat) esker, plusbalioa eta, ondorioz, botere ekonomiko, sozial eta militarra ekarriko zizkiona. Kapitalismoaren hastapenak ditugu horiek. Bai prozesu industrialak, bai itsas bidaiak ongi eta onik burutzeko, aurreikustea zuen premiazkoa behetik gora zetorren klase hark, geroago plangintzak egin ahal izateko. Aurreikuspenak, gaur bezala, neurketa zuen oinarri. Garaian, ordea, neurtzeko hiru lanabes teknologiko besterik ez zuten: pisuak (m) neurtzeko balantzak, distantziak (e) neurtzeko ziriak eta denborak (t) neurtzeko erlojuak.

Klase sortuberrri haiek neurtzeko eta aurreikusteko zuten premiak hertsaturik, Galileok (soldatapeko ingeniaria baitzen, azken buruan) hirietan instalaturiko garaiko klase hegemonikoak eskura zuen teknologiaren bitartez neur zitekeen hartaraxe bildu behar izan zuen unibertsoa. Harrezkero, zientzia-mundutik kanpo geratu ziren artea, balio etikoak eta antzeko gauzak, tresna haiekin ezin neur baitzitezkeen. Adibide honek zehazki erakusten du aukeraketa ontologikoaren subjektibitatea helburuen subjektibitateak arras baldintzatua dagoela (helburu horiek, jakina, jarduera zientifikoan aritzeko moduko edo eraginkortzat joko ditu boterean dagoen klaseak). Subjektibotasun-polo nagusi bi horien —ontologikoak eta teleologikoak— artean bilakatuz etorri da zientzia egundaino.

2. Ikerkuntza nuklearraren ezkutuko helburuak argitzeko, ondoko liburuak oso interesgarriak dira:

- Menahem, G. (1977): *La ciencia y la institución militar*. Bartzelona, Icaria Editorial.
- Patterson, W. C. (1982): *La energía nuclear*. Madril, Blume Ediciones.
- Sanchez Ron, J. M. (1992): *El poder de la ciencia*. Madril, Alianza Editorial.

Arazo berberak kontsultatzeko, baina ingeniariaritzaren genetikoaren eta bioteknologiaren eremuan:

- Lewontin, R. C. / Rose, S. / Kamin, L. J. (1987): *No está en los genes: Racismo, genética e ideología*. Bartzelona, Editorial Crítica.
- Hubbard, R. (1999): *El mito del gen*. Madril, Alianza Editorial.
- Rifkin, J. (1999): *El siglo de la biotecnología*. Bartzelona, Crítica/Marcombo.

Eta teknologia digitalaren eremuan:

- Manacorda, P. M. (1982): *El ordenador del capital*. Bartzelona, Blume ediciones.
- Avendaño Cervantes, G. (1995): *El mito de la tecnología*. Mexiko, Diana Editorial.
- Galcerán, M. / Domingues, M. (1997): *Innovación tecnológica y sociedad de masas*. Madril, Editorial Síntesis.

Subjektibitateak gorabehera, Galileo zientifiko handia izan zela onartzen dugu denok: oinarri ontologiko subjektibo hura (m, e, t) aukeratu eta bera euskailu harturik, logika matematikoaren eta esperimendazioaren (metodologia objektiboak, biak ere) bitartez, naturan funtzionatzen duten hainbat lege aurkitzeko gai izan zen. Hari esker —estreinakoz, Mendebaldean—, fenomenoak sistematikoki aurreikusi eta batzuei aurrea hartu ahal izan genien, erdijainkoak bagina bezala (horregatik esaten zaio matematikari “Jainkoaren hizkera”). Beste hainbat zientifikok Galileorena ez bezalako unibertsoak amestu edo irudikatu zituzten arren (horren adibide paradigmaticoa dugu Leibnitzen sistema erlatibista), ezin izan zituzten garatu metodologia objektiboetan oinarriturik edo, akaso, sasoiko boteredunek ez bide zuten jarri arreta eta kemen handiegirik ahaleginean.

Galileo (zientzialaria) pertsonaiak, beraz, hiru mailatan dihardu: bere jardueraren helburuei zegokienez, egungo ikuspegitik “sistemako zientifikoa” izan zen (garaiko klase hegemonikoaren xede sozio-ekonomikoetara egokitu egin zen eta); oinarri ontologikoa asmatu zuen alderditik, ameslari edo filosofo izan zen, garaiko beste asko bezala; metodologo gisa, azkenik, jenioa dugu: logika matematikoaren eta esperimendazioaren bitartez, ordura arte bananduak bizi izan ziren bi mundu subjektibo haiek (ontologikoa eta teleologikoa) elkartzea lortu baitzuen. Bestela esatearren, Galileoren aurkikuntza behinena metodoa (teoriko-esperimental) izan zen.

3. Fisikatik (manipulazio baten) historiara

Horrela bada, fisikak —hau da, naturan dauden elementurik soilenak (kontrolagarri eta neurgarrienak: partikulak, alegia) aztergai eta langai dituen zientziak— subjektibotasunaren tejoa baldin badauka bere jatorri eta helburuetan, zer esan ote liteke gizarte-zientziez orokorki eta, horien baitan, historiaz? (Gogoan izan dezagun askozaz ere egoera konplexuagoak dituela aztergai eta, metodoak, horietan fisikan baino askozaz ere anibalenteagoak direlako). Georges Duby historialari bikaina ahal duen guztietan gogorarazten saiatzen da diskurtso historikoa kulturalki zehaztutako produktua denez, beti dela subjektiboa, historialariaren nortasunarekin, sorterriarekin, heziketarekin, idatzi dueneko garaiko ideologiarekin eta bertan egiten diren galderekin lotua eta elementu horiek guztiek eramango dute historialaria datu batzuk ala beste batzuk hautatzera. Garai bakoitzak interes jakin batzuen arabera egiten du bere irakurketa historikoa, subjektiboa beti. Esan dezagun, hortaz, hanka sartzeko beldurrik gabe, fisika subjektiboa baldin bada, are eta subjektiboagoa dela historia.

Nolanahi ere, bereiz dezagun gauza bat dela subjektibotasuna eta beste bat, arras bestelakoa, gertakarien manipulazioa (faltseria, iruzurra). Jorge Alonso espainiar “hizkuntzalariaren” idazlan zenbaitetan, esate baterako, euskara eta iberiar hizkuntza korrelazioan jartzen dira (Alonso 1996); Antonio Arnaiz (Arnaiz 1997a eta 1997b) genetistaren beste batzuetan, euskaldunen oinarri genetikoa eta berbereena jartzen dira korrelazioan. Hortik ondorioztatuko da duela hainbat milurteko afrikar migrazio bat penintsula iberiarrera joan zela eta bertan iberiar herria osatu zuela; geroago, erromanizazioak txikiturik, babeslekua Pirinioetan bilatu zuen, eta horri esker bihurtu ziren egungo euskaldunak penintsula horretako espainolik zaharrenak, behinolako piriniar zibilizazioaren hondar diren aldetik.

Lan-ildo horrek agertzen duen subjektibotasuna (bidezkoa, berez) begien bistakoa da; metodologia, aldiz, manipulatu egin dute eta, horrenbestez, ez da zientifikoa. Jarraian ikusiko dugu.

Esan dezagun, lehendabizi, hizkuntzalari askoren (Mitxelena, Tovar, etab.) iritziz, euskara eta iberiar hizkuntzaren artean dagoen erlazioa (beraz, bada erlaziorik), milaka urtez kontaktuan bizi izan diren bi hizkuntza desberdinen arteko erlazio tipikoa dela; baina, izaeraz, ez da genetikoa, hau da, antzina bi hizkuntzek ez zuten arbaso bera izan eta, biak ere aurreindoeuroparrak izaki, ez datoz hizkuntza-arbola beretik. Beste aldetik, penintsulan desagertu aurretik antzinako iberiarrak Pirinioetan babestu zirela berreste horrek ez du inongo zerikusirik arkeologia-lanek eskainitako emaitzekin, izan ere, Pirinioetako eskualde euskaldunear ez da hondakin arkeologiko iberiarrik: horrek egiazkotasun osoa erauzi dio esandakoari. Arkeologo eta hizkuntzalarien iritziz, euskaldunak eta iberiarrak oso bi herri desberdinak izan ziren, bai hizkuntzaz, bai lurraldez. Aurreko guztia Jorge Alonsok eginiko lanaz zeharo beste norabidean joateaz gainera, autore horren lanak ez du inolako hizkuntza-metodologiarik betetzen (ez fonetikoa, ez sintaktikoa, ez semantikoa), Afrikako iparraldeko inskripzioak (libikoak) eta egungo euskara elkarrekin konparatzen saiatzean. Aurrean dugun lana (eta, beraz, ondorioak), horrenbestez, zientziatik ezin defendatuzkoa da. Zientzia maneiatur denez, ez da zientzia.

Bestetik, informazio kulturala eskuratu nahi dien taldeei Antonio Arnaizek aplikatzen dien populazio-genetikazko azterketaren planteamendu orokorra ere ez da zuzena. Bere azterketan Aljerren eta Madrilen harturiko laginetara mugatu du Arnaizek, baina horiek ezin dira inola ere korrelazioan jarri kultur area zehaztu eta denboran iraunkor balira bezala (horrela jardun zezakeen autoreak, adibidez, laginak Euskal Herrian eta tuareg munduan hautatu balitu) gero ondorio garrantzitsuetara iristeko. Horrez gainera, migrazioa hegoaldeetik iparraldera gertatu zela baietsiz (hipotesi hori Bertrand Petit genetistak kritikatu izan du), korrelazio hori kausa-efektu erlazio bihurtu nahi izatea sinesgarritasun zientifikotik kanpo dago, erabat. Hau da, Jorge Alonsok proposatzen duen hizkuntza-korrelazioaren kasua bezain larria ez bada ere (horrek ez baitu inolako metodologia zientifikorik errespetatzen), Antonio Arnaizen azterlana teknikoki ongi eginga dagoela onartu beharra dago baina, ikerlanean proposatutako helburuaren araberrako abiatze-baldintzak ezarri ez dituzenez, aztertu duen arazoaz ezin izan digu inongo ezagutza garrantzikorik erakutsi. Fisika-hitzetan adierazteko, aplikatutako formula zuzen eta egokia bada ere, hasierako balioak zuzenak ez direnez, ondorioa ez da baliagarria. Hemen ere, Jorge Alonsoren kasu larriago hartan bezala ez baina, halaz ere, okerreko metodologia zientifikoa aplikatu da.

Aurreko guztia ikusirik, esan dezakegu, bete-betean asmatzeko aukera askorekin, euskaldunok iberiarrak (“espainolak”) garela frogatzeko ideien —berez, zilegia (subjektiboa)— atzetik doazen lan horiek metodologia-oinarririk ez dutela eta, horrenbestez, helburuen subjektibotasunaren bermea bitartekoen manipulazioa baizik ez dela izan, osotasuna xede bakar batera bideraturik: alde aurretik zehazturiko helburu ideologiko jakin bat erdiestea.

Irakurleari, artikulu honen muinetik urrundu gabela iruditzen bazaio ere, ez da horrelakorik: gaurdaino fisikaz, hizkuntzalaritzaz eta genetikaz aztertu ditugun historia argi-emaileak gidari izango ditugu *Euskal Zibilizazioa* liburuaren azterketari, edukiari, bere arrakasta editoriala ulertzeari eta liburuaren kritikariren baten ezkutuko interesei aplikatu ahal izateko.

4. Zientzia eta *Euskal Zibilizazioa*: lan-hipotesi bat

Goian aipaturiko hiru segmentuak (oinarri ontologiko subjektiboa, helburu subjektiboak eta azterketa-metodo objektiboa, alegia) *Euskal Zibilizazioa* liburuan zehatz eta bereiz agertzen direla ikusiko du zientziaren filosofiaz gutxien-gutxieneko heziketa jaso duen edonork.

Alde batetik, erraz hautematen da liburuan gure Herriaren ezkutuko historia aztertzeke asmoa (erabat subjektiboa) dagoela. Gure historia Euskal Herritik bertatik aztertzeke asmoa hain zuzen, ez, ordea, Espainia zein Frantziatik, gure Herriko ikastetxe gehienetan egin ohi den bezala (egoera are eta larriagoa dugu orain, arestian PP alderdiak opari entregatu digun tamalezko *Humanidadeen Legearen Erreforma* ospetsu horri esker). Horrela bada, eskola eta ikastola “arruntetan” Paleolitoa jorratzen denean, Cro-Magnon gizakia lurralde hauetan txirripaz eroritako *martziano*-tzat hartzen dute; zibilizazio horren jarduera artistiko, linguistikoa, sinbolikoa edo biologikoa hotz-hotz narratzen da, inongo axolarik agertzeke (onen-onenean), gertakari horiek Euskal Herri prehistoriko eta historikoarekin behin ere elkarrekin lotu gabe, Pirinioetako mendebaldean oraindik ere bizi den gure gizarteak iraganaldi horretatik agian gordeko zituen hondarren nondik norakoak agertu gabe. Beste alderditik, ordea, sektore akademiko asko-askotan ikerlan horixe —inplizitu nahiz esplizituki— estreinako espainolekin edo frantsesekin erlazionatzen da eta, horrela, horma-arteak landu zuen eskualdea *franco-cantábrica* edo *franco-española* bataiatu dute (jarrera horien agerpen “mundiala”, irakaskuntza-liburu gehienetan dautzan ohiko mapak ditugu adibide polita), lehenaldi haren eta egungo Euskal Herriaren arteko era guztietako loturak ukatuta.

Eskubideak denoi zor zaizkigu: autore horiek ere badute historian edo historiaurrean frantsesekin edo espainolekin gu lotu gintzaketen nortasun-zeinuak bilatzeko eskubidea. Baita guk geure burua euskalduntasunarekin bakarrik lotzekoa ere. Baina euskalduntasun horren sustraiak historiaren hondo-hondoan (populazioen genetikan oraindik ere aztarnak agertzen dituzten hizkuntza eta mito aurreindoeuroparrak) dautza sarturik eta espainol nahiz frantsesetasunaren erroak, berriz, XVIII-XIX. mendeetan sorturiko merkatu unitarioen eraikuntza estataletan daude. Adiera horretan, euskalduntasunak frantses zein espainoltasunak baino inondik ere substratu sakonagoa dauka eta, ondorioz, herrien iraganaldi sakona egun ikeretzen ari diren era askotako zientzia-diziplinak geroz eta ozenkiago ari dira euskal fenomenoaz, ez fenomeno frantses edo espainolaz.

Euskal Zibilizazioa liburuan zehar garatzen den euskal etniari buruzko analisian helburu subjektibo nabarmena dagoen arren (gure Herriaren bereizgarriak bilatzea), ezingo nintzateke datuak asmatzen ibili. Alderantziz zeharo, hainbat zientzia-diziplinatako (arkeologia, populazio-genetika eta paleohizkuntzalaritza,

batik bat) adituek eginiko lanetara jo behar izan dut: lan horietatik, ene iritziz esanahitsuak ziren elementuak aukeratu, jorratu eta beraien artean gurutzatu ditut, azkenean, ene helburuen araberako erlazio-sarea moldatzeko: horrela osatu da *Euskal Zibilizazioa* bataiatu dugun balizko egitura. Euskal Zibilizazioa kontzeptuak komunitate etniko (eta, hein batean, biologiko) jakin bat adierazten du: horrek, Paleolitoan Mendebaldeko Europan, Pirinioez alde bietan ekin zion humanizazio-prozesu (zibilizazioa) bati eta geroago, Mesolitoan, hedatu egin zen seguruenik, Europako eskualde batekin eta Afrikako iparraldearekin lotura kulturalak ezarriz. Neolitoan gertatu ziren asiar herrialdeen inbasioek euskal matrizeko makrokontinente horren murrizketari emango zioten hasiera eta etengabe jarraituko zukeen noski, egungo Euskal Herri hau (antzinako Europako azken herri indigena) dugun erlikiak baino bizirik ez dirauela.

Goian aipatu dugun diziplinarteko azterlan edo ikerketa horretatik sorturiko lan-hipotesia osatzen dute liburuan agertzen diren ondorioek. Horrekin esan nahi dut, hemen aipatzen diren zientzia-diziplinak mugatzen dizkiguten mapek aski ingerada koherenteak erakusten dizkigutela, gure herria orain dela milurteko batzuk izan zitekeena kontuan hartuta. Hainbat diziplinartatik batera eginiko analisi horiek lagundu naute, hain zuzen ere, lan-hipotesia moldatzen. Dударik ez izan, hipotesia diodanean horixe esan nahi dudala, hots, paradigma bat zeinetan barrena lehen aipatu dugun hipotesia trinkotzeko, osatzeko, aldatzeko edo, areago, suntsitzeko baliagarri izango diren hainbat lan-esparru argituko diren. Prozesu horretan zehar, dena den, lan sistematikoek erakutsiko diote gure herriari bere burua ezagutzen hasi eta segitzeko bidea; herri horrek, hain zuzen, europar (eta, baliteke, afrikar) aurrehistoriako informazio zinez baliagarria mantendu du eta guk ezin dugu inola ere galdu, axolagabekeriagatik izan, arazo ideologikoengatik izan.

Euskal Zibilizazioa liburua, laburbilduz, diziplinarteko lana da, zientifikoa, subjektiboa (helburu eta materialaren aukeraketari dagokionez), objektiboa (material horri aplikaturiko metodologiak ari garela), hipotetikoa ondorioen ikuspegitik, eta bere egituran aldaketak eta ikerkuntza berriak egiteari ateak zabalik utzi dizkie.

Honetaraz gero, lanaren alderdi hipotetikoa nabarmendu nahi genuke. Izan ere, liburua idaztean eskuartean genuen ideia, liburua ezten edo pizgarri gisakoa bihurtzea zen (helburu hori mukuruka betea du), Baskongadetakako Unibertsitate Publikoaren (UPV-EHU) baitan une hauetan egiten ari diren hamaika ikerkuntza-zen itxi, monolitiko eta ez-euskaldun horren aurrean. Erakunde horretan, gureak ez bezalako interesek agindutako ildoetatik doan ikerkuntza eta “politikoki egokiak” diren gaiak buruzko lanak bakar-bakarrik amerikar *pedigree*-dun aldizkarietan argitaratzea lehenesten da ororen aurretik, jakina denez. Zoritxarrez, Herri hau bere interesen ikuspuntutik ikertzea (bai bere iraganaldi bereiztua, bai etorkizunera begira, mundu-kontzertuan herri askea izateko bidean) ez da, egun, batere planteamendu politiko egokia, inperialismoaren ideologiak kontrolpean dituen foro zientifikoetan: zelai horretan, UPV (-EHU) erakundeak unibertsitate kolonialari berez dagokion eginkizuna betetzen du. Menperatzaile eta menperatuen artean banaturiko mundu honetako indar-erlazioak nahitaez ezarritako historiaren (eta historiaurrearen) pertzepzioaren subjektibotasunak utzi gaitu euskaldunok (bigarren multzoan, aspaldiko partez) behin eta birritan ahantzirik, gutxietsirik eta, egokitzu gero, eufemistikoki “ikerkuntza historiko” deitzen den horretatik bazterturik,

gure Herriari subjektu historikoaren izaera bera ere ukatuta. Hala ere, geu gara europar kontinente osoan agerpen luzeen eta jarraituena izan dugunak, nahi ez badute ere.

Horregatik, ez da harrizkoa premisa horietan idatziriko liburua norbaiti hinguigarri gertatu izana. Eragindakoen egonezina hainbat alorretan nabarmendu da.

Batetik, nazionalismo espainiar militanteak dituen oihu-eramaileek *Euskal Zibilizazioa*-ren egileari makina bat irain, laido eta amenazo jaurti dizkiote, liburuan agertzen diren ideiak gustatzen ez zaizkielako, nonbait. Liburua, beste aldetik, ez omen du inortxok ere irakurri (euskal itsu-gor-mutuak direlako, besteak beste); irakurri egin badute, ordea, ez dute ezer ulertu. Balizko intelektual horiek oinarritzko diskurtso logikoa —edo, are gutxiago, zientifikoa— josteko unean agerian uzten duten ezgaitasunean garbi asko azaltzen da urte luze hauetan Estatu espainiarreko egiturek indarrez ezarri diguten pentsakera bakarraren ondorioak noraino iritsi diren. Dena den, ez dute diskurtsorik josteko premiarik, “besteak” (euskalduna, euskalduntasuna) aldez aurretik sorgindua eta diskriminatua baitzuten komunikabideek. Beraz, ez da zertan arrazoirik erakutsi (horrek inplikaturik luke hizkideak ere baten bat eduki eta erakustea): gogaitzen duen guztia, esan (eta eguneroko praktikak erakutsi) bezala, irain, laido eta amenazoekin urrutiratuko dute laster asko.³ Faxismo “intelektual” horrek, botereko hainbat intelektual organikoren bidez, ezagutza mailak aldatu ditu: aspaldi “pentsamendua” deitzen zen hartatik “pentsamendu ahul” izenekora igaro ziren lehenengo urratsean eta hortik “ez-pentsamendu” egiazkora, azken urteetan (Espainiako Gobernuan PP alderdia sartu zenez geroztik, hain zuzen ere) agerian geratu denez. Kontu honek ez dit beste minuturik kenduko, hemen egin nahi dudana hausnarketa eztabaidari eta argudioei dagokie eta.

5. *Euskal Zibilizazioa*-ri Euskal Herritik eginiko kritikak

Goian esan bezala, lanari militante nazionalistek eta herri xeheak, oro har, egin dioten errespetuzko harrera era askotako sentsazioetan islatu da: liburuan agertzen ziren itaunengatiko ilusioa, edukian zehar sortzen ziren eraikuntza hipotetikoen aldeko interes nabarmena, ikerkuntzatik, irakaskuntzatik eta kontzeptuen sozializaziotik garatzen hasi beharko genukeen gaien zerrenda luzeagatiko kezka... baita sinesgaitzasuna ere, Euskal Herriaren lehenaldia atzerriko zientziak interes handiz hartu duelako, bertako intelektualek (Unibertsitateak, zehazkiago) geure herri-bereizgarriak berreskuratzeko funtsezkoak ditugun lan horiekin aurrera jarraitzeko inongo kezkarik agertu ez dutela ikusita. Adiera horretan, egiari zor, gure inkonsziente kolektiboa sakontasun handiagoz jorratzeko lan eta eztabaidarako elementuak diren neurrian, *Euskal Zibilizazioa*-ko tesiek izan duten onespenuk ederki bete ditu egile honen itzaropenak. Idazlana onartu ez ezik, maitasun eta kezka hartu izanak indarberritu egin nau alor hauetan lanean jarraitu, lantaldeak antolatzen segi eta, herri berezi (baina sekulako bortizkeriaz zanpatu eta minorizatu) honi XXI. mendeko Europa osatuko duten herriek bere nortasuna aitortu diezaioten ahaleginetan jardun dezadan.

3. Zentzu honetan oso adierazgarriak dira *Euskal Zibilizazioa*-z argitaratutako ondorengo kritikak: Azurmendi, M.: “Vasco con V”, *El País*, (20-X-1998).

Savater, F.: “¿Indígenas o escépticos?”, *El País (Suplemento dominical)*, (20-12-1998).

Printzipioz harrigarria badirudi ere (xeheetasunez aztertuz gero, lanean zehar egingo dugun moduan, erraz uler daitezke gauza harrigarri batzuk), sektore minoritario euskaltzale batzuk eta unibertsitate-giroko pertsona zenbait izan dira *Euskal Zibilizazioa* liburua atsekabez eta, kasu bakanen batean, agresibitate nabarmenez jaso dutenak.

Euskal Herri osoan *Euskal Zibilizazioa* laneko tesien gainean eman ditugun hamaikatxo hitzaldi eta mintzalditan, babestu nauten partaide gehientsuenen berotasun eta gogo biziarekin batera (ene iritziz, funts handiegirik gabeko sektoreren batean ere bai, inoiz edo behin), *Euskal Zibilizazioa*-n agertzen diren ideien kontrakotasun nabaria ere hauteman izan dut; abegi txarra egin diona sektore minoritario bezain esanguratsua izan da, Euskal Herriko sektore batek bere historia eta kulturaren aurrean agertzen duen jarrera islatzen duelako, ene iritziz.

Sektore horretako kideak elkarrengana biltzen dituen ideia orokorra honela azal genezake, gutxi gorabehera: arrunt jende gutxik hitz egiten duen hizkuntza bakartua duen gure Herri txiki honek nola pentsa ote dezake bere presentzia funtsezkoa izan zela aurrehistorian, nola planteatzen ote dezake (liburuak egiten duen moduan) hipotesizat (datu zientifikoetan oin harturik) Afrikatik zetozen hominidoen Europako humanizazioa gure Herrian gertatu ahal izan zela eta egungo euskaratik biziki gertuko protohizkuntz(et)an, gainera? Nola sinetsi eta onartu, bi mila urteko minorizazioak ohitu gaituen gutxiagotasun kultural honetatik, bertako Neolito europarraren (Neolito europarra eta kultura indoeuroparrek inportatu zutena arras desberdinak izan baitziren) sorkuntzan euskal matrizea funtsezkoa izan zela? Nola onartu Greziako pentsakera, mitologia eta erlijioa, Europako Historiaren hastapena markatzen duen arrazionalizazio eta goreneko maila intelektualaren eredia (horrela irakasten baita, izan ere, Euskal Herriko ikastegietan) izan ordez, seguru aski zeharo beste alderakoa izan zela, hau da, euskal matrizedun Antzinako Europaren eredia suntsitu zuten inbasio indoeuroparretan goia jo zuen supraegitura kolonizatzailearen eredia? Nola onartu, Mari euskal jainkosaren bitartez oraindik bizirik dirauen mundu sinboliko panteista-naturalista guri erauzi eta betirako suntsitzen ahalegindu zen kristautasuna euskal izaeraz kanpoko eraikuntza sinbolikoa izan zela? Nola . . . ?

Menpekotasun-egoeran bizi eta herri-kontzientzia galduz maldan behera doan pentsamenduak —sektore askotan bizirik badirau ere, unibertso inkonzientera (“inkonziente kolektibora”) bakarrik iristen baita— ez du dagoeneko behar bezain besteko autonomia eta sintesi-gaitasun propiorik, pentsakera originala sortzeko ez ezik, euskal unibertso sinboliko-existentzialeko substratu sakonak jorratzeko funtsezkoak diren adiera sintetiko eta semantikodun galderak bere buruari formulatzeko ere. Herri garen aldetik, egun bizi dugun askatasun-gabezialdi luze honetan, galdera horiek desegokiak dira, noski, estatusarentzat (politikoki ez dira egokiak); areago, arima kolonizatuaren pentsakera zuzen eta egokiaren azpian dautzan eduki kanpotarrek osaturiko buru-egiturarentzat deserosoak dira, hondo-hondoan.

Horixe da, ene iritziz, botere kolonialeko aparatuarekin (aparatu polizial, administratibo, kultural, judicial eta gainontzekoekin) aurrez aurre ez topatzea nahia-go, nahien lukeen nazionalismo kultural apal-epelaren uretan igerian omen dabilen euskal sektore horri ispiluan bere burua begiratzea galarazten dion iturri subkons-

zientea. Termino historikoetan, bederen, sektore horren egoera ez da berria, mutur bateko elementu militarretatik beste muturreko elementu sinbolikoetaraino, dena besarkatzen duen estrategia inperialistaren osakide edo osagaietako bat delako. Okupazio militarrek neurri legal, politiko, judizial eta kulturalen bitartez, bederen, indartzen dira beti-beti. Azken horien helburua, herritar okupatuari menpekotasunaren zergatiak arrazionaliza ditzaketen erreferenteak galaraztea da. Estatu inperialistak helburu hori erdietsi duenean, okupaturiko herri hori Historiatik betirako ezabatu dutela, ezabatu dela, esan daiteke. Alderantziz, zailtasunak zailtasun, sinbolikoki eta kulturalki erresistitzen duen herria ez dago garaiturik eta, borroka horretantxe, historia egiten segitzen du, egunez egun.

Ene ustez, Euskal Herriko sektore bat dagoeneko ez da bere buruaz pentsatzera ausartzen. Ehunka (agian, milaka) urtez metaturiko beldurrak galarazten dio herri-sektore horri bere burua inolako konplexurik gabe aztertzea. Beldur hori, bistan da, geroz eta nabarmenago agertzen da, asimilatu gabeko euskal pentsakeraren tejoa duen guztia kriminalizatzen duten (okerreko izenez) komunikabideen faxistizazioak zanzaturik. Horrek guztiak, berriro ere, gu herri aske eta subirau (are kulturalki ere) bihurtu beharko gintuzketen aginteetako argi gorri denak zein mailataraino dauden pizturik adierazten digu.

Pasiboki ("pasiboki" esango dugu, nolabait esatearren) kolonizaturiko sektore horren aldamenen bada beste bat, kolonizaturik egoteaz gainera, bere praktika kulturalarekin (aktiboki) kolonizazio-egoera justifikatzen duena. Oraintxe buruan sektore unibertsitarioa daukat, hain zuzen ere: UPV-EHUkoa, duen bolumen eta garrantziagatik. Sektore kultural horretantxe sortu dira, espero zitekeen bezala (jokoan dauden interesak ezagututa), *Euskal Zibilizazioa*-ren aurkako kritikarik latzenetako batzuk. Kasuren batean edukazio eskasa ere agerian ikusi da (bereizgarri hori apaingailu du Unibertsitate xeble honek). Horrenbestez, gure ikerkide burutsu batzuen diskurtso (ikusitako batera) ezin erantzunezko eta (azaletik, bederen) akademikoen azpian benetan dauden interesen hautsak harrotzea lan polita izango dugu jarraian. Fenomeno horren azterketan emango ditut hainbat atal.

6. Euskal Zibilizazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Zibilizazioa idatzi eta argitara emanik, biziki harrera desberdinak izan zituen unibertsitate-munduan. Ikerketa genetikoetan ziharduten sektore zenbaitek beren interesa adierazi ziguten eta Cavalli-Sforza autorearen lanen alternatibak aztertzen zituzten material biziki interesgarriak jaso ahal izan ziren bertan. Bizkaiko Ingeniari Industrialen Elkarteak ere gonbidatu gintuen, bertako egoitzan liburuan agertzen diren ideiak azal nitzan: aretoa lepo beterik zegoela, jendeak arreta biziz segitu zuen hitzaldia eta, azkenean, partaideetako batzuekin materialak trukatu genituen. UPV-EHUko Pedagogia eta Filosofiako Fakultateak ere deitu gintuen, programa akademikoan dabiltzan ikasleei ikastaro edo eskolaren bat ager geniezaien. Kritikei dagokiela, Bizkaiko egunkarietako batean Cavalli-Sforzaren lanen balorazio genetikoari buruzko batzuk, arazo indoeuroparraren gaineko bat eta Paleolitoko Europan barrena gune euskal-akitaniarraz geroztikako balizko hedapenaren hainbat alderdi eztabaidagarri (kritika horri ere bere atala eskainiko diogu) agertu ziren prentsan. Beste deus gutxi.

Urte osoan zehar, ordea, giroa berotu ez ezik goritu ere egin zen, pixkanaka, unibertsitateko bertako zein beste alorretako gazteriak liburuari eman zion harrera bereziki ona zela medio: abegi horren emaitza gisa, *Euskal Zibilizazioa*-ri buruzko eztabaida eta ideien sozializazioa hasi ziren —ordura arte ezin imajinatuzko— ingurune asko betetzen. Horrela bada, UPV-EHUko Filologia eta Geografi-Historia Fakultateko ikasleak liburuko hipotesiarekin arras interesaturik zeudenez, gonbita jaso genuen bertara azaltzeko. Aretuan, aditzera zetozen ikasleak ez ezik, Fakultateko irakasleen ordezkari-talde bikain bat ere ikusi ahal izan nuen. Haien asmoak, ene liburuaren tesien jasotze estatistikotik dezente haratago zihoazen, bistan zenez. Printzipioz, bederen, distentsio-giroan garatu behar omen genuen hitzaldia ez zen arrunt bare gertatu eta, ondorioz, azalpenaren ondorengo eztabaidan ikusle mutu izatea beste aukerarik ez zuten izan ikasle arduratsu haiek. Joseba Lakarra filologiako irakaslea buru zuen irakasle-talde hark eginiko kritikek (bakarrik, ia) suspertu, protagonizatu eta okupatu zuten eztabaida, ardatz bakar baten inguruan, funtsez: Merrit Ruhlen hizkuntzalariaren dene-kaukasoar familia bat (geroagoko ikerkuntzek euskara bertako ahaidetzat sartu dute) izan zitekeelako hipotesia ezeztatzea.

Handik hilabete batzuetara eta eztabaida hura gogoan, gai berari buruzko artikulu bat eman nuen argitara “Gara” egunkarian, *Dene-kaukasoar familia eta ikerketa zientifikoa* izenekoa⁴, hain zuzen. Huraxe izan zen urtanta gehigarria.

Horrela, 1999ko abenduko *Uztaro* aldizkarian (Lakarra 1999) hirurogeita hamar orrialdeko lan luzea argitaratu zuen Lakarra jaunak balizko umore-senak adierazitako *Ná-De-Ná* izen erdaroidiarekin, dene-kaukasiar makrofamiliaren hipotesia —eta, bide batez (?), *Euskal Zibilizazioa* liburuko tesiak— barregarri uzteko ahaleginetan.

Duen luzera, kritikatzan dituen atalen sistematizazioa eta erantsi dion bibliografia halakoak izaki, Lakarra jaunaren idazlanak behin betiko kritika izan nahi bide zuen, unibertsitateko sektoreentzat. Harrigarri bezain kontraesankorra da (baita interesgarria ere, geroxeago ikusiko dugu zergatik) Lakarra jaunak, liburuari hasi eta buka gaitzesgarri deritzola. “Iruzur intelektual” kalifikatu duen gure dibulgazio-liburu honi ospe edo aipua kentzera zergatik (benetan) bideratu du ez daukan denboratik horrenbeste ordu?

Berehala frogatuko dugun bezala, Lakarra jaunak idatziriko artikulua janzkera entziklopediko, astun, harroputzaren azpian, barne-arropa higatu eta urratu askotxo aurkituko ditugu, hau da, pentsakera burokratiko esklerotizatuaren elementu asko eta berak (dioenaren arabera) menderatzen duen hizkuntzalaritza historikoan ere, hutsune ugari; horiekin batera, Lakarra jaunak erakutsiko digu zientziaren garapenak eta funtzionamenduak ezinbesteko dituzten mekanismoen erabateko ezjakintasuna, nahiz eta garapen eta funtzionamendu horiei hizkuntzalaritza orokorra eta euskal hizkuntzalaritza bereziki ezin dakizkien arrotz gertatu.

Lakarra jaunaren laneko hainbat elementu gertatzen zaizkigu bereziki deigarri. Elementu horiek, alde edo molde, beraien artean daude elkarri loturik eta, behin ere esplizituki adierazten ez diren arren, unibertsitate-munduaren praktika eta dis-

4. Martínez Lizarduikoa, A. : “Dené kaukasoar hizkuntza eta metodologia zientifikoa”, *Gara*, (1999-06-25).

kurtsu sustraitsuak islatzen dituzte: horiek dira, azken finean, bai ikerkuntza, bai irakaskuntza eta, nola ez, gizartearekiko harremani dagokienez, praxi unibertsitarioa zorrotz zuzentzen duten interesak. Korapilo hori askatuko dugu, pittinka-pittinka, hurrengo ataletan.

7. Zer dela eta, txit jaun printzipal eta lanpetu batek iruzurrezko liburu bat ezeztatzeko ordu mordo sartu duen

Lakarra jaunaren lanean deigarri gertatzen den lehendabizikoa, *Euskal Zibilizazioa* liburuari emaniko erantzunaren izaria, luzera, da. "Uztaro" irakurri ohi duenarengan harridura sor lezake liburu baten kritikatzat iragartzen zen hura, aldizkariaren erdia (70 orrialderaino!) bete zuen totxo bilakaturik ikusteak. Izaera dibulgatiboa duen *Euskal Zibilizazioa* liburu ez luzeegi eta gure Herriko gazteriar bereziki dedikatuak, zergatik sortu du horrenbesteko erreakzioa Unibertsitateko agintarien baitan? Zergatik, argitaratu ondorengo urtebete luze hartan zeharo enaturik gertatu baldin bazen? Zertarako horren kritika luze-zabal eta landua dedikatu, Lakarra jaunak bere denboraren banaketa-hierarkizazioa antolatzeke unean bestelako lehentasun eta interesak baldin baditu, oraintsu ikusi dugun bezala? Saia gaitezen poliki-poliki egoera hau egoki ulertzen.

Unibertsitateko sektore batzuei liburu gogaikarri gertatu zaie herri-sektore garrantzitsu batek (elite unibertsitario batzuek sinesten dutena sinetsita ere, heziketa eta sen intelektualaz jantzita dago herri-sektore hori eta, gainera, diru publikotik bizi ez denez, ez du zertan bere hausnarketa intelektualak Administrazioaren prebendak jasotzera baldintzatu) *Euskal Zibilizazioa*-n, dituen hutsuneen gainetik, planteamendu berria ikusi baitu, unibertsitate-giro ofizialetan inondik ere egin ez den planteamendu berria, hain zuzen. Beste aldetik, liburu horretan gure Herriaz egiten diren galdera eta erantzunekin herri-sektore horrek bere burua identifikatu du, bere interesen ikuspegitik adierazgarriak direlako. Lakarra jaunak bere bibliografian aipatzen dizkigun nazioarteko aldizkarietako lanek eta atzerriko publikazioetatik gehientsuenek (kontuan izan, nik ez diodala horrelakoak egin behar ez direnik) ez bide diete berebiziko ekarpenik egiten gure Herriaren interesei eta honek oraintxe bizi duen egoera politiko-sozial eta kulturalari. Bestetik, ordea, gorago adierazi ditugun ideia soilek (gure Paleolitoaz, Cro-magnon esperimentuaren humanizazioaz, Europako Neolitoaz, eta abarrez) badute, antza, gure Herriko sektore zabal batentzako esanahia, adiera, nolako erantzuna sortarazi duten ikusita, batez ere.

Artikulu honen hasieran genioenez, zientzian galderak subjektiboak dira, gizarte-klase eta estamentuen interesen arabera formulatzen baitira. Horrek balio bera du UPV-EHUri dagokionez ere. Unibertsitate horretan ikerkuntza egiten da eta baliteke ikerkuntza hori ona izatea (balioztatu beharko genuke alderdi hori, dena den), metodologiari dagokiola, baina UPV-EHUK ikerkuntzan inbertitzen duen giza eta baliabide-kapital eskergak ez bide die inolako ekarpenik egiten gure Herriaren gehiengoaren interesei: horien apustua, une honetan, XXI. mendeko Europan Euskal Herriari subjektu historikoa den heinean nortasuna aitor dakion lortzea dela eta. Proiektu horretan euskaldunen unibertsitateak bere argia erakutsi beharko luke, elementu identitarioei buruzko ikerkuntzaren berme-emaile den aldetik. Dirudenez, ordea, unibertsitateko ikerkuntzak gure izaeraz egiten dituen galderak ez dira egokiak (honakoa egiaztatzeke, aski da tesi doktoralen edo ikerkuntza-

-proiektuen balantzea egitea) bizirik irauteko borrokan dabilen Herriaren interesentzat. Horrenbestez, gure Herriak ez du hunkipenik sentitzen, badirudi unibertsitate-munduan sorburu duen pentsakeratik eta produkzio kultural eta zientifikotik *paso* egiten duela. Arras bestelakoa da errealitatea. Galdera egokiak egiten asmatzean eta, aldez edo moldez, erantzun originalak fokatzen ahalegintzean, lurrikara kultural xumeak jazotzen dira behin baino gehiagotan: *Euskal Zibilizazioa* liburuak eragin duena, esate baterako.

Euskal Zibilizazioa fenomenoaren eraginez, gure kultura, hizkuntza edo nor-tasunari buruzko gaietan ikertzen ari omen diren unibertsitateko estamentuak nabarmen xamar geratu dira eta, beren burua sorturiko egoeraren ispiluan begiratzean, ez direla ederregi egokitu ikusi dute. Ondorioz, gauzak hausnarrean ibili ordez, urak eta suak hartu dituzte.

Euskal Zibilizazioa eta antzeko fenomenoaren aurrean estamentu horien taktika (beraien jarduera-eskemetan inkonzienteki integratua dute) hiru urratsetan laburbil daiteke:

Lehen urratsa: beste aldera begiratzea. Dibulgazio-lanak ez dira interesgariak unibertsitatean (esaten diote beren buruari). Unibertsitateak lorpen garaiagoak erdietsi behar ditu. Dibulgazioa *vulgo* horrentzat da, diote eliteek.

Bigarren urratsa: *Euskal Zibilizazioa* liburuan agertzen diren tankerako ildoak unibertsitateak zergatik ez dituen ikertzen eta ikerlan horiek irakaskuntzan zergatik ez diren jendaurrean azaltzen galdezka ari diren unibertsitateko ikasleenganaino iritsia den fenomenoak bere horretan segitzen duenez, alarma eta haserre estamentalala pizten dira.

Hirugarren urratsa: Badirudi instituzio akademikoak erabakitzen duela. Horra hor Lakarra jauna, estrategia entziklopedikoaren “Patriot” misilak esku banatan, eta “arrazionaltasun” akademikoaren aureola buru gainean, *Euskal Zibilizazioa* liburuaren egilea azientifikotzat eta herria ergeltzat jo nahi eta ezinean.

Aurreko prozesuak ederki azaltzen du Lakarra jaunak zergatik esku hartu behar izan duen, arrunt gogoz kontra, ene liburua kritikatzeko bere denborari orduak eta orduak kenduta.

Zoritxarrez, *Euskal Zibilizazioa*-ren kasuan, kukuak hagitz makur jo die, azientifikotzat jo —eta, buru egiten badu, mundu akademiko horretatik baztertu— nahi duten egilea, gaitz eta jokamolde estamental horien kontra txertatua dago eta.

Alde batetik, *Euskal Zibilizazioa* lanaren balizko egile azientifikoa prestakuntza zientifikoan hezi da aspalditik, hainbat diziplinan sustraituriko karrerako titularrak delako (ingeniarria da eta, horrenbestez, metodologia zientifikoaren oinarri orokorrak eta ez horren orokorrak kontrolatzen ditu). Beste batetik, jakinduria unibertsitarioaren sakon-sakoneko misterioetatik kanpokotzat tratatu nahi lukeen autore honek Lakarra jauna dabilen unibertsitate berean dihardu irakasle-lanetan (Zientziaren Filosofiako irakasle titularrak baita) eta, Lakarra jauna gorabehera, giza zein gizarte-zientzien alorreko hainbat ezagutza kontrolatzen ditu. Horiez gainera —azken hau ez dugu, tamalez, fruitu ugaria gure Unibertsitatean—, Herri baztertu honen kulturaren aldeko militantea da eta, hortaz, karrera akademikoaren sasi-

erakargarriek (katedraren bilaketa eta horrek ordainarazten dituen bidesari guztiak, adibidez) ez dute liluratu orain arte, nahiz eta gure irakasle indigenen parte handi baten ahalmen eraldatzailea itzalduta duten (gure unibertsitatearen egitura —ez dezagun ahaz— koloniala da eta, hortaz, elementu indigenoak *kabitzen* dira bertan, itxurak egiteko balio duten heinean, hariak Madrilek eragiten duen bitartean), damurik.

Esana dugun guztia kontuan izaki (horixe agertzen da, aldez edo moldez, *Euskal Zibilizazioa*-n) liburuaren egilea adibide unibertsitario *berezi* eta arriskutsu bilakatu da eta, halakotzat, lehenbailehen exortzizatzeta komeni da. Hona hemen Lakarra jaunari *Euskal Zibilizazioa* liburuak eragin dizkion lo-galtze ugarietako bat: horrexegatik eman behar izan ditu ordu pilo galantak eta berebiziko ahaleginak bertan esaten den guztia gezurtatzeko, nahiz eta liburuaren beraren ekarpena, gure filologoaren aburuz, iruzurrezkoa eta euskarri gabea den (ia-ia % 100ean, doi-doi).

8. Zaldun unibertsitarioen hizkera kriptikoaz

Lakarra jaunak emaniko ihardespeneraren izariarekin batera, beste zerbait ere gertatu zaigu aski deigarria: artikulua idazketan erakutsitako hizkeraren kriptikotasuna. Ilun, ulergaitz eta, areago, harroputz gertatzen da pasarte ugarietan: horren adibide nabarmenetako bat, ingeles hutsezko aipamen ugariak (azti-ikasle unibertsitario horiek biziki ohituta gauzkate horrelakoetan: buru gainean ilea bakarrik zeraman herri xehearekin nahasterik nahi ez zuten Luis XVI. erregearen korteko noble-gaien ileordeak ekartzen dizkigute gogora).

Unibertsitateko irakasle elebidun naizen aldetik, aise ulertzen ez diren gaiak irakasten ditut (zientziaren filosofiari dagozkionak, adibidez), gai zientifikoei buruzko euskarazko liburu askotxoren egilea naiz (fisika kuantiko edo erlatibitate hasita, fraktalen teoria edo zientziaren soziologiaraino) eta, gainera, Gaiak argialetxeko *Pentsamendu Garaikidea* liburu-bilduma ezagun ospetsuan euskaratzen ari diren Nobel saridunen gai zientifikoetan aholkulari eta zuzentzaile nabil aspaldi honetan... Tira, euskaraz zientzia natural, formal eta sozialez idazten diren liburu edo artikulua gehien-gehientsuenak ulertzeko gauza egiten omen nauen curriculum hori gorabehera, egiari zor, Lakarra jaunaren idazlana irakurtzeko (eta berrirakurtzeko) ahaleginak eta bi egin behar izan nituen, bere pentsakeraren ñabardurak uler nitzan. Hau da, artikulua hura irakurri gozatu eta Lakarra jaunaren jakinduriaren hainbat alderdiz (aurkitu nituen horrelakoak, dena dela) ene burua aberastu ordez, hasieratik amaierarainoko bide latza izan nuen, animoso nengoen arren, nolana ere, kritikatzeko zuten liburuaren egilea neu bainintzen.

Gauzak horrela, ez dut uste Lakarra jaunaren lana hasi eta buka, oso-osorik, irakurri duten pazientzia handi, prestakuntza bikain eta moral altu-altuaz jantzirik pertsonak bi eskuetako (agian esku bakarreko?) hatzak baino gehiago direnik. Gauzak horrela izatea, bere ezagutza ahalik eta era arin eta atseginean jakinarazi nahi duen pertsona orori, gutxien-gutxienez kontu larria iruditu behar zaio (are larriagoa irakasle unibertsitario bati dagokiola, haren lanbidea edo jarduera profesionala irakaskuntza izanik, dakien guztia era ulergarriean transmititzeko liberatu omen dutelarik). Ez horrelakorik, ordea. Areago oraindik, unibertsitate munduko kide askoren kasuan ohiko ulergaitasun hori ezaugarri onuragarritzat jotzen da,

mezu unibertsitarioaren eduki intelektualak, kalitate onekoa izatearren, herritar gehienentzat ulergaitz gertatu behar duelako, nonbait. Gure fakultateetako ikasle jasankor askok pairatu behar izaten duten irakaskuntzari dagokionez, aspaldiko partez dabilen esakunea etorri zait burura: «Irakasle horren jakinduria sekulakoa bide da, deus ez baitzaio ulertzen». Lepo gainean burua daukan jendea lotsaraziko lukeen egiazko esamolde horren funtsa goraka doan balio bilakatu da gure unibertsitate-munduan: zenbat eta hizkera kriptikoagoa, hainbat eta prestigio akademiko handiagoa.

Nolanahi ere, unibertsitateko irakasle askok edergailu gisa bere buruari ezarzen dioten ulergaitzasunez jardute horrek (eta, horrekin batera, orain aztertuko ez ditugun beste hainbat mekanismo okerrekin) oso zeregin zehatza du: horren bitartez, unibertsitate- edo sail-mailako aginte-kateko kide ez diren estamentu sozialei (hau da, ia-ia gure gizarteko beste guztiei) jakintzarako irispidea galarazi nahi zaie. Ikasgaien (gizaki- eta gizarte-zientzietan, batik bat) irakaskuntza eta ikerkuntza munduan bizi-bizirik dabilen ulergaitzasun horren gibelean, pribilegio, kapera eta (hizkera kriptikoak menderatzen dituzten bakarrak diren) zaldunen mundua bizi da: hautapen-prozesu luze eta latzaren buruan aukeratuko diren minoria jakin batzuek bakarrik iritsi ahal izango duten delegazio bidezko boterea horrelaxe kontrolatzen dute. Kapera horiek, beste aldetik, gurea bezalako unibertsitate klasistetan eginkizun sozial jakin bat betetzen dute: sistema kapitalistaren interesen gainegitura osatzea, bertako kideak izatea, herri-klaseak jakintzara (horrenbestez, horri egin behar zaion kritikara eta planteatu behar zaizkion alternatiba posibleetara) iritsi ez daitezen eta, horrela, helburu bat lortzea, zerbitzatzen duten buruzagiaren interesen arabera arazoak aztertu eta konponbideak bilatzeko moduko statusari eustea eta iraunaraztea.

Ikuspegi edo testuinguru (den-denetan ixildu eta ixilarazia) horretatik bakarrik uler dezakegu Lakarra jaunari beste norbait bere “alor pribatuan” (dirudienez) sartu izanak eragin dion hira eta haserrea. Horrela bakarrik uler dezakegu, era berean, Lakarra jaunari ahanzi egin zaiola, artikulu honen hasieran genioen moduan, zientzia hiru mailatan egituratzen dela eta horietako bi (ontologikoa eta teleologikoa) subjektiboak direla eta, horrenbestez, klase-interesen arabera. Ondorioz, Lakarra jaunak nahi ez badu ere, herritar guztiek, gizarte-estamentu denek edo, areago, (inoiz Euskal Herrian bertan gertatu den bezala —zentral nuklearrari buruzko eztabaidan, abidibez—) herri osoak erdiesteko modukoak dira.

Horretaz ari garela, adibide bikaina dugu Lemoizko mamu nuklear ikaragarri hura geldiarazteko Herri honetako sektorerik konszienteenak aurrera eramanez borroka latza. Gogoratu beharrekoa dugu, horrekin batera, Euskal Herri osoan hainbat urtetan zehar egin ziren eztabaida ugarietan Iberdueroko ingeniariak nolako argudioek ematen zizkieten entzuleei: proiektu nuklearrari buruzko azken erabakia beraiek hartu behar zutela, zentral nuklear batek nola funtzionatzen zuen ulertzeko janzkera teknikoa beraiek bakarrik zuten eta; beraz, herriari egozten zioten teknikariak balioztatua zuten erabakiaz bestelako irtenbiderik proposatzeko bezainbesteko prestakuntza ez izatea; irtenbide hark —Lemoizen zentral nuklearra jartzeak, alegia— herriarentzat inola ere inongo arriskurik izango ez zuela argudiatuz amaitzen zen beti ingeniari haien diskurtsoa. Hainbat milurtekotan barrena Historian beterano bilakatu den Herri honek, berebiziko sena erakutsiz, «haur hola, çirola»

esaera zahar-zaharra gogorarazi zien, kapitalaren mendeko zientzialariek eta unibertsitateak esan ohi diguten norabideaz kontrakoan; hau da, gizartea bera da —eta ez, inondik ere, gizarteak ordaintzen dituen teknikariak— nolako galderak eta nolako helburuekin egin nahi dituen deliberatu beharko duena eta ez beste inor. Horrez geroztiko eginkizun teknikoak espezialistei agindu ahal izango zaizkie akaso, teknikarien esku-hartzea premiazko edo bidezkoa den neurrian, eta, hori bai, herriaren zerbitzutan beti ere: horretarako ordaintzen diegu soldata gure zergekin.

Unibertsitate-egiturak, azken atal horretan, alderantziz dihardu, halaz ere. Herriari ez zaio aukerarik ematen ez galderarik egiteko, ezta ikerkuntza edo irakaskuntzarekin nolako bidea hartu nahi lukeen adierazteko ere. Sistemak egiten du hori, herria gabe. Ondoren, sistemak (herri-interesen kontra, eskuarki) ezarritako zelai horretan jokatu dute unibertsitateko irakasleek eta ikertzaileek, bere ikerkuntza-parafernalia eta hizkera kriptikoarekin.

Euskal Zibilizazioa liburuarekin, ordea, sistemaren bermatzaile den unibertsitate kolonialak ezartzen duen kontrol zorrotza pasa gabe egin dugu aurrera eta maila ontologikoa eta teleologikoa bitartekorik gabe aztertu ditugu, sistemaren kuttunak izan ordez, Euskal Herriaren interesentzat onuragarri diren galderak planteatuz eta helburuak adieraziz. Statusaren jardueraren kontrako atentatu horren aurrean, sistemako ikertzaile eta irakasle batzuek zerbait egin behar izan dute, noski, inozotasunez Euskal Herriko deritzogun unibertsitate kolonial honen ildo politiko, ideologiko eta kultural guztien aurrean erabat makurtzen direla nabarmen geratu delako.

9. Análisis, síntesis eta zientzia-dibulgazioa

Lakarra jaunak eginiko lanaren azterketan une honetara iritsiz gero, aurrez aurre dugun arazoari, duen garrantzi eskerga dela medio, ezin dakioke saihets egin: ikerkuntza zientifikoei (adiera analitikoan edo sintetikoan) ekiteko moduaren berebiziko inportantzia ari gara, jakina. Kontu horrek beste gai hunkigarri batera garamatza, zuzen-zuzenean: dibulgazio zientifikora.

Kritika osoan zehar Lakarra jaunak, *Euskal Zibilizazioa* eta antzeko dibulgazio-lanen kategoria ozenki erdeinatzen du (bai bere lanaren planteamendu orokorrean, bai pasarte zenbaitetan erakutsi duen bezala), eta kalitate handiko gogoeta zientifikoz kanpokotzat jotzen du; kalitatearen label hori unibertsitateko pasiloetan eta atzerrian (eremu anglosaxoian, batik bat) egindako publikazioetan bakarrik banatzen bide da.

Ezagutza eta ikerkuntza zientifikoaren mundua gaur egun arrunt zabal eta espezializatua denez, horrek sortu duen egoera oso kezagarritzat kalifikatu dute mende honetako pentsalaririk sakonenek, zientzia-alorreko langileek berek ere ez baitute mundu horretarako irispidea. Ondorioz, munduaz zientziak jakinarazten digunaren inguruan alienazio- (ezjakintasun-) -egoera orokorra sortu da haietako gehientsuenen artean (are eta larriagoa, nola ez, herritar xeheen artean).

Arazoa, ordea, ez da bakarrik jakintza-alorrek hartu duten hedadura eskerga; arazo larria, hein berean, lanak ikertzeko modua bera ere bada, bai natur zientziez, baita giza eta gizarte-zientziez ari garela ere. Ikerkuntza zientifikoa, oro har, eta unibertsitarioa, zehazkiago, biziki espezializatuak direnez (hau egiaztatzeko, gure Unibertsitatean urtero-urtero irakurtzen diren tesi doktoralen aztergaiak irakurri besterik ez dugu), ene liburuan kopia nuen aforismo ezagunak zioen bezala, aztertzen diren gaietan «deusi buruz dena jakitera iritsi da». Hauxe da, izan ere, UPV-EHU horretan garatzen diren ikasketa eta ikerketen baliagarritasuna izugarri mugatzen dituzten akatsetako (beste) bat.

Euskal Herriko Unibertsitatean, Estatu Batuetako eredu alienagarria kopiatu eta beraien artean zerikusi edo loturarik ez duten hainbat gairi buruzko lan analitiko hutsak (biziki espezializatuak), guztiz sakonak, egiten ahalegintzen dira. Horrela, ikerlan horiek, testuingururik ez dutenez, Euskal Herri honentzat onuragarri gertatu beharko balute ere, inongo garrantzi edo baliorik gabeko gertatzen dira. Egiari zor, lan analitiko superespezializatu horiek baliagarri dira, bai, Euskal Herrian dagoen unibertsitate-eredu espainol eskuindar (horregatik aplikatu diogu unibertsitate honi “kolonial” kalifikatzailea) honen euskailu den sistemarentzat; baliagarriak ditu, era berean, eredu yanki aseptiko teknologizataleak: honek, integrazio-mekanismo ahaltsuen bitartez (horien artean, espezialista unibertsitarioen —are UPV-EHUkoen— ia erreferente bakartzat, mundu anglosaxoiko argitarapenak eta kongresuak ez dira garrantzi txikienekoak), planeta-eskalan unibertsitateek sortu eta bere interesetzako baliagarri den pentsakeran harrapakari-sistema gisa dihardu, gerora beraren testuinguruan (kapitalista eta neoliberelean) erabiltzeko xedez. Era horretan, gure Unibertsitatea bitan alienaturik (bere interesetan baldintzaturik) gertatuko litzateke, nazio- eta klase-alderdietatik, alegia.

Gauzak ez lirateke horrela izan behar, dena den. Artikuluaren hasieran genioenez, ikerkuntza zientifikoak garrantzi handiko bi maila subjektibo dituen bezala, badago (eta badugu, hots, baita gure Unibertsitatekoa ere) beste eskema baten, bestelako galderen eta orain ez bezalako helburu batzuen arabera antolatzerik. Helburu horiek eragingo dute Lakarra jaunak gustu-gustukoak dituen lan analitikoak (“ofiziokoei” —atsegin handiz oroitarazi ohi digun bezala— erreserbatu zaigun esku-hartzeko alorra, alor horietako espezialistak haiek baitira, zinez) baina norabidetu Herri honen interesei jarraiki. Ez da ahanzi behar hemen Lakarra jauna eta bera bezalako ikertzaileak Herriaren zerbitzutara kontratatutako teknikariak baizik ez direla, inondik ere ez, herritarrek bertara sartu ezinik, arras mundu zail eta nahaspilatuko jainkotzat gurtu beharko litzatekeen gizaki pribilegiatuak. Ikerkuntza-xede eta -helburu orokorretan Herriak kontrolaturik legokeen bestelako unibertsitate-eredu horrek, aldiz, berezko eskubidez har lezake bere burua Euskal Unibertsitateetat, eta ez hausturarik gabeko trantsizio politiko baten emaitza den egungo UPV itxuragabeko mamu espainolista eskuindarrak, non Euskal Herriaren etsairik bizien eta irrazionalenak loratu (eta loratzen) diren.

Gure Herriaren interesen arabera ikerkuntza-alor eta helburuak kontrolatzeko gauza izan litekeen unibertsitatea antolatzea, gaur-gaurkoz bederen, ditugun mekanismo estatutario hauekin eta sistema zentral neofrankista izaki, fikzio hutsa da. Nolanahi, unibertsitate klasista eta espainol honen interesen alorrean gabiltzala ere, kultur mundu eta ezagutza-egituretatik baztertu eta zanpaturik duten Herri

honentzat interesgarri diren galderak egin ditzakegu oraino: *Euskal Zibilizazioa*-ren kasua balizko edo ahalezko bide horren paradigma bihurtu da, esate baterako. Etsaiaren sistema zientifikoaren barnean —arkeologia, paleohizkuntzalaritza eta populazio-genetika alorretan— eginiko ikerketa analitiko isolatu eta loturarik gabeak (gehien-gehientsuenak, atzerrian gauzatuak) han-hemenka jasorik, eraikin koherentea altxa dut; hau da, UPV horrek etengabe ekoizten duen “helbururik gabeko” produkzio analitikoaren aurka, sintesi-lana egin dut nik, Herri menperatu honen interes eta askatasun-nahiaren ikuspegitik. Erantzuna denok ezagutzen dugu: berak bakarrik ederki azaltzen du *Euskal Zibilizazioa* liburuak zergatik eragin duen horrelako lurrikara kulturala; bertan eginiko galderek eta jaurtiriko hipotesiek herritarrrak suspertu dituzte eta haien artean identifikazioa eta interesa piztu dute. UPVn inortxok ere aztertu nahi ez bide dituen arren, agerian dauden (ezin baitira ezkutatatu) galdera eta ikerkuntza-alor berriak automatikoki jariatzen ditu eztabaida- eta ikerkuntza-emari horrek. Liburuan aipatzen diren zientzialari ospetsu eta ezagunen lanetako batzuetan ere iradokitzen dira. Jorratuko dugu ostera ere ataltxo hau.

Horrenbestez, lan analitikoak, bai, dudarik gabe beharrezkoak dira, baina paradigma baten testuinguruan kokaturik, hau da, ikerkuntza sintetikoak (berau baita azterlanak eduki garrantzitsuaz jantziko dituen) orientatuko digun zelaian (“zelai sintetikoan”). Bestela, gure Herriaren premiazko (berr)eraikuntza-prozesuari deus aportatuko ez dioten makina bat ikerlanen mataza korapilatsuan norabiderik gabe lardaskan ibiliko gara, ez atzera, ez aurrera. Horren adibide lotsagarri nabarmena dugu 1999-2000 ikastarorako UPV erakundearen ikerkuntzarako aurrekontua: 13.000 milioi pezetaraino (520 milioi libera) igo zen. Egundoko dirutza antzu horren ordainetan, zergen bidez Unibertsitatea bera ere finantzatzen duen Herriaren etorkizunerako emaitza baliagarriak ez.

Egoera horren aurrean, alta, gure unibertsitario gehientsuenak ditugu: horien iritziz, zientzia lanbidezko eginkizun hutsa da (analitikoa); horren azpian (sekula ez baita argi eta garbi azaltzen), botere-egiturek (den-denak, gure Herriaren etsai bi-ziak) agindu eta ezarritako planteamendu orokorra (sintetikoa) datza. *Euskal Zibilizazioa*-k, berriz, zientziaren metodologia, epistemologia eta historiaren ezagutzatik, beste egitura sintetiko bat planteatuko du: hortik abiatuta, ikerkuntza analitikoa bere helburuetan ere baldintzaturik egongo litzateke baina, oraingoaz, ohiko norabideaz beste aldera: horrela, lan analitikoetako ezagutza (Lakarra jaunak bere idazkian ergel-isekaz adierazi dituen “etxeko lan” horiek) emari zabal gisa jariatuko litzateke horrela Euskal Herriaren interesen mesedetan. Hau da, oraintxe dugun Unibertsitatea bera, baina zeharo alderantziz.

Egin daitekeen lan arduratsu bakarrari ikerkuntza analitikoa deritzola erakutsi izan du Lakarra jaunak sarri bere idazlanean zehar, bai esplizituki, bai implizituki ere: aurrean jorratutako ildoari jarraiki, hausnarketa egin nahi nuke kontu horri buruz ere. Kinka larri horren aurrean bi aukera ditugu: edo Lakarra jaunak badaki sistemak nola funtzionatzen duen eta, horrela, bera onartu eta irmotu egiten du edo, bestela, ez du ezagun zientziaren funtzionamendua ikuspegi soziologiko, epistemologiko eta historikoan. Bere lana astiro eta arretaz irakurriz gero, Lakarra jaunak bi aukera horietatik zerbait baduela ondorioztatu dut.

Lehen aukerari dagokiola, ez dut uste inongo zalantzarik dagoenik: orain bertan Baskongadetan indarrean dugun sistema unibertsitario (eskuindar eta espainol, behin eta birritan diogun bezala) horren engranaje edo makinerian txertaturik eroso sentitzen da Lakarra jauna. Unibertsitateko “ofiziokoak” garenok ondotoxo dakigu UPV horretan katedrak, departamentuetako zuzendaritzak edo fakultateetako dekanotzak nola lortzen edo irabazten diren. Badakigu, era berean, sari horiek eskura daitezkeela unibertsitateko botere politiko eta mekanismo ekonomikoak kontrolatzen dituzten kapera eta *familien* interesetara pertsona edo taldeak makurtzen diren heinean. Unibertsitate honetan administrazio-karrera egin ahal izan du Lakarra jaunak ez delako elementu nardagarria (hau da, bestelako hitzetan, arestion aipatu ditugun botere estamentalak benetan eskuan daukatenen interesak arriskatzeko ez dituelako). Horregatik, Lakarra jaunak bere buruari inondik ere ezin planteatu liezaiokeela *Euskal Zibilizazioa* bezalako libururik idaztea (horretarako gaitasun sintetikorik baleza; baina horrelakorik ez du), *cortijo* horretako nagusiak gogaituko lituzke eta.

Horrez gainera, oraintsu esana dugun bezala, Lakarra jaunak altxor bat osatu du, bi elementu elkarrekin bilduta: batetik, indarrean dagoen sistemarekiko adostasunez; bestetik, zientziaren eta metodo zientifikoaren funtzionamenduz ezezagutzarazko sakona. Egoera larri-larrian da, ezagutzen ez duen zientzia horrexen izenean *Euskal Zibilizazioa* gezurtatu edo ezeztatu nahi duen Lakarra jaun hori, tamalez. Hori ulertzeko, adibidez, biziki adierazgarri eta paradigmakoak dira haren idatzian inplizituki datzan dibulgazio zientifikoaren erdeinua eta, esplizituki, halaber, utzi duen narda; horra hor, Lakarraren hitzak: gutxienez hiru adarretako (populazio-genetika, arkeologia eta paleohizkuntzalaritza) jakintza bildu duen *Euskal Zibilizazioa* liburuko diziplinarteko lana mintzagai harturik, aurreneko biez (genetika eta arkeologia) fitsik ez dakiela baina hirugarrenaz (paleohizkuntzalaritzaz) luze hitz egin dezakeela, bera baita dogmak finkatzeko arduraduna (eta ez —antza— beste inor).

Gune honetara iritsita, UPV dugun janzkera azientifikoekin mozturroturiko unibertsitate-mamu eta pentsakera bakarraren sehaskaz batzuek egiten dugun pentsamendu kritikoaren aurka, ezezagun duen zientzia baten izenean, bere burua herese-zanpagailu bihurtu edo izendaturik ikusi nahi lukeen zaldun horren pentsakera epistemologikoaren urria atzemateko funtsezko gai batzuk aukeratuko ditugu.

Hona funtsezko gai horiek:

1. Prestakuntza unibertsitarioa eta dibulgazio zientifikoa.
2. Azterketa zientifikoa diziplinartekoa izan beharra.
3. Zientziaren metodoa eta funtzionamendua.
4. Historiaurreko euskal hizkuntzalaritzaren azterketa eta Lakarra jaunaren tesiak.

Lakarra jaunaren lan monolitikoari buruz hemen garatzen ari garen kritika osatzeko lau gai horiek behinenak izaki, aurrerantzean xehekapen handiagoz jorratu beharko ditugu.

10. Zientzia-dibulgazioaren eginkizuna egungo gizartean (eta Unibertsitatean)

Egiazko zientzialari handi guztiek, hau da, bere diziplinaz gainera jakituriaren beste alor batzuk ere landu dituztenek (Einstein, Bohr, Schrödinger, Heisenberg, Pauli, Freud, Marx, Darwin, Monod, Crick, Weinberg, Davies, Bohm, Sagan, Gamow, Hawking, Glashow, Thom, Lovelock, Kuhn etab., etab.), noiz edo noiz, aitortu dute: kalitatezko dibulgazio zientifikoa den lanabes horri esker ez balitz, beren prestakuntza edo trebakuntza integrala osatzea ezinezkoa izango zela. Gaur egun ere, jakinduria zehatz baten azterketa analitikoa espezializazio-maila biziki alturaino igo denez, gainontzeko alor guztietan ezagutza zehaztasun horrekin edukitzea zeharo ezinezkoa da.

«Egungo gizartean geroz eta gehiago dakigu, baina, geroz eta gutxiago ulertzen dugu» esan zuen, halako batean, zuhurtzia eta zentzuzkotasun osoz Isaak Asimov-ek. Aforismo horrekin adierazi nahi zuen, jakina, sentikor agertu diren zientzi zirkulu asko etsipenak emanik daudela, oso jakinduria mugatu batean heziketa eta ikerkuntza analitiko (espezializatu) sakona eginak dauden arren, gainerakoaz (hau da, ia-ia guztiaz) deus ere ez dakitelako; horrela bada, ikuspegi intelektualetik behintzat, benetako analfabeto bilakatu dira.

Asimov-ek “ulertzeaz” ari denean adierazi nahi diguna hau da: analisi hutsezko lan espezializatuaren aurrean, egungo ezagutzaren egiturak jasotzen dituen ezin konta ahalako espezialitate zientifikoetako azterketa fenomenologikoak ulertze-edukiaz hornituko dituen sintesiaren ezagutza integratzailea eskuratzeko premia gorria dugula, argumentu orokorraren bilbea edo ehuna (hau da, zientzia —osotasuna den aldetik— kosmosari buruzko pentsamendu globalaren sistematzat daukana) berreskuratuz; horrek, beraz, unibertsitateko espezialista askotxok ohikoa duten brikolaje intelektual hutsal hori baino askoz ere garrantzi handiagoko gauza bihurtzen du zientzia. Azterketak informazioa ekoizten du, baina sintesiak ulermena sortzen du. Zientziak, fenomenoak eta haien zergatiak azaltzeaz gainera, Errealitateaz sakoneko ulermena agertu behar duela sinesten dugunok atal honen hasieran aipatu ditugun zientzialari horien eremuan gaude, hau da, maila garaiko dibulgazio-heziketari esker erdietsitako sintesian arazo epistemologikoak osorik ulertzeko irtenbide bakarra ikusten duten gizaki horiekin bat eginik.

Zientzi dibulgazio ona, orain bertan, masa handiak (tarteko kideztat hartzen dute beren burua lanbidezko zientifiko gehientsuenek) kulturaz hornitzeko bide bakarra bihurtzen ari da; kulturizazio-prozesu horren helburua jende-olde horiek pentsalari integral bilakatzea da, gizarte kapitalistan jarduera zientifikoaren egituraketak agintzen digun alienazio generalizatu hau gainditu ahal izan dezagun.

Kontzentrazio neoliberalerako fase honetan, kapitalismoak zientzia aliatu sendo eta egonkortzat jotzen du (hori frogatzeko, arestiko bi adibide jartzearren, Irak eta Jugoslaviaren kontra NATOk eginiko erasoetan baliatu zituen teknologien egitura-keta aztertu besterik ez dago), planeta osoan duen menpekotasuna ugaldtu eta hobetzeko. Gainontzekoen kontra bortxakeria instituzionala martxan jartzeko eskubidea duen subjektu bakartzat bere burua duen modu berean, zientziak eskaintzen eta ematen duen botere-aukeraz baliatzeko ongile bakarra ere bera dela uste du kapitaldunak, ez beste zeinahi sektore (gaineatiko herria, esate baterako). Adiera

horretan, luze jo duen prozesu bati esker jakinduria zientifikoa eratu den modu horretan, lehen munduko elite ekonomiko-politiko-militar menperatzaileak bakarrik irits daitezke informazio garrantzitsua baliatzen duten maila zientifikoetara. Horretara heltzeko praktikan jarri den taktika soila izan da: jakituriak eta zientzia-alorreko langileak geroz eta espezializazio sakonagoetan bana daitezen bultzatzea, ikerkuntza analitikoaren sintesia eskura inork (indar hegemonikoek izan ezik) ez eduki arte; sintesi horiek aplikazio teknikoaren patrimonializazio eskusiboa bideratuko dute, gerora. Esan gabe doa aplikazio tekniko horien helmuga, beti-beti, multinazionalak mozkin hobekia izatea dela, zientzia-alorreko langileen prekarizazioaren lepotik bada ere, hauei beren lanaren emaitza erausi egin baitzaie (fabrikako langileei egiten zaien bezala), eta engranaje horretan jarri-eta-kenduzko pieza ordezkagarri (beraz, ez dira funtsezkoak) bihurtu ditu: azkenean, makineria horretako kide eta zerbitzari gisa (sistemarekin bat etorri edo ez etorri) badabilta ere, ez dira gauza sistemaren jarduerara egiaz ulertzeko.

Gizateria prekarizatu bateko kide menperatu eta aspertzearaino zigorturiko Herri bateko biztanle garen aldetik, bizitzea egokitu zaizkigun garai latz hauetan jasotzeko modukoa iruditu zait Umberto Eco-ren aipamen ezagun hura: «Agian historia egiterik ez dugu izango; izan gaituzen, gutxienez, haren behatzaile argi, adimentsu». Hori, gure kasuari aplikatu nahi izanez gero, honelako zerbaitekin izan liteke: mundu-sistema klaseka egituratu izanak eta zientzia multinazionalen eskuetan pribatizatu izanak zientziako langileok (inongo eraginik izan edo erabakirik har ezin dezakegun) jakituriako geroz eta lursail txikiagoetako morroin isolatu bihurtu bagaituzte ere, aberats gaituzen, treba gaituzen gainerako ikerkuntza-lursailetan kalitateko dibulgazio zientifikoari esker eta horrela, gutxienez-gutxienez, partida hau jokatzeko sistemak nolako zelaietan kokatu gaituzen ikusi ahal izango dugu eta, era berean, zientziak (baita unibertsitateak ere, zientziaren egituraketaren beste lursail bat den alderditik) neurri batean nola funtzionatzen duen, zein diren bere helburuak (ikaragarri subjektiboak) eta unibertsitateko langileoi (besteak beste) entregatu zaigun oholta handian nolako eginkizuna bete behar dugun ikusteko gauza izango gara.

Askapen intelektualerako (sintesi alderako) lehen urratsa, alienazioaren mekanismoak bilatu, aurkitu eta haietatik jabetzea da, eskuratutakoan, aztertu eta —zailtasunak zailtasun— gainditzeko bideak topatzeko. Sintesi hori egin ahal izateko ezagutza globalizatu ezinbestekoa da: espezialisten mundu honetan, irtenbide bakarra dago horretara iristeko, Lakarra jauna biziki erdeinagarri duen dibulgazio zientifiko horixe, hain zuzen ere. Unibertsitateko langile horrek zientziaren historia apur bat ikasi balu, honezkero konturatuko zatekeen pentsalari zientifiko handienak direla, bere espezialitateak abiatuta, sintesi-bide horiek jorratu eta garatu dituztenak; beraiek dira, halaber, dibulgazio zientifikoaren (gehientsuak, sorkuntza-estilo hori jorratu ohi izan duten idazleak izanik) aldeko sutsuenak, zientziako langile gehienetan (baita, hortaz, unibertsitateko irakasleetan) hautematen den alienazioak sorturiko maila gainditzeko bide bakarra den heinean.

Lakarra jauna, artikulu honen egilearekin izan zuen elkarrizketa gogor-atezuan, biziki samindurik agertu zen *Euskal Zibilizazioa*-ren egileak haren filologia-lanak liburuan aipatzen ez zituelako. Horien berririk ez nuela erantzun nion nik. Hainbat aldizkari espezializatutan argitaratutako artikulu zientifikoak horretarako

zeudela erantsi zuen Lakarra jaunak. Liburua osatzeko iturri gisa dibulgazio-maila garaiko aldizkari, argitalpen eta liburuak izan nituela ihardetsi nion, inongo alorretan (zientziaren historia, filosofia eta metodologian izan ezik, noski) espezialista ez nintzela eta; hainbat lan independente abiagune harturik, lan-hipotesi bakar batean denak sintetikoki egituratzea izan zela ene lanaren bereizgarri originala; *Euskal Zibilizazioa* liburuan aipatzen ziren lanak (ene buruari ezarria nion xedea betetzeko balio handikoak ziren heinean) aski global eta sintetikoak zirela eta berarenek —Lakarra jaunaren lanek, alegia— testuinguru hartan ez zutela inolako adierarik, espezialisten munduan izan zezaketen interesaz kanpo, bere sintesien dibulgaziorik ez nuelako inon ere ikusi. Lakarra jaunak, ostera, ez omen zuen hura ulertzen: sektore hartako aldizkari espezializatuetan argitara emaniko ikerlanen aipamena egiten zuen etengabe, behin eta berriro, automata gisa. Gorren arteko elkarriketa zen hura, hitz batez.

Pasadizo horretatik atera nuen ondorea ezin zen bestelakorik izan: gure unibertsitatean ugari-ugari dabiltzala, «ia deusez orojakintasuna eta ia denaz hutsaren pareko jakituria» daukaten espezimen horietako bat da Lakarra jauna. Argi dago Lakarra jaunak ez duela prestakuntzarik, ezta goian aipatu ditugun (eta *Euskal Zibilizazioa* liburuaren funtsa diren) globaltasun sintetikoaren maila horietan lanean jarduteko asmorik ere (dibulgazio zientifikoa biziki arbuiatzen baitu); beraz, gure liburuan adierazten diren lan-koordinatuak edo antzekoak egituratzeko ezindurik ikusten du bere burua (denok ikusten dugun bezala). Bere lanbide-prestakuntza hobetzean interes handia jarri eta ordu asko emango balitu eta bere mikroespezialitatea ez diren zientzia eta pentsakeraren beste alor gehien-gehienetako dibulgazio ona irakurtzean dioptriaren bat galduko balu, *Euskal Zibilizazioa* liburuaren espiritutik eta —sekulako haserrea eragin omen zion— arrakasta editorialetik ere zer-edo-zer uler lezake, agian. Dibulgazio zientifikoari eskainitako atal hau ez nuke amaitu nahi, gure unibertsitatearen jardueran beti ezkutuan dabilen arren, sekulako garrantzia duen kontu bat aipatzeke: gizarte honetako gizaki eta gizatalde guztiei zor zaien, aitortu behar zaien “ezagutzeko eskubidea” da. Unibertsitatearekin ez ezik, dibulgazio zientifikoarekin ere hertsiki loturik agertu ohi da gai hori.

11. Unibertsitatea, jakintzaz jabetzeko egitura

Ekonomia kapitalistak aberastasunaren sorrera eta banaketarekin inolako loturarik ez daukan neurri berean (gizartea klaseka egituratzeko lanabesa da, jakina den bezala), unibertsitate kapitalista (eta koloniala) ez dago loturik jakintza sortu eta gizartean banatzearekin: alderantziz, gizarte horri jakintza autonomia izatea galarazteko egituratuta dago eta, horrenbestez, ezagutza kapitalaren aldera bideratzeko baizik ez dihardu, sistema horren esplotazioak segi dezan.

Testuinguru zabal horretan, unibertsitateko ikerkuntzaren (baita, askotan, irakaskuntzaren) izaera kriptiko, biziki espezializatu eta elitista ez da jardueraren alferrikako edo zentzugabeko ezaugarria, unibertsitatearen funtzionamenduak sortzen duen jakintza jabetzeko eta helburu elitistak iraurarazteko lanabesa baizik.

Atzo goizekoak ez garelako eta moda postmodernistetatik paso egiten dugulako ederki dakigu ezagutzak, azaleko hoztasun objektibo horren azpian, baduela

klase-eduki zehatz-zehatza. Hau da, gure unibertsitateetan lantzen den pentsakera eta zientzia gure Herriaren gehiengoarentzat desjabetzaile den sistema iraunarazteko bidean jarri direla. Superespezializazio analitikoak eta hizkera kriptikoak ere berriazko eginkizuna betetzen dute testuinguru horretan: kapitalak agindu dion moduz, jakintza beste norabide batean erabil lezaketen gizaki eta gizataldeak jakintzatik baztertuak atxikitzea (gure iritziz, *Euskal Zibilizazioa* liburua bestelako erabilera horren adibide xumea izan da, bai hemen, bai Madrilen sortarazi dituen eraz kanpoko erreakzioak ikusirik). Horrela bada, unibertsitaterako (pentsakera edo jakintzaz jabetzerako) sarrera gizarte-klaserik zigortuenei galarazten zaie baina, horrekin batera, unibertsitate-sistamaraino iritsi direnei ere, ikasleentzat beraientzat onuragarria izango litzatekeen jakintza ulergarri eta globalaz jabetzea galarazten zaie.

Horrexegatik ez da txiripazkoa botere akademikoko zaldunek, unibertsitatearen jardueraren azken helburuak iraunarazteko ahaleginetan (nagusiaren morroin babesle eraginkor gisa), egiazko jakintzatik (eduki askatzaileak dauzkanetik) gu uxatu, urrutiratu, besterik ez egitea. Alde batetik, beraiek ere ez dutelako ezagutzen jakintza hori (eta, horrenbestez, irakastea ere ezinezkoa dute); baita ere, den-denetan, unibertsitate-egituraren funtsezko helburua botere intelektualaz klase hegemonikoa bakarrik jabetzea delako, egituren funtzionamendua geure patrikatik ordaintzen dugun arren.

Oraintsu azaldutako adieran, dibulgazio zientifikoa arriskutsua da, bai termino teknikoetan, baita termino soziologikoetan ere. Ezagutzaren kontrolera (sintesira) iristeko atea zabaltzen digu, bitartekoez (kapitaleko zaldun zaindaries) askatzen gaitu eta gure lehentasunak klase menperatzaileen interesen arabera beste-lako hainbat helburutan —are zientifikoetan— jartzera bideratzen gaitu. Desmailaz eta injustiziaz josiriko gizarte honetan, sistematikoki ebasten zaigun “jakiteko eskubidera” hurreritzen gaitu eta, gainera, gure interes pertsonal eta kolektiboan arabera hausnarketa autonomoa egiteko eskubidea praktikan jartzera orientatzen gaitu kalitateko dibulgazioak; beste aldetik, interes zentralisten eta kasta kolonial menperakoi ustelen eskuetan dagoela, mamu bilakatu den gure Unibertsitate hori, pittin bat endekatzen laguntzen du.

Beraz, irakur dezagun jakintza-alor guztiei buruzko dibulgazio zientifiko ona (Lakarra jaunaren iritziak gorabehera), muga epistemologikorik jarri gabe. Gure garunek ez ezik, euskal intelektualak garen aldetik zerbitzatu behar dugun herriak ere eskertuko dute. Dibulgazio zientifikoaren izaera globalizatzaileak mende honek aurrean dituen arazoak sintetikoki ulertzen lagunduko gaitu; euskaldunoi, Herri garen neurrian, interesatzen zaizkigun galdera eta erantzunez (ez bakarrik, orain gertatzen den bezala, etsaiari interesatzen zaizkionez) hausnarketa egiteko unean ere, lagungarri izango dugu. Unibertsitateak —seguru— inondik ere emango ez dizuen prestakuntza totalizatzaile horixe izango da Herri honetako subjektu guztiak jakintza-alor guztietan esku hartzeko (bai eztabaidan aritzeko, bai erabakiak hartzeko) gai bihurtuko gaituena. Prestakuntza horrek egingo gaitu gure historiako aktore eragile, “gure” Unibertsitatearen egitura akademiko gehientsua osatzen duen bilbe nahasi, gris, aspertu eta intelektualtasunaren ikuspegitik alienatu (baina, hori bai, boterea eskuan daukana) horren aurka. *Euskal Zibilizazioa* liburua, adibidez, pertsonaia horiek gogaitu izana, berez, seinale ona da. Baina hausnarketa

autonomo eta eztabaida zientifikoko jarduera horrek masiboa izan behar du: jakintza sozializatzen den heinean, are zailago izango da egitura instituzional orok ondorioztatzen dituen presio-talde ustel koipe-emaileen eskuetan amiltzea.

Arestion frantziar intelektual batek nirekin kontu-kontari ari zela honela zioen: «Dibulgazio zientifikorik gabe eta jakintzaren sozializatorik gabe ezin izan daiteke partaidetzazko demokraziarik; era bertsuan, jakintza gutxiengo baten eskuetan dagoen bitartean, aurrean dugun egoera hori faxismo intelektualtzat kalifikatuko nuke nik». Begira zeharka UPV horretara eta, beta hartuta, atera kontuak.

12. Zientzia-jardueran diziplinartean aritzeko beharra

Buru osatu baten (ikuspegi intelektualetik ari gara), hau da, ikerkuntza akademiko edo zientzia-espezialitateak ezarritako muga estuetatik irteten saiatu eta asmatu duen zientzialariaren, gogoan jakintzaren nolabaiteko globalizazioa erdie-tsita, galderak egiten eta lehenago ukatuak zituen (ukatuak, bai, ezin hauteman zituelako, alienatua zegoelako, termino intelektualetan) ikerketak birplanteatzen hasten da.

Aldakuntzako (ez, ordea, aurrerakuntzako) zibilizazio superespezializatu honetan, intelektual gutxi iristen duten arazoen globalizazio eta ulertze sintetikoaren fase horretan, norik bere espezialitatean eginiko ikerketen gainetik alor berriak antzematen hasten dira; alor berriok, sarri, espezialistaren ikerkuntza zientifiko-analitikoak ezkutuan gordetzen dituen alderdi filosofiko, historiko edo sozialekin daude loturik. Fase horretan, ikerkuntza estandarraren baitan bere buruari atzeman dion jarduera alienatua berriro planteatzen hasiko da zientzialaria, eta sistema bene-benetan gogaitzeraino irits daitezkeen galderak egiteari ekingo dio. Gogoan dugunez, XX. mendearen hondarreko borroka antinuklearra horren adibide paradigmaticoa izan zen.

Mende horretako seigarren hamarkadako mugimendu antinuklearrak eta berari gune sozial zabal-zabaletan eman zitzaion abegi onak bultzaturik, hainbat ingeniari nuklear diseinu-fasean zehar multinazionalak langile horiei mugatua zieten analisi teknologikoaren esparruz kanpoko galderak egiten hasi eta, teknikari haiekin batera, herri-sektoreak ere hasi ziren proiektu nuklearren plangintzan ezkutatu zitzaizkien itaunak formulatzen. Ekologia eta osasun alorretatik, esate baterako, zentral horien segurtasuna zalantzan jartzen hasi zen. Ekonomiatik, berriz, sektore elektrikoek sustaturiko eredu nuklearren parekoak edo hobeak izango ziratekeen alternatibazko proiektu energetikoak aurkeztu ziren. Kontrol sozialeko sistemez hasi zen jendea eztabaidatzen eta, era berean, proiektu haien azpian zetzan gizarte militarizatu eta absurduraino kontsumista salatzen zen. Hondakinen arazoa (iraupen luze-luzea eta sekulako poluzioa) ere planteatu zen. Euskal Herrian, zehazkiago, gizarte nuklearra eta subirautzazko proiektua bata bestearekin ezin elkartzukoak ote ziren agerian hasi zen aldarrikatzen.

Europako estatuen plangintza energetikoak taxutzean ezkutuan gorde ziren elementu berri horiek (zientifikoak ez omen zirelakoan) guztiak hasi ziren sozializatzen, ingeniariak konpondu behar zuten arazo tekniko-analitikoa, anekdota bailitzan, zoko batean bazterturik geratzeraino. Txori-kaka bihurtu zen hura, herri-sek-

toreak etengabe planteatzen ari ziren galdera eta interes berrien azpian. Arazo nuklearra diziplinarteko kontu gisa agertu zen orduan, estreinakoz (izan ere, betidanik izan zen horrela, baina botereari ez zitzaion interesatu halakotzat planteatzea, bere interesak eta herri- zein gizarte-sektoreenak zeharo bestelakoak zirelako). Diziplinartekotasun hartan arazo sozialak, ekonomikoak, geostrategikoak, politikoak, kulturalak, ekologikoak eta militarrek, besteak beste, tekniko huts zirenekin (azken horiek, analisiaren beste elementu arrunt bat bailiran) nahasi ziren. Horrelako egoera egokitu zen, noski, koiuntura hartan herri- eta ezker-mugimenduen indarrak kapital multinazionalari atzera eginarazi ziolako: kapitalak, ohiko bide beretik, kontu nuklearraren alderdi teknikoa bakarrik aurkeztu zuen, bestelako eztabaidarik sor ez zedin eta, horrela, bere planteamendu analitikoaren (“zientifikoak”, beraien esanetan) atzetik zegoen sekulako negoziua agerian ez geratzeko.

Horrela bada, Euskal Herriaren iraganaldiaren kontuan eta gure Herriaren bereizgarrien bilaketari dagokion gaian (arazo hauek, geure burua euskalduntzat eduki eta gure Herriak etorkizun bereizia izatea nahi dugunontzat, funtsezkoak dira, zientifikoki interesgarriak, beraz), goian aipatu dugun problematika eta borroka antinuklearraren kasuaren aldean, berdintasun asko bilatuko ditugu. Euskal ikerlanen kasuan —arazo nuklear konplexuan bezala— diziplinartekotasunari esker, botere akademiko kolonialak, interes ideologiko espainol eta frantsesen kudeatzaileraginkorra denez, —borroka antinuklearrak zirauen bitartean jazo zen antzera— sekula egingo ez dituen galdera politikoki desegokiak egiteko bide eman liezaguke. Horrez gainera, eta beste ikuspegi batetik, diziplinartekotasun hori erabat premiazkoa dugu, denboran euskal prozesu kultural eta sozialak hartu duen izaria (Goi Paleolitoan —gutxienez— hasi eta gure egunetaraino iritsi dena) halakoa izaki, eta eskuan dauzkagun datu analitikoaren zatiketa sekulakoa denez, jorratu behar dugun espazio epistemologikoaren azalera eskerga kontuan dugula.

Borroka antinuklearraren kasuan edota euskal nortasunaren azterketan bezala, garrantzia ez du bakarrik arazoak diziplinartekotasunez aztertzeak; funtsezkoa da, nola ez, herri-sektorerik kontzientziatuen eta prestatuenak hausnarketa eta eztabaida zientifikoaren (baita hizkuntzalaritzaz beraz ere, Lakarra jaunari heresia irudi dakiokkeen arren) hondarretan trebatzea.

Borroka antinuklearrean herri-sektoreak (herri-interesen alde ziharduten intelektualak, hau da, herri-intelektualak, aitzindari) beren kemen eta indarrez esku hartu ez balute, kapitalaren teknikariek ez zuketen inola ere dudatan jarriko kapitalaren ikerkuntzaren norabide-bakarrekotasuna eta arazo tekniko hutsak konpontzen jardungo zuketen. Baina, multinazionalen diskurtso bakarra beste diskurtso alternatibo batekin puskatu izanari esker, koarentenan jarri zituzten balizko diskurtso zientifiko guztiak, baita berena ere.

Era berean, Euskal Herriari gagozkiola, boterearen intelektualek egunez egun harrapatu duten lursail eskerga herri-intelektualak aitzindari, boterearen jakintza-eremua estaltzeko gauza diren heinean, orduan, unibertsitaterako intelektual batzuk sistemak behikulizatzen dituen galderez bestelakoak egiten hasteko gai izango dira, eta hein horretan sortu ahal izango da euskal hausnarketa autonomia, aurrean dugun klase- eta nazio-etsaiak bideratutakoak bestelakoa.

Hori gerta dadin, behar-beharrezkoa da subirautzaren aldeko euskal indarrek kultur gaietara buruz (batez ere, herri-nortasuna den gai delikatu baina ezin geroratzuzkoak) sakoneko hausnarketa egitea. Gaur-gaurkoz tamalez ez dagoen alternatiba kulturala eman beharra dago herri-interesaren arabera, ezinbestez. Herri-estrategia kultural hori gabe ezinezkoa izango dugu gure Unibertsitatea kontrolatzen duten kasta intelektualek interes eta gogoeta guztiak (edo batzuk, gutxienez) toki egokietan berriro kokatzea. Borroka antinuklearraren kasuan bezala, gure Herriak aztertu nahi dituen arazoei buruzko diziplinarteko hausnarketaren premia dugu; baina bertako intelektualek autonomiaz mobilizatzen eta hausnarketa (eta horrek denak agintzen duen apustu politikoa) egiten ez badute, UPV izeneko unibertsitate kolonial honek zintzotasunez kolaboratzen duen jakintzaren ebasketa eta menpekotasun intelektuala nozitzen segituko dugu, beste erremediorik gabe.

Botere zentral espainol eta frantsesaren edukizaille subsidiario den botere akademikotik egiten (ez) zaizkionez bestelako galderak, gure Herriari buruzkoak, egiteko garai hoberena ez da hau, jakitun naiz. Nolanahi ere, *Euskal Zibilizazioa* liburuan sumatzen diren galdera politikoki desegokiek, hainbat diziplinaren (arkeologia, paleohizkuntzalaritza eta populazioen genetika) konbinazioak eta hainbat metodologia desberdinek bermaturik, badirudi suspergarri ditugun lan- eta ulertze-ildoak adierazi dizkigutela: horrexegatik izan dute horren harrera beroa gure Herriaren maila eta estratu askotan, gazte-jendearen baitan bereziki. Izan ere, gazteria izango da bere proiektuaren bitartez Herri hau aurrera atera beharko duena, baita kultura alorrean ere. Eta Herri honen interesaren arabera botere akademikoa baliatu arte oraindik tarte handia falta zaigun arren, badirudi gogaitzen hasiak garela: hori ez da emaitza txarra eta, areago, aukeratu dugun bidearen egokitasuna berretsi egiten du.

13. *Euskal Zibilizazioa* eta diziplinartekotasun zientifikoa

Gasteizko Hizkuntzalaritza Fakultateko bere pulpitutik *ex cathedra* mintzo zaigunean Lakarra jaunak nolako gabezia eta hutsuneak dituen ulertu ahal izateko, zientziaren oinarriaren subjektibotasunaz eta helburuaz eskurto luze-luzea egin behar izan dugu; “hipotesia” hitzaren kontzeptu epistemologikoaz eta ikerkuntzan agertu behar duen erabilera ortodoxoaz; gure Unibertsitatearen hausnarketa “objektiboaren” baldintzaz eta bere izaera (espainol-frantsesa) inperialistaz eta klasistaz; bertako ikerkuntzen eta irakaskuntzaren zientifikotasunaz eta, era berean, beren “emaitzak” jakinaraztean, unibertsitateko zaldunek nabarmentzen duten ulerkortasunaz, horiei guztiei buruz ere hitz egin dugu. Ikerkuntza askatzaileak eduki behar dituen maila analitiko eta sintetikoaren artean gauzatu behar den harreman hertsiaz aritu gara; sistemak gizaki guztiok ezinbestez garamatzen alienazio intelektual generalizatua gainditzeko elementu den neurrian, kalitate oneko dibulgazio zientifikoa dugun premia gorria ere aztertu dugu; jakintzaz jabetu edo jakintza —patrikatik zergak ordainduz, unibertsitatea finantzatzen dutenei— ebaste-erakundeaz ere gogoeta egin dugu; eta, azkenean, zientzien diziplinartekotasunaren oinarritzko kontzeptura iritsi gara: horrexek argituko dizkigu jarraian *Euskal Zibilizazioa* liburuaren oinarria eta Lakarra jaunaren lan kritikoaren funtsa.

Euskal Zibilizazioa idazlana nolabait definitu beharko banu, Euskal Herriaren derrigorrez galdutako (“derrigorrez ahantzitako” esatea zuzenagoa litzateke) be-reizgarriei buruzko diziplinarteko dibulgazio-lana dela esango nuke. Atzerrian egiten diren ikerkuntza analitikoek baliaturik, populazioen genetika, euskararen paleohizkuntzalaritza eta gure Herriaren arkeologia eta paleoantropologia abiagune, euskarri eta baliabide harturik, Euskal Herriaren aurrehistoriari buruzko sintesi global bat eratu eta *Euskal Zibilizazioa* bataiatu dut. Horren bitartez, zibilizazio hartatik oraino bizirik dirauten praktika ugari argiztatu eta, bide batez, zibilizazio-hipotesi haren helburuen arabera, ene iritziz, nolako lan-ildoak taxutu beharko genituzkeen erakutsi nahi izan dut.

Diziplinarteko ikerkuntza, gaur egun, zientzia-alor guztietan erabat generalizatua dagoen lan-metodoa dugu. Ikerkuntzak eskura dituen lanabes geroz eta sofistikatuago horiek molde zaharreko zientzialariak (beren diskurtsoa alor isolatu bakar batetik egituratzen dutenak, gainerako alorretan zer gertatzen den kontuan izan gabe) bazterrean utzi dituzte, zaharkiturik. Belaunaldi berriko ikerlariak (erbeste-an, gutxienez) hainbat diziplinari buruz jantzirik, prestaturik, trebaturik datoz, eta gustukoenean espezializaturik; hizkuntzalaritza, zientifikoki jorratzen den heinean, ezin daiteke mundu zabaleko bilakaera-ildo edo korrante nagusi horietatik at ibili.

Hala eta guztiz —haizatzen dituen harropuzkeria akademiko-ikertzaileak gorabehera— egungo joera horiek, espezialitatetzat daukanak barne, ez omen dute ukitu edo kutsatu. Horrela bada, egundoko ausarkeriaz esan digu ez genetikaz ezta arkeologiaz ere ezer ez dakiela⁵, baina horregatik ez da batere lotsatu eta lasai asko sartu ditu bere bibliografian Arnaiz edo Cavalli-Sforza genetistak eta Gimbutas edo Renfrew arkeologoak. Baina, euskal hizkuntza-

5. Lakarra jaunak gogorarazten digu, ez genetikaz ez arkeologiaz ez dakiela ezer baina bat egiten duela Jurgi Kintanak *Egunkarian* idatzitako artikuluko batekin (“Euskal arkadia aurreindoeuroparrak direla eta”, *Egunkaria* (1998-XI-17)) non arkeologiatik bertatik *Euskal Zibilizazioa*-ren hipotesi bidezuei kritika egiten dien (nola da posible Lakarra jaunak kritika horrekin bat egitea arkeologiaz ezer ez badaki?).

Kintanak kritika horretan ikusten dituen arkadiak bere gogamenean bakarrik bide dabilta, ez nirean. Gainera, esan beharko nioke nire liburua ez dela Oteizaren kriterio estetikoaren gain eraikitzen (berak dioen moduan); aitzitik, Oteizaren metodologia zientifikoaren ezari buruz egiten dut kritika bereziki *Euskal Zibilizazioa*-ren liburuan (Oteizak izan dituen intuizioak baliagarriak iruditzen bazaizkit ere). Eta Gimbutas eta Renfrewen arteko inbasio indoeuroparrak zein bidetatik gertatu ziren eztabaidei buruz (adostasun ezari buruz) ez zaizkit gehiegi inporta, zeren *Euskal Zibilizazioa* liburuan agertzen diren tesien oinarria da inbasio horiek izan zirela, besterik gabe. Eta hori, dakigunez, guztiek onartzen dute. Beste aldetik, Kintanari onartuko diot Siberia eta gune eusko-akitaniarren artean dagoen konexio-gune batzuetan arte eramangarria sortu zela aspaldidanik, eta horrek humanizazioaren prozesua (artearen asmakuntzarekin) toki horietan jadanik ere gertatu zela (Danubiaren gunean eta Errusian, Europako partean) esan nahi duela, eta ez bakarrik gune eusko-akitaniarrean. “Autobide” horretan zehar konexio kultural asko gertatu omen ziren, emakumezko irudien azterketek diotenaren arabera. Eta ikerketa horien arabera, bi mugimendu migratorio handi antzeman daitezke. Alde batetik Gravet aldiaren gertatutakoa, ekialdetik mendealdera burutu omen zena. Eta bestetik, Magdalen aldiaren, mendealderetik (gure lurraldeetatik) ekialderantz gertatu omen zena. Bi mugimendu haiek korrelazionaturik egon litezke orain dela gutxi populazioen genetikaz egindako ikerketekin. Horietan, Eu18 eta Eu19 aplotipoen bidez, posible izan da berreraikitzea Paleolitoko Europan gertatu omen ziren bi migrazio-mugimendu handi. Bata euskal-akitaniar genetik ekialderantz (hipotesi hau da *Euskal Zibilizazioa*-n iradoki genuena) zuzendu zena eta bestea, Ukrainiako eskualdetik euskal-akitaniar eskualdera etorritakoa. Dena den, eremu honetan, Kintanak eginiko kritika onartzen dut eta, dudarik gabe, hori da eremu bat non lanak garatu beharko diren hurrengo urteetan.

laritzaz, ordea, badaki eta bertatik saiatuko da *Euskal Zibilizazioa* liburuko tesiak azientifikoak direla frogatzen.

Ez dirudi Lakarra jauna konturatu denik, baina aurreko ezjakintasunaren printzipio-aldarrikapen soil hori eginik, funtsez diziplinarteko lana den *Euskal Zibilizazioa* liburuari egin nahi dion kritika ia erabat baliogabeturik geratu da. Gure liburuan dautzan argumentuek bata besteari eragiten diote, *feed back*-ez dihardute eta, bertan, hizkuntzalaritzatik eginiko kritika aldebakarrak ez luke eragina izango hipotesiaren eraikin oso-osoan. Hizkuntzalaritzazko kritika sektorial hori egiazkoa eta zuzena balitz ere (berehala ikusiko dugunez, ez da horrelakorik, neurri handi batean), arazo erantsia edukiko luke; alegia, populazioen genetikak, paleoantropologiak eta arkeologiak agertzen dituzten Lakarra jaunaren kritika linguistiko-analitikoak ez bezalako emaitzak azaltzea, hain zuzen. Noski, gabezia horiez konsziente izan eta osotasunezko kritika batean jorratzen ahalegintzeko, Lakarra jaunak “ikerkuntza-programa aurrerakoia”⁶ (hurrengo atalean jorratuko dugu) kontzeptua zer den ezagutu beharko luke; ikerkuntza-ildo jakin bat bide onetik noiz doan eta okerreko bidetik noiz doan hauteman ahal izateko ikerkuntza zientifikoaren

Kintanank kritika egiten zuen *Euskal Zibilizazioa* liburuan agertzen zen euskal-akitaniar guneko labarretako artearen eta Levanteko artearen artean izan zitekeen konexioaz ere (gure lurraldetik mediterranioko Levanteko kostaldeetarantz zuzendu omen zen migrazio postpaleolitikoaz). Kintanaren iritziak, Levanteko margo zaharrenak K.a. 5.000. urtekoak omen dira, eta horrek konexioaren ideia bertan behera uzten du. Hori iritzi bat da, baina badaude beste aukera batzuk ere. Bertran eta Ripolleko azterketek K.a. 6.000. urtera arte eramaten dituzte pintura zaharrenak. Eta Damseko lanek K.a. 8.500. urtera arte. Ikerketa horiek konfirmatzen badira «Levanteko artistak izango lirateke euskal-akitaniar guneko Magdalen aldiko artisten oinordekoak», Ramirezek dioen moduan (eta *Euskal Zibilizazioa*-n defenditzen zen bezala). Egia da gai hori argitu gabe dagoela oraindik. Dena den, hipotesi leuna (Levanteko artearen gurearekiko harremana defenditzen duena) eta hipotesi gogorra (eusko-akitaniar munduak Levanteko lurraldeetara migratu zuela defenditzen duena) hor daude, eta ikusiko dugu denboraren poderioz nola joango diren aldatzen.

Bestalde, *Euskal Zibilizazioa*-n garatutako pentsamendua arazo nazionala irtenbide gabeen aurkitzeagatik sortutako mitologia dela (Kintanaren iritzia) errespetatzen badut ere, ez dut batere konpartitzen. Era berean, berak *Ostia* aldizkarian (14. eta 15. zenbakietan) “Euskal imaginario indigenaren asmakuntza” artikuluan agertzen dituen iritziak hori baino ez dira. Guztiz subjektiboa den artikulua horren oinarritzko ideia *Euskal Zibilizazioa* liburua zientifikoa ez dela behin eta berriz aipatzea da. Nire iritziak, Kintanaren formazio epistemologikoaren faltaren eta, batez ere, metodologia zientifikoko hipotesiek eta disziplinartekotasunak zientzian zer jokabide betetzen duten ez ulertzearen (Lakarraren kasuan bezala) ondorio da iritzi hori. Kintanaren idazki horrek, Lakarra jaunari gustatu zaionak, ez du datu berri bat ere aportatzen eztabaidara. Nik, behintzat, ez dut aurkitu.

Azkenik, eta oso propioa duen estiloari jarraiki, Lakarra jaunak *Euskal Zibilizazioa*-ri eginiko kritika arkeologikoa Kintanaren esku utzi nahi du (Kintanaren iritzi dokumentatua baino ez dagoelakoan) eta populazioen genetikari buruz ez dakiela oso ondo nori enkargatu, baina berehalaxe irtenbidea aurkitzen du. Lakarraren iritziak *Euskal Zibilizazioa* linguistikatik eraitsia izan bada (Lakarraren kritikaren bitartez), eta arkeologiatik berdin gertatu bada (Kintanaren artikuluen ondorioz), orduan seguraski genetikatik bertatik erraz kritikagarria izango da. Eta lasai asko gelditzen da gure irakaslea.

6. Zientzia mailan metodologiaren “programa aurrerakoiak” eta “programa atzerakoiak” zer diren ulertzeko Lakatosen ondoko irakurketak ezinbestekoak dira:

- (1975): *La crítica y el desarrollo del conocimiento*. Bartzelona, Editorial Grijalbo. (1982): *Historia de la ciencia y sus reconstrucciones racionales*. Madril, Tecnos. (1983): *La metodología de los programas de investigación científica*. Madril, Alianza Editorial.

Eta zientziaren metodologiaren arazoei buruz liburu erraz eta oinarritzkoen bila ari bagara, ondoko biak oso zuzenak ditugu:

- Chalmers, A.F. (1984): *¿Qué es esa cosa llamada ciencia?*, Siglo XXI, Madril.
- Chalmers, A.F. (1992): *La ciencia y cómo se elabora*, Siglo XXI, Madril.

metodologia moderno guztietan generalizaturik agertzen den paradigma ezagutzea, alegia. Bistan denez, Lakarra jaunak horretaz guztiaz ez daki ezer.

Argi dago Lakarra jaunak ez duela egin ezjakintasun-deklarazio arriskutsu hori zuzentasun- eta umiltasun-egintza gisa. Lakarra jaunak badaki (unibertsitatearen barnetik, bederen) inor ez dela ausartuko berak esandakoaren aurkako kritikarik egitera, berak rankinean duen postua halakoxea da eta. Gainera, intelektualgo konpartimentalizatu honetan (halaxe da gure unibertsitatekoa) hizkuntzalaritzan dihardutenek bakarrik egin liezaiokete kritika, ofiziokoek, alegia, berak baino presakuntza hobea duten bere fakultateko irakasle eta ikerlariek. Baina horrelakorik gertatzea ezinezkoa da gure unibertsitatean.

Lakarra jaunak, badaki Unibertsitateko beste inork ez diola kritikarik egingo, karrera akademiko-ikerlariei berez datzekien interesek —beren ondoriozko balore, jarduera eta guzti— Unibertsitate honetako substratu guztiak iragazten dituztela eta sistemako inor ez legokeela bere kideetako bat (hau da, unibertsitate dekadente honetako baloreak —jendea hitzik gabe uzteko moduko bibliografiak mozorroturiko Lakarraren kritika akademiko-objektibo izan nahiko lukeen horren bidez erdi-ezkutatu nahi dituen balore horiek— defenditzeko prest legokeen kide esanekoa, zintzoa) kritikatzearen alde. Baina *Euskal Zibilizazioa* liburuaren egilearen kasuan, kukuak makur jo dio: karrera akademikoaren baldintzapen inplizituek eta hauei dagozkien sari eta zergek, gure kasuan, aspaldi honetan ez dute inongo eraginik gure pentsakeraren sorrera eta bilakaeran. Aspalditik, diogun bezala, eta lehen hona ekarri dugun Umberto Ecoaren aforismoari berriro helduta, «unibertsitatearen jardueran eraginik izan ezin nezakeen arren, haren behatzaile argi» izatea erabaki nuen aspaldian.

Horrela bada, Lakarra jaunari ostera gogoratu beharko diot nik daukadan oinarrizko prestakuntza zientifikoak gaitasun zabal-zabala aitortzen didala, gure hizkun-tzalaritzako irakasleari hori ere ezinezko iruditzen bazaio ere (ezinezkotasun hori pertsonaiaren analfabetotasun intelektualak indutua da), gauza batzuk orokorki —baina nolabaiteko mailan— ulertzeko gai naizela esan dezadan: bai populazio-genetikari aplikaturiko deriba genetikoari buruzko ikerketak eta horiek korrelato kulturaletan duten aplikazioa, baita, era berean, aurkikuntza arkeologiko eta paleontologikoen (gehien-gehienak karbono-14 bidezko datazioetan baina, baita estratigrafian, palinologian eta arkeologia konparatuetan oinarritutakoak ere) garrantzia ulertzeko ere; era berean, euskararen fonetika, toponimia, joskera, lexikografia eta semantika konparatuetan oinarritutako hizkuntzalaritza konparatuaren izaria, gutxien-gutxienez, ulertzeko gauza naiz. Are eta garrantzitsuagoa, horietan oin harturik eta informaziorik berriena eskuan (horren parterik handiena atzerrian sortu eta landua, berriro gogoratzen diot), lan-eta ikerkuntza-hipotesizat hausnarketa-alor berriak ere egituratzeko gauza naiz. Hipotesi horien aurka, ikusten dudanez, *Euskal Zibilizazioa*-ren etsaiek (bernakulu zein kanpotar) jariatutako ozpin eta behazunak gorabehera, inor ez da gai izan orain arte horren kontra alternatibarik jartzeko, ez nire datuekin, ez nire daturik gabe.

Horrenbestez, unibertsitate-sektore horiek hipotesi alternatiboak eratzeko ezintasun edo gaitasun-gabezia nabarmena gogoan izaki, hasierako megaloma-

niatik eta alde batera begiratze haietatik beste fase batera iragan dira: nekez disimulaturiko kritika subjektiboak eta gutxiespenak egitera, alegia. Panorama horretako gailurrera iritsi da Lakarra jauna bere saiakera sofistikutuari (*Ná-de-Ná*) esker: hizkuntzalaritzatik kritika objektibo eta erabat zanpatzailea jaurtitzea. Ikusi dugun bezala, kritika hori ezin izan du egituratu diziplinartekotasunez eta, oraintxe ikusiko dugun moduan, ez eta bere espezialitatearen alorretik ere. Ez hanka ez buru ez zuen kritika horrek, hitz batez, ezin izan du Euskal Herriaren sektore zabal-zabaletan *Euskal Zibilizazioa*-ren, unibertsitateko ikasleriaren eta unibertsitateko irakasle-multzo eta kultur alorreko langile-talde bikain baten planteamenduek izan duen arrakasta bizia itzaldtu. Arrakasta horrek mina eragin die hainbat ataletan, eta etxean ustel-kiratsa ezkututzen segitzea eragotzi die (duela hogeita hamar urte erabat gelditu den ikerketa, euskal nortasunaren ikerkuntzarena, orain arte aztertu ditugun arrazoi nabariengatik, unibertsitate-instantzietatik inortxok bultzatu nahi ez duena).

Ez dakite (ez dute jakin nahi) euskal munduaren azterketa geroz eta lehentasun biziagoko erakargune bilakatzen ari dela Euskal Herriko mugetatik kanpo edota, bestela, atzerriko intelektual itzaltsuak egiten ari diren ikerlanen aurrean ezikusienak egiten dituzte, mesprezuz. Nolako upela halako sagarra, egiari zor: maila bateko dibulgazio zientifikoa erdeinaturik, ikuspegi zientifiko diziplinartekoan analfabeto bihurtzen dira eta, azkenean, *Euskal Zibilizazioa*-k utzi dien ajearen ondoren eta aurreko urtean nozituriko izu eta noraeza pasata, ez da harritzekoa erasora pasatzea nahiago izana.

Berriro ere gogoratu beharko dugu, jakintzaren globalizazioak mende honetan, halabeharrez, diziplinarteko ikerkuntza zientifikoaren bidetik garamatza. Era horretan lanean jarduteko gauza ez denak bere burua nabarmen uzten du, ikerlari eta zientifiko gisa, behar bezala prestaturik ez dagoelako. Beste aldetik, diziplinartekotasunari buruzko planteamenduen aurrean Lakarra jaunak azaldu duen mesprezua arazo larrien iturri izango du *Euskal Zibilizazioa* liburuko tesiak berak ulertzeko unean: horri buruz, berak esaten du ezin duela iritzirik eman, ez baitaki (eta, horrenbestez, hein handi batean, ulertu ere, ez du ulertzen). Zakuto handiegiak (70. orrialdeko kritika!), ibilbide horretarako.

Enekiko, Lakarra jaunak *Euskal Zibilizazioa* liburuari eginiko kritikari nire hausnarketa-erantzuna hementxe bertan amaitutzat eman nezake. Ez dut anker jokatu nahi, ordea, egoera batzuek eztabaidaren amaierara KO teknikoz iristarazten gaituztela egia bada ere, eta buru egingo diot gaurkoan. Lakarra jauna espezialista omen den sail horretan sartuko naiz orain (horrek dituen arriskuak ezagututa, noski: itxuraz beste aldean daude otso beltz gosetiak, beraiek ederki ezagutzen dituzten lakioetako batean arkume inozoa harrapatzeko zain). Bertan, jakinduria aipamen-kopuruaren (bibliografia barne) proportziozkoa balitz, Lakarra jaunak den-dena jakingo luke. Ez horrelakorik.

14. Metodo zientifikoa (Lakarra jaunaren kritika linguistikoaz eta dene-kaukasoar super-familiarekin duen obsesioaz)

Lakarra jaunaren kritikari gure erantzun-idazkian garatuko genuen azterketaren lau mailak adierazi ditugu 9. atalean. Aurreneko biak (1: Unibertsitate-mailako prestakuntza eta dibulgazio zientifikoa, eta 2: Analisi zientifikoa diziplinartekotasunez egin beharra) jorratu ditugularik, metodo zientifikoari eta zientziaren funtzio-namenduari dagokiena aztertuko dugu orain.

Horretarako, Lakarra jaunak bere espezialitatetik (hizkuntzalaritza historikoa) *Euskal Zibilizazioa* liburuari eta bertan garatutako aztergaiei eginiko kritikan bete-betean sartzea da hoberena. Begien bistakoa da, kritikan gure irakasleak eman dituen orduak eta erakutsi duen kemen eta adorea testigu, dene-kaukasoar superfamilia (aspaldi-aspaldikoa: bertan, Amerikako indiarren na-dené, txino-tibetar, Pakistango ipar-iparraldean mintzatzen den burushaski, Siberia erdialdeko eskualde txiki batean hitz egiten den yeniseiar eta kaukasoar hizkuntzekin batera, genetikoki loturik, gure euskara zaharra ere aurkituko genuke) izanaren balizko errealitateak bereziki obsesionatu duela, ene liburuari eginiko kritika “Ná-De-Ná” umore apartaz bataiatzeko ahaleginean neurona gehienak zakarrontzira botatzeko uzteraino.

Testuinguruari begirik ez kentzeko, bi ohartarazpen egingo ditugu, aurren-aurrenik. Lehena: gure liburuari eginiko kritika linguistiko orokorra ziur eta zuzena balitz ere, horrek ez lituzke utziko baliogabeturik diziplina horrekin loturiko beste bi azter-alorrak (populazioen genetika eta arkeologia-paleoantropologia, alegia). Horrenbestez, Lakarra jaunak —arestion esaten zuen bezala— azaldu beharko liguke zergatik ikerketa horiek hartzen bide duten bestelako norabidea, hizkuntzalaritza horretan bat etorriko ez balitz. Berehala ikusiko dugu *Euskal Zibilizazioa* hipotesiari hizkuntzalaritza historikotik eginiko kritika ez dela dirudien bezainbestekoa eta, testuinguru horretan, Lakarra jaunak dene-kaukasoar gaiak eginiko planteamendua eta kritika, batera, ez liratekeela liburuaren hipotesi linguistiko orokorraren (kontuan izan hori ez dela *Euskal Zibilizazioa* liburuaren sintesi globalaren zati bat besterik) atal linguistiko zehatz baten kritika soila baizik. Lakarra jaunaren diziplina mugatu horretatik ezin daiteke osotasunezko kritikarik egin (bere espezialitateaz asko baldin badaki ere eta, areago, bere kritika bilduko duen alor estu-estu horretan nik zeharo oker jokatu banu ere), baina autorea ez da horretaz konziente. Horiek horrela, berariazko kasu horren berariazko atal batez Lakarra jaunak eginiko kritikan murgilduko gara.

Barneratzen hasi eta berehala ikusiko dugu Lakarra jaunak egiaren giltza berak bakarrik daukala frogatzeko sarrarazi gaituen eztabaida-gune txiki horretan ere (bere-berea duen alorrean, alegia), berak defendatzen dituen tesiak eztabaidan jarri edo bahetik iragazteko modukoak direla, gutxienez.

Historiaurreko hizkuntzen jatorburuei, bilakaerari eta haien arteko lotura genetikoiei dagokienez, lehiari dabilizan sektoreak biltzen dituzten bi planteamendu daude une hauetan. Alde batetik “omnikomparatistak” ditugu: erreferentzi bektore

iraunkor zenbait definiturik, (antzina-antzinakoak badira ere) hizkuntza-multzo zabalaren arteko ahaidetasun urrunak aurkitu nahi dituzte, aurrehistoriako hizkuntza-egoerak orokortasunez (eta ez xehetasunez) jasoz, ahal izanez gero. Beste aldeetik, "konparatista" (adiera hertsian) bataiatuko ditugunak daude: banan-banan, hizkuntzen arteko loturak xehetasunez ikertzen dituzte, azterketa horiek sakon izan daitezzen ahaleginduz eta lehenaldi urruneko hizkuntzen arteko ahaidetasun-eskualde zabalak taxutzeko arriskuari saihests eginik.

Bi multzo horiek (bakoitzak bere metodologia baliatzen duelarik) badituzte aldeko eta kontrako alderdiak. Alde batetik, omnikonparatistak ahalegintzen dira basoa (hizkuntza-familiak) aztertzen, zuhaitzen (hizkuntzak berak) xehetasunez erreparatu gabe. Konparatistek, beren aldetik, arbolak (hizkuntzak, banan-banan) xehekapen handiagoz aztertu eta deskribatzen dituzte, eta ez dira gauza oihana-
ren (familiak, superfamiliak) ekosistema hautemateko.

Konparatista batzuek omnikonparatistei metodorik ez izatea, hizkuntzen barne-arauak kontuan ez hartzea eta, gerora, zeharo zorrotzak izango ez diren konparazioak euskarri gisa baliatzea leporatzen diete. Gogora dezagun, nolana ere, omnikonparatismoaren helburua lautada bat prestatzea baizik ez dela: bertan autobideak egingo dira eta, geroago, konparatistak horietatik ibili ahal izango dira, fenomenoak xehekapenez aztertu eta koadro orokorra taxutu, aldatu, osatu edo, bidezkoa bada, zeharo ezabatzeke, hizkuntzen ikerkuntzarako baliagarri ez izatearren.

Ikerlarien komunitateari zor zaion ospe edo itzala aitortzeko borroka edo lehian (bere kapera, etsaigo eta guzti) etengabe aritzea egozten zaie bi pentsakera-korronte horiei: horrek ez gintuzke harritu behar, are gutxiago ikerkuntza zientifikoa nola dabilen ezagun dugunean. Esan dezakeguna, ordea, omnikonparatisten metodoek eta lanek, kontrakoak —Lakarra jauna horietako bat— gorabehera, nazioarteko hizkuntza-ikerkuntza munduan biziki agerpen handia dutela: indeuopar familiaren zuhaitz genetikoa metodologia omnikonparatistaren ekarpena da, eta ez alferrik, baina, halaz ere, omnikonparatistak sintesi horretara iritsi ahal izateko konparatistek egina zuten lan analitikoak hagitik garrantzizkoa izan zenik inork ez du ukatuko. Era berean, hizkuntzen arteko antzinako loturak bilatzeko (aurkitzeko) unean, omnikonparatistak beste alor batean ere ari omen dira oso ikuspegi erakar-garri eta integratzailea aportatzen, hots, Mundu Berri izenekoan dauden hizkuntza-superfamilien ikerketan, haiek egindako ikerketak ederki bulgarizatzen, gainera (Greenberg eta Ruhlen 1996).

Sarrera txiki hau egiteari bidezkoa ez ezik, nahitaezkoa deritzot, *Euskal Zibilizazioa* liburuaren hipotesiei (zehazkiago, dene-kaukasiar familiako balizko kideztat euskara hartzeari) hizkuntzalarizatetik eginiko kritikan Lakarra jaunak harturiko jarrera kontestualizatzeke.

L. Trask hizkuntzalari konparatistaren lanean funtsez oinarri harturik (Trask 1995), adiera horretan euskara bakaturik uztearen alde agertzen da Lakarra jauna: ikuspegi genetikotik, gure hizkuntzak ez du ahaiderik egun egiten den mundu zabaleko hizkuntzen banaketan. Hau da, bikain bakandurik dago euskara. *Euskal Zibilizazioa* liburuari (omnikonparatisten tesi dene-kaukasoarrak garatzeko material

gisa baliatzen du liburu hori, aitor dezagun) kontra egiteko erabili duen armadako almirante-ontzi bihurturiko planteamendu horren aurrean hainbat zuzenketa egin behar ditut.

Lehendabizi, espezialistek esku hartzen duten (eta, batzuetan, intelektual hutsak ez diren) borroketan murgildurik ez gauden arren, zientziaren metodologia eta historiaz zerbait dakigunok betaurreko lodiegirik gabe atzeman dezakegu isolazionistek darabiltzaten metodo konparatistak eta dene-kaukasiar familiaren aldekoek baliatzen dituzten metodo omnikonparatistak elkarren osagarriak direla, bete-betean. Hau da, lehenbizi, omnikonparatistek lurra prestatzen dute, geroago konparatistek jorra dezaten; hauek, bistan da, ezin lezakete balio handiko ikerlanik egin omnikonparatistek ezarritako paradigma oinarri gisa izan gabe. Jakintza eta ikerkuntza zientifikoaren alor guztietan datzan logika dialektiko hau ulergaitz samarra gertatzen zaie batzuetan lanbide horretako behargin askotxori, hauek uste baitute eztabaida zientifikoaren xede bakarra gauzen egiazkotasuna edo gezurrezkotasuna aurkitzea baizik ez dela. Inozoa den arren, dezente zabaldurik dagoen “zientifismo” horrek gaur egun badu aipu handirik mundu guztiko (gutxieneko maila duten) pentsalari eta ikerlari zientifikoaren artean.

Orain dela ez asko fisikari itzaltsu bati jarduera zientifikoaz eta egiaren bilaketaz galdegin zioten. Zientzialariak hurrengo metaforaz ihardetsi zuen (esentziaz)⁷:

Zeruertzarentz (egiarantz), bertara iritsi nahirik, doan ontziaren antzekoa da zientzia: sekula ez da haraino helduko, egiazkotasun batzuk atzemandakoan beste arazo, galdera eta kezka zenbait agertuko zaizkio, eta horiek zeruertza guregandik eta ontzitik urrunduko dute ostera. Adiera horretan, behin ere eskuratu ez den egia lortzeko ekinbide etsigarria omen da jarduera zientifiko. Dena den, ezin iritsizko helmuga horretara ailegatzeko ahaleginak egin ahala, bidea urratzen ari gara: horixe da benetan garrantzitsua. Zientzia ez da egia hutsa aurkitzea (dena dago beti ezbaian eta ona da, gainera, hori horrela izatea), bidea urratzea, jorratzea baizik. Beraz, helezinak direlako, egia absolutuen aurkikuntza baino areago, etengabeko mugimendua, bilakaera eta garapena dira zientziaren ezaugarri behinenak.

Testuinguru horretantxe balioztatu beharko genituzke konparatisten eta omnikonparatisten ikerkuntzak. Ez batzuek, ez besteek ez dute egia (hau, esan berri dugunez, atzemanezina da eta, euskararen kasuan, zeharo bakarturik dagoela edo genetikoki erabat ahaideturik dagoela sekula ere ezin frogatu genezakeela onartu beharko genuke: horra egia absolutuaren panorama etsigarria): bi horien elkarrekintza dialektikoa izango da euskal ikerketak oro har eta euskal hizkuntzalantzako ikerlanek bereziki aurrera egin dezaten eragingo duena.

Lakatos zientziaren filosofo goi-mailakoak hipotesi zientifikoak bi multzotan banatzen zituen: aurrerakoiak eta atzerakoiak. Egiatik dutena gorabehera (beti ezbaian jarri beharrekoa baita, besteak beste), aurrerakoiek ikerkuntza-ildo ugari sortu eta ibili beharreko bideak erakusten dituzte. Bestela esateko, hipotesiak behin-behingo berretsi, osatu edo, bidezkoa bada, suntsituko dituen ikerkuntza suspertu, bizkortu egiten dute. Dena den, denboraren poderioz, hasierako

7. BBC telebistan Sheldon Glashow fisikariari egindako elkarrizketa.

hipotesia bazterturik gertatzen bada ere, aurrerakoitzat jo beharko da, ikerkuntza-ildo berriak jorratzeko aukera eman duelako.

Hipotesi atzerakoiak, aitzitik, ikerkuntza zientifikoari inolako aukerarik eskaintzen ez diotenak dira, ildorik ez dute adierazten eta zientzia-prozesu oro den etengabeko eztabaida ez dute sustatzen; antzuak dira, beraz. Popper-ek gehituko lukeen bezala, horrelako hipotesiek ez dute inongo interes zientifikorik, egiatik zerbait baldin badaukate ere. Adiera horretan, André Martinet hizkuntzalari eta euskalaria-ren hurrengo aipamena, paradigmatikoa izateaz gainera, ikerkuntza zientifiko garaikidearekin arrunt loturik dagoela iruditzen zait: «Il faut donc aller de l'avant selon le principe qu'il vaut mieux s'exposer à l'erreur que se condamner au silence par excès de précautions» (Morvan 1996: 19).

Gauzak horrela, hipotesi dene-kaukasoarrak, "isolamenduaren tesia" (hau da, egun inongo hizkuntzarik ez omen dela euskararekin ahaidetasun genetikorik agertzeko egokia) zela medio, euskal ikasketek nozitzen zuten egoera kezkarria desblokeatzeko balio izan du. Gurearekin, dirudienez, ahaidetasunezko lokarri sakon-sakonak bide dituzten hainbat herritan ikerkuntza-ildo berriak zabaldu dizki-gu, ikusgarriro zabaldu ere, dene-kaukasoar bide horrek; horrela bada, mitologia, hermeneutika, filosofia, populazio-genetika, arkeologia eta, jakina, hizkuntzalaritza-zko ikasketa konparatuek, euskal hizkuntzalaritza historikoak gehienetan ohi-koak izan dituen eremu isolazionista antzu eta mugatuek baino eduki epistemologiko eta garrantzi handiagoko hipotesien kopurua eta munta koalitatiboa aurki ugaldtu eta diziplinartekotasunez (hau da, gaur egungo metodologia zientifikoko kanonek agindu bezala) egituratu ahal izango dituzte.

Ene artean, askotan ematen diot buelta asko gai berari: jarrera isolazionistak (euskara irla-hizkuntza dela aldarrikatzen dutenak) estalki bat baizik ez direla uste dut nik: geruza horren azpian, pairatzea egokitu zaigun unibertsiteate kolonial honen kudeaketa daramaten kasten interesak, ezintasuna eta erdipurdikotasun zientifikoa erdi-ezkutatzen dira.

Argi gera bedi azterketa erlazionista eta isolazionismoa niretzat ez dela gauza bera edo parekoa. Hortaz, garatuko dudan hurrengo atalean, jarrera erlazionis-tatik hain zuzen ere, euskal hizkuntzalaritzan jarduniko hainbat ikerlari onen ekar-penak ikusiko ditugu: galdera interesgarriak egiteko, azterketan zorrotz izateko eta historiaurreko euskararen munduaz ikuskera global eta sintetikoaz jarduteko (baita, hori guztia era atsegina eta zorrotzean hedatzeko ere) gauza direla erakutsiko digute bertan. Horretarako, "Historiaurreko euskal hizkuntzalaritzaren azterketa eta Lakarra jaunaren tesiak" direla eta, 9. atalean agindu nuen laugarren puntuan sartuko gara orain.

15. Euskarak beste hizkuntza eta hizkuntza-familia batzuekin lokarriak dituela sinesten duen eta, gainera, paradigma horren arabera metodologia egituratu eta hizkuntza-unibertsio aurreindoeuroparra izan zitekeena aztertzen ahaleginak egiten dituen konparatistarenak

Joan den udan, ene bidea eta Lakarra jaunarena gurutzarazi dituen eztabai-da honen testuinguruan eta, aldi berean, ezagutza zientifikoa ene buruari errealitya-

teaz izan dezakegun ahalik eta ulermen generalizatuaren (beraz, dibulgazio-mailan eta ahal diren zientzia-diziplina gehienetan era jarraituan elikatu behar dena) aldeko osotasunezko apustutzat planteatu diodan militantziazko praktika metodologiko honetatik, Michel Morvan hizkuntzalari bikainaren azken lanetako bat, *Les origines linguistiques du basque* (Morvan 1996) izenekoa, irakurtzeko parada aparta izan nuen. Goi-dibulgazio baina, aldi berean, adierazpen garbiko lana izaki, unibertsitateko zaldunek nolabaiteko prestakuntza intelektualaz jantziriko gizaki gehienoi (diskurtso linguistikoaren ulergaitasunaren eta dibulgatzeko ezintasunaren izenean) galarazi nahi diguten unibertso horretarako atea zabal-tzen dizkigu.

“Centre d'études linguistiques et littéraires basques” elkarteko kolaboratzaile den irakasle hau CNRS-ko kide, prestakuntzaz germanista eta “Pariseko Elkar-te Linguistikoko” kide izateaz gainera, euskarari eta euskarak beste hizkuntzekin dituen harreman eta loturei buruz hamaikaxo artikulu espezializatu eman ditu argitara Michel Morvanek. Bestetik, goian aipatu dugun liburuan, gure Herriaren lehenaldiari buruzko planteamendu sintetiko izan daitekeenaz sekulako agerpena egin du hizkuntzalaritza konparatuan euskarri hartuta, diziplinarteko (populazioen genetikatik hasi eta arkeologiaraino iristen diren) lan alternatiboak balio erantsia izaki: hauen berri zehazki omen dakiela (hau da, gaur egungo hizkuntzalari on orok eduki behar lukeena, ikerlari trebetzat hartuko badugu): «Ce type de paléo-linguistique mérite au contraire qu'on y attache un intérêt soutenu, d'autant plus qu'elle rejoint dans une assez large mesure les préoccupations des spécialistes de la génétique des populations. Nous pensons ici aux travaux de Jean Bernard, Jacques Ruffié, L.L. Cavalli-Sforza, R. Sokal, etc. avec lesquels nous avons échangé des idées. De même les travaux récents de l'archéologue Colin Renfrew, ...» (Morvan 1996: 270).

Aurrera egin baino lehenago, *Euskal Zibilizazioa* liburuko bibliografia (eta testua) kontsultatzea aholkatuko nioke irakurleari, liburu horretan agertzen diren autoreak (ik. bibliografia) eta Michel Morvan hizkuntzalariak goian aipatu dituen ikerlarien izenen artean dagoen erlazioa ikus dezan.

Aurrera, bada. Hizkuntzalaritzako diziplinarteko ikerkuntzaz honela zioen Morvan irakasleak: «Cette “collaboration” inter-disciplinaire est hautement souhaitable et encore trop peu pratiquée. Elle accrédite de plus en plus, il faut bien le reconnaître, les travaux linguistiques de type “nostratique” et nous ne sommes pas loin de penser que c'est peut-être dans ce cadre-là qu'il conviendra un jour situer l'euskara» (Morvan 1996: 270). Hau da, Morvanen iritzi, Lakarra jaunaren isolazionismoa —inora ere ez garamatzan estrata (metodologikoki) antzua dela ahantzi gabe— ez omen dabil goi-mailako ikerketa linguistikoaren diziplinartekotasunaren egungo bideekin konparatzeko egoeran. Guztiz alderantziz gertatzen da *Euskal Zibilizazioa* liburuaren norabidea zein den erreparatuta: hipotesiaren barnean, hizkuntza-superfamilien azterketen bidea adierazten da ikerkuntza-ildo aurrerakoi gisa (Lakatosen terminologian). Ikus daitekeenez, Lakarrak baino prestakuntza handiagoz apaindutako jendeak, eta Gasteizko filologiako irakasleak espezialitate duen alor horretatik bertatik, *Ná-De-Ná* idazlanaren egilearen zeharo bestelako iritzia du.

Metodologia zientifikoaren helburua mugimendua (aurrerakuntza) da eta metodo hori, logika formalarekin ez ezik, galdera egokiak zein testuingurutan egin behar diren asmatzeko beharrezkoa den senarekin ere loturik dago maiz. Dirudenez, Michel Morvanek ondo ezagutzen du metodologia zientifikoaren funtzionamendua, honelako aipamena egin duenean:

Remettre en question nos méthodes, c'est accepter par exemple l'idée que la rigueur formelle seule n'est pas toujours en mesure de résoudre les grandes énigmes de l'Histoire. Une recherche heuristique, fût-ce en linguistique de cette fin de XX. siècle, doit tenir compte d'éléments qui ne sont pas obligatoirement du domaine de la science pure. Cela pourra peut-être choquer certains esprits trop rationnels, mais nous sommes convaincus que la découverte des origines du basque devra s'appuyer non seulement sur les connaissances du linguiste, mais aussi sur son flair. Pour résoudre la question des origines de l'euskara, si complexe, on ne pouvait se fonder uniquement sur des méthodes modernes d'une linguistique qui veut obtenir tout de suite des preuves «en béton». Comme elle ne les obtenait pas, elle refusait d'avancer. Cette peur de l'inconnu, du manque de rigueur, cet excès de prudence est tout à l'opposé, selon nous, de ce qu'est la science véritable. (Morvan 1996: 86).

Aurrerago, euskararen balizko ahaideen bilaketan nolako lan-ildoak segitu behar liratekeen azaltzen ari delarik, honela diosku:

Il est fort possible que le basque soit apparenté avec plus d'une famille linguistique. Dans ce cas, on pourrait alors comprendre pour quelle raison il est possible de trouver des correspondances entre le basque d'une part et des langues appartenant à des familles linguistiques "différentes" d'autre part. On doit se souvenir ici des hypothèses émises par certains linguistes qui regroupaient dans un même ensemble le basque, le caucasien et le paléo-asiatique par exemple, sans pour autant accepter des hypothèses plus discutables comme celles de N.J. Marr ou peut-être celle de H.G. Mukarovsky et sa super-famille "macro-érythréenne". (Morvan 1996: 88).

Euskal Zibilizazioa lanaren alderdi linguistikoa irakurri ez ezik ulertu duen edonork aise ikusiko du bertan zehazturiko intuizioak eta azterketa-alorrak, hein handi batean, Morvanek adierazi dituenekin bat datozela, autore honen berririk ez nuen arren, liburua idatzi nuenean. Lakarra jaunak bere idazlanean ikerkuntza-ildo horiek anatematizatzeak ez du esan nahi, egiaztatu dugun bezala, ofizioko gehientsuenak iritzi berekoak direnik. Lakarra jaunak nahi ez badu ere, zientziak (baita hizkuntzalaritzak ere) aurrera egiten du, eta berak baino prestakuntza egokiagoa duten beste ikertzaile batzuek horretan dihardute, *Euskal Zibilizazioa* liburuan adierazitako lan-ildoen arabera.

Morvanek gainera dio: «La vraie question consiste donc à savoir si l'abandon des comparaisons génétiques correspond à une réelle impossibilité concernant l'euskara (par ex. qui serait une langue réellement sans parenté) ou bien s'il est dû à une mauvaise approche de la grammaire comparée dans son cas précis. Nous pensons que cette dernière proposition est la bonne et qu'il nous faut reprendre ce comparatisme génétique selon d'autres critères, ...» (Morvan 1996: 89). Komentariorik gabe.

16. Euskara eta makrokontinente euroasiarreko (edo, zehazkiago, dene-kaukasoarreko) lekuko-hizkuntzen arteko historiaurreko lokarriak

Pertsona-izenordainekin eta hauek algonkinerarekin (Amerikako indiarren bi hizkuntza nagusietako bat) dituzten lotura zinez adierazgarriak aztertzean eman dio hasiera Morvanek bere lan eder zoragarriari. Lokarri horiek direla eta, ohar-tarazi digu oso litekeena dela euskarazko *hi* eta algonkinerazko *ki* formak egitura pronominalean (hauxe baita denborak higatu gabe hobekien irauten duena) loturik egotea: «La forme algonquine vient donc accentuer lourdement cette tentation. L'algonquin n'est, ne l'oublions pas, rien d'autre qu'un probable continuateur lointain de langues du paléolithique ayant leur source sur l'ancien Continent. On serait par conséquent en droit de supposer que le proto-sibérien ou proto-eurasien *k-pourrait représenter l'ancêtre direct du basque h- en l'occurrence» (Morvan 1996: 113). Interesgarria baino areagokoa da lan-ildo konparatista hori, antza denez populazioen genetikan eta mitologia konparatuan arestion eginiko ikerketak bi herri horien arteko harremana bermatzen hasiak direlako.

Ikerkuntza-ildo horretatik iritsi da Morvan eraikin linguistiko bat eratzera: horrek egundoko berdintasuna agertzen du dene-kaukasoarraren aldean. Gogora dezagun dene-kaukasoarrean hizkuntza amerindiarrak urruneko Paleolitoarekin lotuko genituzkeela, paleoasiarrak Mesolitoarekin eta uralo-altaikoak, azkenik, gugandik gertuen dagoenarekin, Neolitoarekin alegia. Lotura horiek, Morvanen arabera: «On peut également relever entre les langues amérindiennes et les langues eurosi-bériennes, basque compris, un certain nombre de convergences qui ne sauraient laisser indifférent» (Morvan 1996: 121). Zehazkiago uler dezagun, aztertzaile konparatistarik zorrotzenaren galdekizun fonetiko, etimologiko eta semantikoak beteko lituzketen komuntadura lexikalen azterketa konparatiboa egin du. Aztertu eta erkaturiko hitzak hauek dira: *aita*, *eme*, *gatz*, *il* eta *gau*, denak ere arrunt egonkorak ikuspegi semantikotik eta, noski baino noskiago, euskararen historiaurreko substratuarekin lotuta leudekeenak⁸. Aipaturiko azterketari azken errematea jarriko diotenak *tipi*, *hitz*, *putz*, *osaba* eta *gutxi* hitzak dira.

Hizkuntza paleoasiarrei dagokienez, azterketan jaso ditu hasieran n- duten izenordain galdetzaileak, izenordain-sistema eta aditzaren pertsona-hizkiak. Arago, tchouktche hizkuntza eta yeniseiar multzoko hizkuntzarekiko lexikografiazko azterketa konparatiboa ere egin du, eta honela dio amaieran:

Ainsi se termine la II. partie du présent travail. Son but était de montrer la profondeur des racines (au sens végétal du terme) de la langue basque. Elles plongent dans un passé immémorial et fascinant. Plutôt que des racines on pourrait évoquer l'idée, peut-être plus suggestive, de ramifications souterraines. Nous avons divisé la "démonstration linguistique" en deux parties pour des raisons de clarté et de commodité formelle. Mais, bien entendu, il va de soi que le passage des couches sibériennes les plus "anciennes" aux couches plus "récentes" ou mieux connues (IIIème partie basque et ourale-altaïque) n'est qu'un continuum chronologique ou

8. Historiaurreko euskararen inguruan badira bi analisi orokor (denboran urruti badira ere oraindik oso probetxugarriak) erreferentzial:

- Uhlenbeck, C. C. (1947): "Les couches anciennes du vocabulaire basque", *Eusko-Jakintza* 1 zbk., (543-581).

- Estornes, B. (1967): *Sobre historia y orígenes de la lengua vasca*, Donostia, Auñamendi Edit.

aréal. Il n'y a pas de rupture brutale entre le "proto-sibéro-eurasien", et le paléo-asiatique et les langues que nous allons étudier maintenant. Ce serait contraire à tout ce que nous savons de l'évolution des langues. (Morvan 1996: 154).

Euskara eta hizkuntza euroaltaikoen arteko erlazioen azterketa honela hasten da: «Les idiomes "fino-tatars", on pourra aisément le constater, permettent une comparaison avec le basque beaucoup plus fructueuse et plus riche que les idiomes paléo-asiatiques et amérindiens. Cela tendrait à prouver que, en effet, ces idiomes ouralo-altaïques son plus proches du basque et, comme le basque, appartiennent à une couche de langues euro-sibériennes, ...». (Morvan 1996: 159).

Eta geroago:

L'euskara étant une langue très "ancienne", il est tout à fait normal que les correspondances observées soient disséminées à travers l'ensemble des langues ouralo-altaïques. On ne peut s'attendre à trouver une parenté plus étroite avec tel ou tel idiome de la dite famille, car cela signifierait alors que le basque s'est séparé récemment de l'idiome en question ou d'un groupe particulier à l'intérieur de la famille. Bien au contraire l'euskara représente un état de langue qui, parce que l'on peut observer à la fois des correspondances avec l'ouralien et l'altaïque, vient apporter un argument d'un poids considérable en faveur de l'unité originelle des deux «familles»... (Morvan 1996: 160).

Azterlan zorrotz horretan Morvanek *ote* morfema modala eta *eze*, *bai*, *ba*, adverbialak, *-a* galderazko atzizkia, *n-* hasiera duten izenordain galdetzaileak, *zer/zein*, ezpainkari-errepikapen adierazkorak, *ki* morfema, *-k* pluralgilea, akusatiboa, ergatiboa, inesiboa, instrumentala, genitiboa, adlatiboa, deklinabideko *-ga-*, pertsona-izenordainak, berdintasun fonetiko eta lexikografikoak aztertu eta beste hizkuntzetakoekin alderatu ditu: eremu altaikokoekin (mongola, tungusea, japoniera zaharra, turkiera eta korearra) eta eremu uraliarrekoekin (finlandiera, samoiarra, laponiera eta magyarrarekin). Hedapen-alorreko mugatzaileak direla medio, ezinezkoa dut orain ur horietan murgiltzea baina, horren ordez, gure hizkuntzaren lehenaldiaz eta gureak eurasiar kontinentekoekin izan zituzkeen harremanez kezkatuak dauden irakurle guztiei gonbit egingo diet lan kitzikagarri hori, hasi eta buka, arretaz irakur dezaten.

Aurreko ikerketa guztia gehi hizkuntza eurasiar batzuek dituzten ezaugarri orokor batzuk (hogeikako zenbakikuntza, genero-markarik eza, aditza eta izena jatorriz ez bereiztea, etab.) egiaztaturik, amaieran hurrengo berrespena utzi digu Morvanek:

Ce qui apparaît maintenant clairement c'est que le basque est un idiome non isolé, aux parentés complexes et multiples, formé de plusieurs substrats, avec une assez nette couche nord-eurasiatique dont il fallait remettre l'étude à l'honneur, car elle avait été prématurément abandonnée. L'autre grande couche principale du basque est constituée par le substrat méditerranéen, les deux substrats en question devant nécessairement se rejoindre ou s'interpénétrer quelque part. (Morvan 1996: 271).

Hori dena irakurri ondoren, *Euskal Zibilizazioa*-ren hipotesi linguistikoa salbatzea bada kontua, Michel Morvan bera baino abokatu defendatzaile hoberik ez dut aurkituko. Lakarra jaunaren espezialitatetik bertatik, ene liburuan gerora beste ikerlan batzuk egiteko hipotesizat hartu zirenak bezalako (berberak, prakti-

kan) ondorioetara iritsi da Morvan. Badirudi Lakarra jaunak, ene liburuari eginiko kritikazko idazlaneko bibliografian aipatzen badu ere, ez duela Michel Morvanen liburua irakurtzeko astirik izan.

Lakarra jaunak metodologia zientifikoaz ez dakiena badaki Michel Morvanek. Honela dio, argi eta garbi, euskaraz eta ikerkuntza linguistikoaz egin dituen ikerlanen ondorioak ikusita: «... situation du basque “langue isolée” que nous refusons totalement en tant qu’hypothèse de travail» (Morvan 1996: 47). Paragrafo motz horretan Michel Morvan hizkuntzalariak, jakintsuek bere-bereak dituzten trebakuntza zientifiko sakonak eta umiltasunak (Lakarra jaunaren lainezazko estilo harroputzaz zeharo beste aldera) ematen duten argitasun osoarekin adierazi duenez, bai bere hipotesi ez-isolazionista, bai Lakarra jaunarena, biak horixe dira, hipotesi hutsak. Bietan hoberena, ikerkuntza eta eztabaida sustatzen dituen izango da, ibilian-ibilian bide egingo duena (inork ez baitauka *a priori* egiaren giltza), ikerkuntza- (ikusitugunez, antza Euskal Herritik kanpo baizik egiten ez dena) eta lan-ildo berriak adierazten dituen: horixe izango da, ikerkuntza-praktikan oinarri harturik, zientziaren ikuspegitik, benetan aurrerakoi izatearren, etorkizunean nagusituko dena. Konparatista izatea ez dela alferrikako isolazionismoaren sinonimoa irakatsi digu Morvanek; horren froga bezala, beste bizipen baten berri emango dut jarraian.

17. Europa aurreindoeuroparreko toponimia

Euskararen iraganaldia zela eta, joandako urtean aztertu nuen material linguistikoaren zati handi bat, artikulua honetan jorratuko dugun kontu orokorra (toponimia aurreindoeuroparrari dagokion gaia) aztertzeko ere garrantzitsua iruditu zait. Mendi izenei dagokien toponimia, ibaiena (hidronimia) bezalaxe, historiaurreko gizarteak (euskararen garapena jazo zeneko munduak, hain zuzen) utzi digun liburuaren antzekoa da: gaur egun eskura dauzkagun teknika linguistikoei (eta bestelakoei) esker, badugu hor zerbait irakurtzea.

Kontu honi buruz egin zen lehendabiziko lan funtsezkoa Hans Krahe-k 1954. urtean osatu zuen Europako antzinako hidronimia-lan monografikoa izan zen (Krahe 1954) (esan gabe doa idazlan hori ere ez dela aipatu ere egiten Lakarra jaunaren bibliografia luzean). Europar hidronimia, berezko elementu nagusiak eta deklinabide-hizkiak zituen egitura linguistiko propioak osaturiko sistema zela konturatu zen Krahe. Europa primigenioa eta bertan mintzatu ziren hizkuntzen fenomenoak ulertzeko lehendabiziko aurrerapauso hark berealdiko garrantzia izan zuen arren, hura interpretatzeko orduan traizionaturik gertatu zen Krahe, hizkuntza-sistema haren etimologia matrize indoeuroparraren arabera interpretatzen saiatu baitzen, bera alor horretantxe zegoelako espezializaturik.

Geroago, Theo Vennemann-ek (Vennemann 1994) taxutu zuen ikerkuntza-ildo berriak (euskaldunontzat bereziki interesgarria) Kraheren planteamenduaren norabidea zuzendu zuen eta, egitura hidronimiko haien azterketa fonetiko, morfologiko, sintaktiko, semantiko eta etimologikoa eginez, beste ondore batera iritsi zen: aurreindoeuroparrak ziren eraikuntza haiek eta, gaur egun Europan bizirik irauten duten hizkuntza denetan, horiek interpretatzeko abantaila handienak (bakarrak, agian) ematen dituen euskara da. Ikerlari horren arabera, antzinako

Europa aurreindoeuropar hartan mintzatu ziren hizkuntzen artean (haietatik euskarak bakarrik iraun du bizirik) ba omen zegoen sakoneko lotura sendoa.

Hizkuntza aurreindoeuropar horiek —hidronimiari dagokionez— egungo euskal akitaniar eskualdean ez ezik, Iberian, egungo Italian eta Mediterraneoko arroan oro har, Frantzia, Alemanian, Eskandinavian (iparraldea izan ezik), Balkanetako iparraldean, Herbehereetan, Britaniar Uharteetan, Austrian, Baltikoko herrietan eta herri eslaviarren hegoalde eta mendebaldean agertzen dira. Ikusten ari garenez, azalera itzel hori antzinako Europaren zinezko zati handi-handia litza-teke. Antzinako Europa horrexen aipua egin genuen *Euskal Zibilizazioa* liburuan, Paleolito urrunean eta Europa bertako Neolito hartan mintzatu zen euskarak (edo mintzatu ziren euskarek) hartu ahal izan zuketen hedaduraz ari ginela.

Aurrehistoriako euskararen ikerkuntza-alor kitzikagarri hori (hizkuntzaren antzinako hedapena balioztatu eta, horri esker, bestelako ikerketa osagarriak antolatu ahal izateko) estreinakoz jorratzeko dago oraino, praktikan. *Kar* eta *turia* historiaurreko erroak aztertu zituen Bernardo Estornesek hastapenetako ikerketa batean eta *iz* erroa, berriz, Carlos Jordan-ek landu du; baina oraindik orain gehienbat arakatzeko eta arakatzeko dagoen alorraren hasiera baizik ez dugu ikusten bertatik, nahiz eta Krahe eta Vennemannen ekarpenek iristeko dugun hizkuntzalarien belaunaldi berriaren ikerkuntza orientatu eta aberastu duten.

Morvanen lanek, Greenberg-Ruhlen eta Krahe-Vennemannen lanekin batera, aurreindoeuropar hizkuntza gisa harturiko gure euskara honek aztertzeko, urratzeko duen sail gaitza erakusten digute, argi asko erakutsi ere. Esparru horretan sintesia kontinente osoa harturik bilatu behar da, eta ez herrialde bakar bat aukeraturik, arestian Morvanek zehazki zioenez. Honela erantsi zuen Morvanek azkenean: «Langue (le basque) qui présente un intérêt énorme pour la connaissance du passé de l'humanité» (Morvan 1996: 160).

Populazioen genetikak eginiko azterketek Morvanek adierazitako interes hori areagotu baizik ez digute egiten, *Eu18* eta *Eu19* haplotipoak ikertzean, europar Paleolitoan bi migrazio-korrante bereizi gertatu zirela ohartu direla dioskutenean: bata, eskualde euskal-akitaniarretik erdialdeko Europarantz (tesi hau *Euskal Zibilizazioa*-n iradoki genuen); bestea, Ukraina eskualdetik euskal-akitaniar eskualderantz. Mugimendu bi horiek agian korrelazioan egon ziren Gravet aldirian gertatu zen ekialde-mendebalde norabideko migrazio handiarekin eta Magdalen aldirian, aldiz, mendebalde-ekialderanzko migrazioarekin, Paleolitoko arte mobiliarra osatzen zuten *venus* (emakume-iruditxo) haien inguruan eginiko ikerlanetatik erdietsi diren datazioen arabera.

Tira. Atzerriko ikertzaileentzat, historia zoragarri horien erdigunea, inondik inora, euskara eta euskaldunok garen (*Euskal Zibilizazioa* liburuko pasarte batean horixe adierazi nahi nuen nik, bakarren bati biziki gogaikarri gertatu bazaio ere) bitartean, hemengo unibertsitate-giroan beste aldera begira gaude, itsu-gorraren plantak eginez. Noski, lan horien aurrean sentiberatasuna agertzeko, euskal nortasunaren kontzientzia eduki eta bertakoa balioesten jakin behar da, baina hori Vennemann eta antzeko atzeritarren pribilegioa da, nonbait. Horren gainean, hain zuzen ere, honela irakurtzen diogu Vennemanni: «Inondik etorri ez diren europar bakarrak dira euskaldunak, alegia, jatorrizko europarrak dira berez, garai batean

izugarritzko hedadura zabala izan zuen nazio itzel hartatik bizirik jarraitzen duen herri bakarra» (Vennemann 1994: 263). Ideia hauek eta antzekoak zientzia-fikziozkoak irudi lekizkiguke, UPV-ko irakasleen ahotik entzun bagenitza.

18. Euskara eta Kanarietako aborigenen quantxeraren arteko balizko lokarria

Horra hor axolagabekeriaren, lagakeriaren gaindia, euskara eta beste hizkuntza zenbaiten arteko loturen azterketari dagokionez, Afrikan legokeen euskal substratua eta, bestetik, quantxera eta euskararen arteko erlazioa jorrazteko unea iritsita.

Lehen aipatutako Gasteizko fakultatean eman nuen hitzaldiaren ondoren, oroimenak huts egiten ez badit, euskara eta guntxeraren arteko harremanak azterzea, oro har, kanariarren eginbeharra zela eta horren inguruan ikerketak egin behar zituztenak haiek zirela bota zidan Lakarra jaunak. Eta horrelako baieztapenak entzutean quantxe eta berbere hizkuntzez Lakarraren jakintza oso eskasa zela pentsatzen hasi nintzen. Hori bera izan da bere kritika irakurtzean baieztatu dudana.

Lakarra jaunak bere lanean hainbat elementu fonetiko eta morfologiko aipatu ditu: bere iritziz, horiek direla bide, quantxerak eta euskarak ez dute elkarrekin zerikusirik. Baina, mantu akademiko urreztatu horren azpian, kritikari erantsi dion bibliografia amaituezinean, quantxeraren azken hondar biziak *in situ* jaso zituen Wölfel jakintsu eta hizkuntzalari ospetsuaren oinarritzko obra (Wölfel 1996) bera ere ez dela agertzen egiaztatu dut harriduraren harriduraz, bere burua kritikari serio samartzat daukan edonorentzat, azterketa konparatiboa egiteko aukeratu dituen iturri eta irizpide metodologikoak zein diren azaltzeko derrigorrezko erreferentzia funtsezkoa baita obra hori. Dena den, Lakarra jauna kontu zoragarri horri buruz zerbait ikertzen hasteko asmotan baldin balebil, gustura asko utziko nioke ene liburutegi pertsonalean daukadan Wölfelen obraren kopia.

Lakarra jaunaren idazlanean atzeman dudana beste gabeziatiko bat, filologo kanariarrek azken urte hauetan sistematikoki landu dituzten (honezkero, gai horren gaineko behar bezalako ikerlanik egin nahi duen ororentzat eskura ezinbestez izateko elementu bilakatu direlako) quantxerazko hiztegiei⁹ buruzko inolako informaziorik ez azaltzea litzateke, horien aipamenik ez baitu egiten idazki osoan.

Hiztegi horietako edozeinek, hasteko (eta xehekapenezko inolako lan analitikorik gabe), ene iritziz aski adierazgarria den informazio bikoitza emango digu. Lehendabizikoa, kanariar quantxera eta euskararen artean omen zegoen lotura fonetiko hertsia buruzkoa.

9. Ikus ondoko hauek:

- Navarro Artiles, F. (1981): *Teberite, diccionario de la lengua aborigen canaria*, Las Palmas, Edirca.
- Ossorio Acevedo, F. A. (1985): *Agual guanche: diccionario guanche*, La Laguna (Tenerife), Edic. Tagala.
- Pando Villarroya, J. L. (1987): *Diccionario de lengua guanche*, Madril, Pando Editorial.

Horrela, Navarro Artilesen hiztegian hurrengo terminoak aurkituko ditugu, besteak beste: Achucana, Aduen, Adaya, Agona, Aguache, Aguauko, aho, Ajano, Ajarera, Alfaro, Alhaga, Altabaa, Alquaxona, Ama, Amagal, Amanai, Amar, Amarco, amierat, amoca, amogar, amolan, amots, Amulaga, Anaqua, Anate, Anaza, Andamana, Androna, angira, Anguda, Aniaga, Ansa, Ansona, Antidamana, Antona, Añaco, Añaterve, Añaza, Apala, Aquejata, ara, Arabisenen, Araca, Araco, Aracuzen, Aragalan, Aragunduy, raguygo, aran, Araneta, Arañaga, Araota, Arasa, Arautiagata, Araya, Araza, Arazo, arba, arbiago, Arbona, Arcacanamuga, Arecacasumaga, Archaoya, Archeneche, area, Areachu, Areagoraja, Aregaldan, Aregoma, Aregume, Areheta, Arepaldan, Arepeal, Arequiz, arecia, Arerte, aretamo, Areynaga, Areza, Argada, Argaga, argal, Argama, Arganegin, Argano, Argaña, Argayeda, Argayniguy, Argezo, Argoma, Argona, Arguado, Arguama, Arguatar, Arguayo, Arguaza, Arguereta, argui, Argyneguy, Aria, Ariagona, Aricama, Aricor, aridanen, aridani, Arinaga, Aripe, Ariscaya, Arminda, Arnao, Aroba, Arona, Arpe, Arrautaua, Arriba, Arrieta, Artabobo, Artagude, Artaone, Artaso, Arteaga, Arteara, Artecheita, Arteme, Artenara, Artenaran, Arthega, Artiagar, Arujo, Aruma, Arume, Arutaba, Asano, Asena, asitritz, aspe, Asteheita, Asten, Astiagar, Atabara, Atacaicate, Atahona, Atairia, Atajo, Ataoro, ataycate, Atazaicate, Atbitacarpe, Atche, Atchinete, aten, Atenania, Ateyneybenam, Attabonera, Attagaregui, Attagares, Attagora, Attenata, Atxona, Auaga, Auchon, Auhagal, Auiha, aulaga, Autaba, Autinamara, Autindana, Ayacata, Ayamoru, Ayesa, Ayraga, aysouragan, ayta, Ayucate, azango, Azate, Azoca. Toponimo eta patronimikotan ugari-ugari den zerrenda horretako hitz guztietan atzematen da euskararen fonetika, argi eta garbi. Lagin xume horrek (gogoan izan Navarro Artiles hizkuntzalariaren hiztegi A letratik hasten diren batzuk bakarrik urratu ditugula) bide eman digu inondik inora euskarak bere-bereak dituen soinuak agertzen dituzten mila hitzetik gora (hau da, bildutako termino guztien % 15aren parekoa) estatistikoki zundatutako entziklopedia horretan.

Eta hori baino kitzikagarriagoa da, bai alderdi fonetikoan, baita semantikoan ere, euskarazko homologoaren berdintsu edo baliokide diren hitzak aurkitzea. Hortxe ditugu, esate baterako: abe (ahaide), aia (haitz), aika (arreta), almen (ahalmen), amago (mendi sakratua), anaia (anaia, eta ez neba), angira (ur), ar (ondorengo), atxa (aita), bizi (bizi), dur (sudur), gar (harkaitz), gu (gu), habira (sakan), handi (handi), handiki (handiki), iskagua (iturri), kaxo (txiro, gizagaixo), nahai (nahi), ni (ni), adar (adar), atxi (hats), hana (hona), koran (jainko). Hori guztia, hiztegiaren % 20an zehar lardaskan ibili ondoren: horrek, estatistikoki, ehuntxo bat hitz berdin-berdin (bai semantikan, bai fonetikan) aurkitzeko aukera iragarriko liguke.

Hiztegiak gainetik eta bizi-bizi ikusi ondoren, buru ireki samarrak aski harrigarritzat joko lituzkeen eta (orain artean esan den guztiari gehiturik) txiripa hutsak asetzeko moduz ezin azal diezazkigukeen beste hainbat alderdiz ohartu gara, hala nola: -a (mugatzalea), -ak (ergatiboa), -an (genitiboa), -az (instrumentala), ba- (baldintzazkoa), -kebe, -ka (gabetasun-atzizkiak), -ke (ahalezko geroaldiaren ezaugarria), -lako (berdintasun-atzizkia), -na (femeninoaren adierazlea), -tto (diminutiboa) . . . Zerrenda hau, azterketa sakona egin ondoren, dezente ugaldurik ikusiko genuke.

Lakarra jaunak aurreko guztia aski ez balu, Wölfelen jatorrizko lanetan Krutwigek egin zuen quantxerazko aditzaren berreraikuntza (bizkaierarekin identifikatu zuena, hain zuzen ere) ere jarriko genioke aurrean: horrela ikus lezake gure euskal filologiak aspaldiko partez hasi beharko zuela historiaurreko euskal hizkuntzalaritza aberastasuna, ikuspegia zabaltzea eta ikertu beharreko paradigma berriak ekarriko lizkioketen bide horiek urratzen. Are gehiago, gure filologoek bide horiek jorratzeko interes objektiborik izango ez balute ere, oraindik ere ikusteko nago Krutwigen lana eraitsiko lukeen kritika zientifikorik, Krutwigek kanariar hizkuntzaz zuen jakintzan eta ikerkuntza horretan baliatu zituen argitalpenetan euskarri harturik.

Beste alde batetik, gogoan hartu beharko genuke, goian aipatu dugun quantxerazko hiztegian (adibidez) hamaikatxo ohartxotan gogoratzen direla Krutwigek eginiko ikerlana, quantxeraren ikerkuntzari eginiko ekarpen gaitzagatik, Tovar-ek eginikoa eta, harritzekoa bada ere, Lakarra jaunak alor horretan buruturiko egintza filologiko eskergaren aipamenik ez dago, noski.

Horiek horrela, Krutwigek euskal hizkuntzalaritza (aurre)historikoari eginiko ekarpena hutsaren parekoa dela esatea —halaxe esan baitzuen Lakarra jaunak—, gaur egun euskal hizkuntzalaritza (aurre)historikoak betetzen duen alor zabal-zabala zeharo ezezagutze hori estali nahi bide duen harropuzkeriaren emaitza baizik ez da.

Era berean, Lakarra jaunari ozenki samar gogoratu behar diogu bai paleoantropologian (Cro-magnon-en hondakinen banakuntzari dagokiola), bai populazioen genetikan eginiko azken ikerketek (Martell 1986, Pinto 1996, Moral 1997, Rando 2000) ere, euskal eta kanariar munduen arteko lotura hertsia hipotesia bermatzen dutela. Horrek, bistan da, Krutwigek eginiko lana eta antzeko lan-ildoak, biziki sinesgarriak direla berrestez gainera, egia eta bultzatu egiten ditu.

Baina euskarari dagokion hizkuntzalaritza-alorrean Lakarra jaunak dituen gabezia eta hutsuneak ez dira oraindik amaitu. Quantxerarekin, alde edo moldez, zerikusia duen beste alor batean ere arreta eskainiko diogu geure irakasle horri.

19. Hizkuntza-substratu euskal-afrikarra

Euskara, quantxera eta Neolitoko inbasioak gertatu baino lehenago Afrikako iparraldean mintzatzen ziren hizkuntzen (horiek, egungo berbere hizkuntzetan maileguak sarraraziko zituzketen, berbere munduak Afrikako iparraldeko historiaurreko mundua inbaditu eta desagertarazi zuela kontuan izaki, eta hizkuntzalaritza-ikuspegitik, euskararen eta egungo berberearen elementuak korrelazioan ezarriko lituzkete, zeharka bada ere) arteko lotura egiazko, erreal, bilakatuko zukeen Saharako balizko substratu primitiboaren hipotesi sustraitu bezain zoragarriak; kontu hori, biziki konplexua den arren, ez dago inondik ere itxita, euskal izolazionisten jarrera estatikoak gorabehera.

Afrikako iparraldeko —berbere eta kanariar munduan, zehazkiago— populazioen baitan genetistek egin dituzten azkeneko lanek gaur egun berezita ez ezik banandu eta bakanduta dauden berbere, quantxe eta euskaldunen munduen artean aspaldi-aspaldian zegoen ahaidetasuna atera dute berriro mahai gainera

(Arnaiz 1995/1997). Elementu horiek, historiaurreko artearen hondarrek eta Cro-magnonen hondar generalizatuak, denek batera, Europa eta Afrikaren arteko historiaurreko mediterraneoan zirkuituan gertatu bide ziren erlazio benetan ugari haiei buruzko hipotesia finkatu baizik ez dute egiten. Hori guztia dela bide, Afrikako iparraldeko historiaurreari eta horrek euskal-akitaniar munduarekin izan zuen loturari buruzko azterketen emaitzak (zailtasunak zailtasun) erabat adierazgarriak izan litezke (ia) denontzat. Aurreko arrazoiengatik, besterik ez bada ere, berbere munduaren hizkuntzalaritzan eta, aldi berean, hizkuntza horrek quantxerarekin izan zuen loturan sakontzeak (alor horretan diharduten hizkuntzalari konparatista gehientsuenek horixe dute lehentasunezko lan-ildoak) diziplinarteko testuinguru kitzikagarri hau dezente argizta lezake.

Horrelako ikerketetan Lakarra jaunak ezarritako arreta hutsaren hurrengoa izatea ere ez da txiripa, ezta sekretua ere. Horien aldeko interesik eza pertsonalki adierazia: egiaz ari da, berbere munduaz duen ezezagutza ia absolutuak zehazki frogatzen duen bezala. Hala eta guztiz ere, ausarkeriaz barnerratu da berriro ere arras gutxi ezagutzen duen (deus ezagun badu) alorrean eta, noski, bere herren-txangoaren lorratza utzi nahi izan du geroaldirako: bere iritziz, berbere hizkuntzalaritzak oinarri-oinarrizkoa duen bibliografia guri erakusteko, irakasteko, premia sentitu du eta, jakina, konturatu gabe, gabeziak eta hutsuneak berriro utzi ditu agerian.

Lakarra jaunaren bibliografian erreferentzia bakarra dago berbere-hizkuntzei buruzkoa: Chaker-ena. Baina Chaker ez da bakarra, ez da hoberena, eta ez da berbere hizkuntzetan sakondu (gerora, quantxera edo euskararekin izan zitzakeen loturak ikertzeko helburuz, adibidez) nahi duen ororentzat ezinbesteko erreferentzia. Berbere hizkuntzalaritzari dagokionez, funtsezko eta ezin eztabaidatuzko erreferentzia —batetik, egin duen lana eskerga delako, eta bestetik, hamaikatxo alor aztertu dituelako (fonetika, morfosintaxia, lexikografia, etab., etab.)— Basset dugu¹⁰. Duda-izpirik gabe. Baliteke Lakarra jaunak bibliografia hautatzeko duen irizpidearen traizioa zeregin honetan nozitu izana, *zarra* eta *txarra* identifikatzen duenean, esate baterako. Hori ez da hagitz irizpide metodologiko egokia: badira materialak (Basset-enak, adibidez), urte asko dituzten arren, berbereaz ikerkuntza egiteko oraino ere ezinbesteko erreferentzia direnak. Kontu horri buruz ehun erditxo bat lan egin dituela, Basset bilakatu da edonorentzat berbere ikasketetan aritzeko giltzarri.

Arestia goko dugu ezin eztabaidatuzko beste erreferentzia bat, Galand, Basset aitzindariaren bideari darraiona¹¹; maisuak joraturiko alor horietan funtsez-

10. Bassetek berbererari buruz egindako hizkuntzalaritzako lana izugarri zabala da. Hemen zerbait emateagatik hiru lan baino ez ditut aipatuko:

- (1929): *La langue berbère: morphologie, le verbe, étude des thèmes*, Leroux, Paris
- (1940-1941): "Quatre études de linguistique berbère", *Journal Asiatique* 232, 161-291.
- (1945-1948): "Le système phonologique du berbères", *GLECS* 4, 33-36.

11. Aurreko puntuan esandako guztia hemen ere baliagarria da. Horregatik artikulua puntu honetan aipatzen diren egile batzuen erreferentziak bakarrik emango ditut orain. Informazio gehiago lortzeko interesatuta dagoenak zirkulatzen duten bibliografiako gordailuetara jo beharko du.

Berbererari buruz:

- Galand, L. (1964): "L'énoncé verbal en berbère: étude de fonctions", *Cahiers Ferdinand de Saussure* 21, 33-53.

ko lana (zabala, gainera) egin du. Lakarra jaunak aipatu digun Chaker hori aipatzekotan ezin ahaztuzkoak ditugu Vycichl, Legueil edota Galand-Pernet hizkuntzalarien lanak, denak ere erreferentzialak. Horienak bezala, ez ditugu bazterrean utzi behar Bader, Beguinot, edo Mitchell-enak (Kabiliaz), Medlaoui, Guerssel edota Saib-enak (Marokori buruzkoak), are gutxiago Prasse edo Nicolai-ren lan funtsezkoak (tuareg herriaren hizkuntzaz, hau da, berbere dialektoetatik “garbiena” eta euskararekin lotura sendoena omen duena). Gogoan izan dezagun tuaregera hizkuntza duen eskualde honetan, Afrika osoan aurkitu diren labar-pinturarik zabalduenak eta kalitatez ederrenak hementxe idoro direla; era berean, euskal formuletatik gertu-gertuko analisi genetikoaren emaitzak eta matriarkalismoarekin edota ahozko (bertsolaritza, etab.) kulturarekin loturiko hainbat elementu ere bizirik daudela. Ez dut irakurlea gogaitu nahi lan horien erreferentziak errepikatuz, horietako asko eta asko erraz eskura daitezkeelako; dena den, interesik baldin badu inork (are Lakarra jaunak berak ere) hementxe nauka, nahi adina argibide emateko.

Berberea eta quantxeraren arteko loturen ikerketei dagokienez, Álvarez Delgado irakaslearen ikerlan sakon-zabala derrigorrezkoa dugu eta, ondoren, Brito Henríquez-ena. Horien osagarri dira Vycichl eta, areago (urteak urte), Tovar eta Wölfelenak ere.

Azkenean, quantxerari dagokionez, ildo adierazi dutenak Álvarez Delgado eta Díaz Alayón dira. Horiekin batera, Steffen, Pichler, Springer eta Jiménez Sánchez ikerlariak dira quantxerazko onomastika, idazketa eta berreraikuntza lexikalen panorama osatzen dutenak.

Mukarovsky-ren afera postrerako utzi dut, nahita. Autore horri buruzko erreferentziarik eman ez izana egotzi dit Lakarra jaunak. Ongi dakigun bezala, hizkuntza kamito-semitikoen eta euskararen arteko balizko erlazioa dela eta, izen handieneko ikerlaria izan da Mukarovsky. Lehen-lehenik Lakarra jaunari oroitarazi behar diot, *Euskal Zibilizazioa* liburuan jakinarazi dudana bezala, euskara eta Afrika iparraldeko hizkuntzen arteko balizko loturari arrunt interesgarria neritzon arren, gure Herriaren berreraikuntza (linguistikoa, gure honetan) aztertzeko unean ez

- Galand, L. (1981): “Le système verbal berbère”, *Actes de Journées Linguistiques: Presses de l’Université (Angers)*, 97-108.

- Vycichl, W. (1955): “Der Umlaut in den Berbersprachen Nordafrikas: eine Einführung in die berberische Sprachgeschichte”, *WZKM* 52, 304-323.

- Vycichl, W. (1993): “Les terminations du pluriel externe des noms berbères: étude sémantique et historique”, *CELB*, 255-268.

- Prasse, K.G. (1969-1970): “Éléments de phonologie touarègue”, *GLECS* 14, 93-105.

- Prasse, K.G. (1994): “Les principaux problèmes de l’orthographe touarègue”, *EDB* 11, 97-105.

Quantxerari buruz:

- Alvarez Delgado J. (1941): “Los aborígenes de Canarias ante la lingüística”, *Atlantis* 16, 276-290.

- Alvarez Delgado J. (1964): *Inscripciones líbicas en Canarias: ensayo de interpretación líbica*, Universidad de la Laguna, Tenerife.

- Alvarez Delgado J. (1979): *Antropónimos guanches*, Mancomunidad de Cabildos, Plan Cultural y Museo Canario, Las Palmas.

Berberera eta quantxeraren arteko harremanaz:

- Vycichl W. (1987): “Les Berbères des Iles Canaries, éléments historiques et linguistiques”, *EDB* 2, 42-62.

- Diaz Alayón C. (1993-1994): “Notas preliminares para un estudio de los materiales lingüísticos de La Gomera prehispánica”, *Almogaren* 14-15, 241-300.

nintzela xehetasun zehatzagoetan barneratu kontu horri buruz gaurdaino egin diren ikerlanak oso mugatuak direlako (objektibotasun zientifikoarekin zerikusirik ez, baina iraganaldi eta orainaldi kolonialeko estatu guztietako alienazio kulturalarekin hertsiki loturik doan eurozentrismo peto-petoak baldintzatua, europar kontinenteko ikerlariek hala agertu dute eta).

Ondorioz, Paleolitoarekin batera, bai Mesolitoa, bai (batez ere) Neolito europarra (hauen gaineko ikerkuntza ugariago baita) izan ziren *Euskal Zibilizazioa*-ren azterketan garatu nituen guneak, Afrikari zegokiona, bibliografia eta guzti, bazterrean (nahita) utzirik. Lakarra jaunak, halaz ere, denok bere parekoak garela uste du, hau da, dakigun guzti-guztia aipatu edo bestela lehertuko ginatkeela. Oker dabil ostera ere. Lakarra jaunak bere bibliografian Mukarovskyren hiru lan aipatzen ditu (bitxia bada ere, Leioan izaniko kongresu batean aurkeztu eta Euskaltzaindia erakundearen aldizkarian espainolez edo ingelesez argitaratutakoak bakar-bakarrik), ikerlari horren materialik gehientsuenaz (alemanieraz eta frantsesez idatzitakoa) ahantzita, nahiz eta afrikar substratuan sakontzeko asmorik duen edonork eskuratu eta kontsultatu beharko lukeen: “Baskisch-berberische Entsprechungen” (Mukarovsky 1969); “Baskisch und Berberisch” (1963-64); “Einige hamito-Semitische und baskische Wortstamme” (1980-1981); “Langues apparentées au chamito-sémitique: Comparaison avec le basque, l’euro-saharien et les langues ouest-africaines” (1966-67); “Les rapports du basque et du berbère” (1963-1966); “Über die Lautgesetzlichkeit berberischbaskischer Entsprechungen” (1969). Material horiek, *Euskal Zibilizazioa* hipotesiaren dibulgatzaile umilak, “ofiziokoa” ez bada ere, artxibatuak ditu eta, horietako batzuk, artxibatuak ez ezik euskaratzeko bidean ere bai.

Lakarra jaunaren lanean ikusi dudak beste zerbait: bere aipamen eta bibliografia luze-luze-luzeetan, zatirik handiena eskualde anglosaxoiari dagokiona da bakar-bakarrik, ia: horrek, oihes, zarpail edo “abarkadun konplexuarekin” sortu zen UPV horren beste akatsetako bat egietsi baizik ez digu egin, hau da, ingelesez mintzatu edo idaztearren akademiko- edo ikerlari-titulua irabazi duela sinestea. Ederki, bada: Lakarrak sinetsi nahi ez badu ere, orain jorratzen ari garen kontuari (euskal-afrikar substratua, alegia) buruzko bibliografiarik interesgarriena frantsesez dago idatzirik, batik bat, hala nola Charencey edo Géze-ren kasuetan (frantsesak, kolonialista taxuzkoak diren aldetik, berebiziko arretaz ibili ziren Afrikan hainbat diziplinatan jardutean, berbere hizkuntzalaritzan, besteak beste). Material garrantzizkoaren gainerakoa alemanez idatzi dute (adibide paradigmaticoa Mukarovsky den arren, hor dira Gabelentz, Pokorny edo Zyhlarz, adibidez, panoramaren lagin xumea erakuts dezagun).

Beste akats bat ere ikusi dut Lakarra jaunaren metodologian: arestiko data ez daukan bibliografia (oro har) ez onartzea, alegia. Berrero ere gogoratu beharko genuke *Euskal Zibilizazioa* liburuko bibliografiaren aurrean agertu zuen erdeinua: “zaharra eta txarra” izatea egotzi zion gure irakasleak. Lakarra jaunari oroitarazi beharko zaio berak “bibliografia zaharra” bataiatu duen hori (inkonszientean “zaharra = txarra” elkartuz, beraz) izan dela maiz ikerkuntza konparatistan jarduteko esker oneko ateak zabaldu dizkiguna. Eta oraintxe aztertzen ari garen gaiari atxiki gakizkion, gogora dezagun Schuchardt, Tovar, Krutwig, Brito Henriquez, Álvarez Delgado edota Mukarovsky bera ere sen eta prestakuntza genera-

lista handiz jantziriko ikerlariak direla. Nahiago lukete historiaurreko euskal hizkuntzalaritza ikertzen ari diren batzuek horren ederki beteriko motxila baleukate gainean! Ikerlari zahar horiengana oraindik ere jo behar baldin badugu, ordea, birtarte honetan euskal hizkuntzalarien belaunaldi berriek deus interesgarririk apartatu ez izanaren ondorio hutsa da. Euskal-afrikar substratuari buruzko ikerkuntzak zientzia honetarako inolako interesik ez duela esatea polita da, euskararen erabateko isolamenduaren oinarrian eraikuntza guztiak altxatuz. Orain artekoak ikusirik, urteotan sortu diren euskal hizkuntzalariek alor horretan erakutsi duten erdipurdikotasunaren justifikazio eskasa iruditzen zait neroni. Gogo-ariketa txiki bat egiteko, hauxe iradokiko nioke irakurleari: apuntatu bi zutabetan (euskaldunak/atzerri-tarrak), euskal-afrikar substratuari eta guantxera-euskararen arteko loturaz aritu diren autoreetatik, orain arte aipatutakoak edo gogoan dituzunak apuntatu bi zutabeetan. Emaitzak (batetik) adierazgarri bezain (bestetik) etsigarriak direlakoan nago.

20. Lakarra jauna, filosofo bihurtu

Euskal Zibilizazioa-ri egin dion kritikaren euskarrien eskasa sumatuz, agian, Lakarra jaunak bere idazlanaren amaieran harropuzkeriaz txundituta utzi nahiko gintuen, seguruenik. Kultur munduan dabilzan pertsona batzuek, beren pentsakera zientifikoaren murriztasun jabeturik, besteren iritzien premia dutenek, hain zuzen, jokaera hori oso gustukoa dute. Badirudi atsegin luketela esatea, adibidez: «Ikusten?, Bertrand Rusellek ere (adibidez) nik, eruditu honek, idatziriko kritikan aldarrikatu nuena errepikatu du».

Eta logika horri nonbait jarraiki, bere kritikari amaiera emateko unean, gure irakasle horri ez bide zaio beste gauzarik otu: adiskideren batek opari eman zion *Imposturas intelectuales* (Sokal / Bricmont 1999) izeneko liburua hartu eta irakurri du. Idazlan horretan tesi ezagun hau garatzen da: intelektual izeneko askok hitzontzi aspergaitz gisa dihardute, beren diskurtsoaren hutsalkeria eta pentsamenduaren urria ezkutatu nahian, baina, horrela ere, bazterreko liburukilotik hautaturiko ulertezinezko berbatzar ilunenak ehunduz sasibilbe linguistikoak egitura-tzen dituzte, bibliografia bidezko, astun eta trinkoarekin batera (Lakarra jaunaren artikulua daukat buruan, ezinbestez, geroz eta zehatzago); era horretan, estilo horretako artikulua argitaratzen dituzten aldizkariak berak ere nahasteraino irits daitezke sasiintelektual horiek, jatorrizko ekarpen-sortzaileak bailiran. Esan gabe doa Lakarra jaunak *Euskal Zibilizazioa* liburuaren autorea intelektual iruzurgile horien taldekotzat daukala.

Lakarra jaunari gogoratu beharko zaio (ostera ere) *Euskal Zibilizazioa* liburuaren egileak bere hausnarketak aldizkari espezializatu batean argitara emateko asmorik ez duela behin ere izan, liburu hori dibulgazio-lana baita. Nolanahi ere, Lakarra jauna litzateke intelektual iruzurgile horien taldean erortzeko arrisku gorrian legokeena, bere pentsakera linguistikoa jaulkitzeko palestra gisa aldizkari espezializatuetako argitalpenak bakarrik interesatzen omen zaizkio eta. Zain gaude oraino, Lakarra jaunak noiz emango duen argitara bere pentsakera sintetiko diziplinartekoa (bere karrera akademikoan barrena garatu beharko zukeen horixe, nonbait) interes zabaleko agerkariren batean; horrela, aurrerantzean ez dugu nozitu beharko bere hizkera baldres iluna, urria (lan honetan zehar ikusi dugun

bezala) eta orrialde-azpiko oharrez josia, ezin konta ahalako ohar txo bibliografikoz mozkortua; horiexek dira —besteak beste—, hain zuzen ere, *Imposturas intelectuales* liburuak kritikatzan dituen jokaerak. Argi ibili.

El Mundo egunkari espainoleko kultur sailean agertu zen harako artikulua hura irakurri beharko zuen Lakarra jaunak: bertan, *Imposturas intelectuales* liburuaren egilekide den Alan Sokal-ekin eginiko elkarrizketaren berri agertzen zen¹², liburuaren estatu espainolean salgai jarriko zela eta. Elkarrizketan, *Imposturas intelectuales* liburuari kritika zorrotzak egin zaizkiola dio autoreak, baina berak uste du badirela bere jarrera eta planteamenduak defendatzeko bezainbesteko argudioak, eta horrekin konforme ez daudenek kontrako argudioak agertu beharko lituzketela. Lakarra jaunari oroitarazi beharko litzaioke horixe dela hain zuzen kritika zientifikoaren lan-ildoak: hipotesi baten aurrean, beste hipotesi bat plazaratzea. Baina, ondotox dakigun bezala, ez *Euskal Zibilizazioa*-ren kritikoak oro har, ez Lakarra jauna bereziki (kritikari horien bandera-ontzi den aldetik) ez dira izan ildo hori lantzeko gauza. *Euskal Zibilizazioa*-ren tesi diziplinarrekoaren aurka (Lakarra jaunari atsegina edo atsekabe gertatu ere, nazioarteko agerkerietan eta kongresuetan aipatzen eta baliatzen diren hainbat ikerkuntzatan dago oinarritua), nolako kontrahipotesia eskaintzen dute kritikoek? Ene iritziz, jaun horiek lan gehiago egin beharko lukete (eta kontrahipotesi hori eratu), beren nagitasuna justifikatzan horrenbeste denbora eta paper alferrik galdu ordez.

Aldizkari zientifikoetako kolaboratzaile burutsu askok noziazten diguten (“eliteen”) hizkera ilun horren ulergaitzasuna (horretarako gogora dezagun, une batez, *Ná-de-Ná* artikulua paradigmaticoa) “terrorismo intelektualtzat” jo du Sokalek berak. *Euskal Zibilizazioa*-ri dagokionez, etsairik bizienez ere onartu beharko didate: kritikatzeko moduko gaitz guztiak izango ditu liburuak baina, hori bai, ulertu egiten da. “Ulertu egiten da” bakarrik ez: irakurtzen ordu asko ematen ez duen euskal gazteriaren sektore zabal batek goitik behera ulertu ez ezik, liburuarekiko interesa sentitu du; bertan agertzen ziren hausnarketarako elementuak, hain zuzen ere, gure espezialista unibertsitarioek ez dituztelako inoiz ere agertarazten eta horrelako fruiturik ez baitute ematen “langile” horiek.

Goian aipaturiko elkarrizketan, Estatu Batuetako unibertsitate-giro asko ito duen berritsukeria postmodernoarekin nazka-nazka eginik dagoela zioen Sokalek. Horretan konforme nago berarekin, erabat. Hona etorri eta UPV honetatik paseotxo bat egingo balu, birus kutsagarri hori printzipioz uste zuen baino askoz ere hedatuago dagoela pentsatuko luke.

Intelektual iruzurgilerik izatekotan (*Imposturas intelectuales* liburuaren egilearen tesiei jarraiki), Lakarra jaunaren aldean miatu beharko litzateke arreta biziagor *Euskal Zibilizazioa* liburuaren egilearen inguruetan baino. Erants diezaiozun horri, ikerkuntzaren testuinguruan planteatzeko garaian, Lakarra jaunak daukan prestakuntza zientifikoaren gabezia eta (berak aitortu bezala) diziplinartean aritzeko prestakuntzarik eza: gauza horiek baturik, ene liburuari kritika (balizko) umoretsuaren oinarria eratzeko Sokal aukeratuta, bere buruari mesede eskasa egin diola ondorioztatu behar dugu.

12. “El Mundo” 1999-IV-22 (62. or.).

Bada besterik, ordea. Badirudi Lakarra jaunak zientziaren filosofia alorrean sartu nahi duela eta, Bergsonen jarrera kritikatzeko duen Bertrand Rusellen testu bat aukeratu du horretarako (*Imposturas intelectuales* liburuan 11. kapituluan buru agertzen dena hain zuzen). Honatx:

Uno de los efectos negativos de una filosofía antiintelectualista como la de Bergson consiste en que prospera a merced de los errores y confusiones del intelecto. En consecuencia, tiende a preferir los malos razonamientos a los buenos, a declarar irresolubles las dificultades momentáneas y a considerar cualquier error tonto como una revelación del fracaso del intelecto y del triunfo de la intuición. En los trabajos de Bergson se encuentran numerosas alusiones a las matemáticas y a la ciencia, y, a los ojos de un lector desprevenido, esas alusiones parecen reforzar considerablemente su filosofía. En ciencia, sobre todo en biología y fisiología, no soy lo bastante competente como para criticar sus interpretaciones, pero en lo que se refiere a matemáticas, el autor ha preferido deliberadamente los errores tradicionales de interpretación a las visiones más modernas que han predominado entre los matemáticos durante los últimos ochenta años. (Sokal / Bricmont 1999, 40).

“Matematika” hitzaren ordeaz “linguistika” jarrira, *Euskal Zibilizazioa* liburuaren egilearen jarrerak filosofiatik kritikatu ahal izateko Lakarra jaunak testu hori hautatu izanak (bere burua Russellekin eta ni Bergsonekin konparatuz), bere hutsune eta ezezagutza handiak utzi ditu berriro ere agerian.

Alde batetik, adibidearen aukeraketa ez dela zuzena izan ohartaraziko diogu, horren bitartez bere jarrera finkatu eta arerioarena iragarri utzi nahi baldin badu. Aukeraketa ona egiteko, zientziaren filosofiaz pittin bat jakin behar da, eta ez liburu baten aipu bat kopia besterik gabe. Horretan “autoritatearen” argudioak nahastu egin du Lakarra jaunak. Ikus dezagun.

Imposturas intelectuales liburuan Sokal eta Bricmontek Bertsand Russellen testua aukeratzean egiten duten apustua arriskutsua da, gutxienez. Egia da Bergsonen, *Durée et simultanéité* (Bergson 1960) liburuan, denbora lokalak inertzi sistemen perspektiba-efektu moduan interpretatzen dituzenean, hanka sartzen duela gaur daukagun ikuspuntutik. Baina baita ere egia da, “Erlatibitate Teoria Murriztua” argitaratu zenetik urte askotara, inork ez zekiela denborari zein estatus epistemologiko eman, batez ere, Minkowskik hari egitura geometrikoa eman ondoren non denborazko koordenatua espazializatua agertzen zen (neurri imaginarioa eman bazion ere). Interpretazio mailan sortu zen nahaste-borraste hura, azkenean, filosofo batek (Paul Langevinek 1911) argitu behar izan zuen. Einsteinek berak ere, hasiera batean gaizki interpretatu ondoren, geroago, arrazoia emango zion. Ez da harrizkoa, beraz, egoera nahastu hartan Bergsonen interpretazio akastunak egitea (gogoratzekoa da Russellen Erlatibitate Teoriaren kontrako jarrera Bergsonena baino zaratatsuagoa izan zela). Dena den, eta aurrekoa kontuan izanda, denboraren izaeraz Bergsonen egindako burutazio filosofiko sakonak, egun ere, interesgarriak dira oso, gai horietan murgildu nahi duenarentzat.

Baina, gainera, kontuan hartu behar da Bergsonen pentsamendu filosofiko garatuen eta oinarritzekoena *Durée et simultanéité* baino askoz garrantzitsuago den beste liburu batean agertzen dela; *Creative Evolution* (Bergson 1944) izeneko liburuan, alegia. Bertan, garaiko termodinamikaren bigarren printzipioaren interpretazio mekanizistaren eta unibertsoaren heriotza termikoaren (entropiaren

etengabeko handitzearen ondorioz) kontra agertuz (garai hartako zientzialari mekanizista gehiengoaren —Russell barne zegoela— kontra) eta eboluzio kosmikoari aurrekotasuna emanez (Errealitatearen oinarriko ezaugarri bezala), mendebaldeko pentsamendu filosofikoaren aitzindari bihurtu zen. Planteamendu horiek Big Bang-aren teoriarekin eta unibertsoaren etengabeko handitzearekin guztiz baieztatuak izan dira. Bertrand Russell ez da, beraz, Bergsoni kontrajartzeko aukeraketarik hoberena, ezta gutxiagorik ere.

Gainera, inozotasunez, errealitate osoa aldez edo moldez mintzaira bakar baten (logika —formal— matematiko-deduktiboa) bitartez azaldu ahal izango zela uste zuten azken pentsalari handietako bat izan zen Bertrand Russell. Horren adierazlerik bikainena Whitehead-ekin batera egindako lan eskerga izan zen. Zientziaren historiak zerbait (ez asko) irakurri duen edonork ondotoxo dakien bezala, zientzian aurrerakuntza seguruak erdiesteko metodotzat, indukzioa (eta, horrekin batera, Erlatibitatearen Teoria sortu zenez geroztik, inortxok ere zalantzan jarri ez duen zientziaren alderdi intuitibo-sortzaile bizi-bizia) arras kritikatu zuen intelektuala izan zen Bertrand Russell ere. Egun, ikuspegi epistemologikotik, gauditua dago Russell intelektuala, eta zientziaren filosofiaz zituen iritziak, hobereenetik ere, inozotzat hartzen dira gaur egun. Pentsalari handi horren akats handienetako bat izan zen, agian, zientzia formalen esparruan espezializatuegi jardutea, zientzia fisiko, sozial eta natur zientziez ere horrenbesteko jakintzaren jabe izateke.

Bergson, *Creative Evolution* funtsezko obra nagusiaren egilea, aitzitik, biologiaren eta neurozientzietan sekulako aurrerakuntzak gauzatu diren arren, naturaren eta zientziaren filosofiaz kezkatuak dagoen edonorentzat erreferentzia baliotsua da oraino. Denbora askotxo igaro bada ere, teoria eboluzionistari eta sistema ez-linealen kaosaren teoriari buruzko hausnarketa aberastu egiten du obra horrek eta, gainera, bizitzaren funtzionamendu termodinamikoa ulertzeko edota fraktalen mundua bizitegi duten atraktore kaotikodun bilakaera dinamikoez jabetzeko ezinbesteko oinarri filosofikoa da eta, izan ere, horrela aurreikusi zuen Bergsonen hori guztia bere “filosofia antiintelektualista” eta “arrazonamendu txar” ezagunetan.

Lakarra jaunak *Imposturas intelectuales* liburuan egin duen irakurketatik oso urrun dabil Bergson, beraz. Eta, horregatik, Russellen aurre jartzeko ispilu moduan, belzteko asmoarekin, ez da batere egokia. Testuinguru horren barnean, gure Lakarrak, berriro ere, aukera okerra egin du, duen biluztasun epistemologikoa agerian utzita.

Dena den, muinean, aukeraketa hori egitean, Lakarraren jokoak barneko koherentziaren bat izango luke, entziklopedismoa, lazera analitikoa (“mekanizista”, esango genuke, zientzia fisiko-naturalen paradigmaren) eta norabide bakarreko pentsakera, segurantzi elementu eta egiaren konkista (logiko-formalen borrokarako deiadarra) partzialen paladintzat itxuraldaturik agertzen diren ikerkuntza zientifikoaren atal horretantxe kokatu duelako bere burua. Planteamendu epistemologiko horren itzulpen linguistikoa (Russellen bidetik), Lakarra jaunaren azterketa konparatisten urrats milimetrikoa litzateke, ikerkuntzan jarduteko arau bakar gisa. Omnikonparatisten (Greenberg, Ruhlen) lanak eta, Lakarra jaunaren espezialitatean bertan eta historiaurreko euskarari dagokionez, Morvanen konparatismoa, hizkuntzaren (eta, zehazkiago nahi izanez gero, euskararen) ikerkuntzan, ez

dautza inondik ere alor mekanizista horretan; biziki alderantziz —(Bergsonen ildotik) Morvanek erabiliko lukeen esakunea baliatzearen, «era intuitiboago batez»—, beren lan-paradigmak non kokatu behar diren zehazteko unean, gehiago arriskatuz dihardute, zehaztasunaren mesedetan, jaso duten hezkuntza metodologiko eta epistemologikoak hala agindurik, etsi-etsian sinesten baitute denboraren buruan ikerkuntza linguistiko orokorra (eta euskararena, berariaz) Lakatosek adierazi zuen moduan izaera aurrerakoiaz hornituko dutela, ez atzera-koiaz (Russellek bezala).

21. Baita politika pittin bat ere

Euskal Zibilizazioa liburuan ideologiaz eta, are gutxiago, politikaz hitzik aipatzen ez den arren (kritikaren erantzunezko idazki honetan ez bezala), liburuko tesien arerio gehienek gurarizkotasan zehatz nabarmena ikusi dute bertan. Lakarra jauna ez da salbuespenik izan horretan ere.

Bizitza egokitu zaigun garai hauetan (egoeraren jatorburua, berriz, antzina-antzinakoa da), euskal izaera aztergai duen historiaurreari buruzko liburu bat politkotzat hartzea, Euskal Herri honen panoraman egun borrokan dabiltzan talde jakin batzuen interes politiko zein kulturalen emaitza baizik ez da. Egonkortasun politiko nahiz sozialik ezagutzen ez duen eta minorizazio sozioekonomiko eta kulturala jasaten ari den gure herrian, enfrontamendu politiko-sozialaren bizkortzaile nagusia askatasun-gabezia da. Horrenbestez, giro honetan dena dago politizaturik, are (nola ez!) hausnarketa bera ere, gogoeta zientifikoa barne, batzuen tesien mesedetan diharduten pentsakera-euskarriak arerioak suntsitu beharreko elementu bilakatzen baitira berehala.

Areago, UPV unibertsitate horrek (berez, kontinenteko zaharrena den Herri honek egungo Europako herrien kontzertuan bizi eta bere burua duintasunez garatu ahal izateko premiazoak diren elementu zientifiko-kulturalak berreskuratu eta hausnarketan aritu beharko lukeen arren), gauza ugari txokatupean magaltzen dituen “objektibotasun zientifiko” horren gainjantziaren azpian, hoberenetik, jakintza neutroa ekoizten ari da; txarrenetik (maizen), ordea, zerbitzatu beharko lukeen Herria ukatzeko baliagarri den oro fabrikatzen. Horrela jarduteari esker, genozidio kulturalen eraginkortasunez esku hartzen duen zeinahi erakunderi zor zaion ohorea aitortu behar diogu gure unibertsitateari ere.

Une hauetan Unibertsitatea nolako eginkizun tristea betetzen ari den pentsatzen dudanean, ez ditut gogoan zanpakuntza-alorreko eskandaluzko aspektu nabarmenak bakarrik —hala nola bertako Errektoreak agerkari “antiterrorista” jakin batzuen alde azaltzea edo, baita ere, herri gisa euskaldunok suntsitzea (etnozidioa) helburu bakarra duten politiken alde egin dezaten irakasle eta ikasleak animatzea, edota liskarrean dabilen sektore baten jarrera defendatzeko, sarri lanuzte instituzionalak dekretuz agintzea, edota unibertsitatea ilaje askotako indar zapaltzaileek jositako erakunde bihurtu izana—. Ez, horixe. Erreakziorik espainolistenarekin, antieuskaldunenarekin erabateko konplizitatean, Unibertsitate kolonial horrek sistematikoki sortzen eta sortarazten dituen hezkuntza-educiek eta jarduera administratiboaren egitura orokorraz ari naiz.

Horrexegeatik da harrigarria (gutxien-gutxienez) Lakarra jauna bere burua gogaiturik sentitu izanaren ondorioz *Euskal Zibilizazioa* liburuaren kontra erasoka hastea (liburuan, ez dezagun ahantz, kulturatik, euskal izaera berreskuratzeko norabidean zuzenduriko pentsakera egituratzen ahalegindu da egilea). Gure Herriaren ibilbidearentzat erabat alienatzaileak gertatzen diren unibertsitate ofizialeko zenbait historiaurrea, antropologia, hizkuntzalaritza edo populazioen genetikako edukiak ikusita, zergeatik Lakarrarentzat kritiketarako helburu ez bihurtu?

Argi dago hemen inortxo ere ez dela neutrala. Testuinguru horretan, nabari denez, *Euskal Zibilizazioa* ere ez. Lan horren helburuek (kulturalak diren arren) badute berehalako irakurketa politiko jakina. Hau da, Lakarra jaunaren jarduerak bezalaxe: berak, neutraltasun zientifikoaren izenean (berak nahi ez badu ere), euskaldun izaera suntsitzea jomuga duen ideologia kolonizatzaileak agindutako egitura eta ikerketa unibertsitarioan parte hartzen baitu.

Testuinguru horretan ez da harrigarria, hortaz, Lakarra jauna eszenan sartu aurretik, liburua Madrilen gogaikarri gertatu izana, *El País* egunkaritik garaiz jakinarazi zitzaigun legez. Arazo latza izan dute, ordea: nahiz eta denbora pasa eta euskaraz idatzitakoa izan (beraz, kolonietako indigenek bakarrik ulertzeko modukoa), hedapen handiko liburua izan da. Erosi ez ezik, irakurri ere egin da liburua, hitz bitan. Eta eztabaidan jarri da bertako edukia, eta bertan adierazitako helburuekin edota etorkizunean jorratu beharreko ildoekin sektore ugari askok (langile gazteak eta unibertsitateko ikasleak, gehienbat) identifikazioa sentitu dute. Helburu horiek, kritikaren erantzun honen hasieran genioen moduan, subjektiboak dira, baina aplikaturiko metodologia zientifikoa da, erabat. *Euskal Zibilizazioa*-ren hipotesian egituratu dugun hausnarketa-espazioa ere guk aukeratu dugu, Lakarra jaunaren kasuan berak egin duen bezala. Baina, hori bai, Lakarra jaunak estatu-aparatu gaitza, itzela, eskerga eta sofistikatua du eskura eta, honetan, eginkizunen antolamendua zehaztasun osoz taxaturik dagoenez, ikerkuntza eta irakas-kuntza objektibo ("zientifiko") gisa agertzea dute helburu, horien euskarri den boterearekin zerikusirik izan lezaketen elementu ideologikoetatik biluztuak (hala esaten digute). Horra hor hezkuntza-sistemari atxikita dagoen beste ideologia handi bat, zientzia-ikerkuntza unibertsitarioaren neutraltasuna. Baina horri buruz aski jardun dugu eta ez naiz atzera berriz itzuliko.

Lakarra jaunari gogoratu behar zaio politika hemen denok egiten dugula. Baita kulturatik eta ikerkuntzatik ere. Hori ukatzea, zientziak, zientziaren historiak eta unibertsitatearen egiturak nola funtzionatzen duen ez jakitea da. Edo, are okerrago, lehendabizi indarrez ezarri eta, gero, neutraltasunaren gezur galant horrekin apaindu nahi duten kolonizazio kulturalaren (genozidio kulturalaren) sistemaren konplize izatea.

22. Bukatzeko

Bukatzeko ordua bide dugu. Orain arte esandakoaren balantze txiki-laburra egin nahi nuke hemen, *Euskal Zibilizazioa* dibulgazio-liburu umilak eraginiko lurrikararen aurrean, Lakarra jaunak statusaren defendatzaile gisa (status hori da, azken finean, aztergai bezala interesatzen zaidan alderdia, bera baita Unibertsitateko egiazko botere-egituran azken instantzia, eta bertan Lakarra jauna ez da sasoiko fruitu galkorra baizik) bete duen eginkizuna mamitzat harturik.

Ez dut uste unibertsitate-statusak bere interesen defendatzaile artatsua auke-ratu duenik, Lakarra jauna izendatuta, kalitatezko kritikarik egiteko moduko oinarri-rik (ez metodologiko, ez epistemologiko) ez duelako irakasle horrek. Lan zientifi-koan hipotesien funtzionamendua ezezagun du eta, gainera, horien paradigmen izaera aurrerakoi eta atzerakoia zer diren ez daki. Bere kritika biltzeko baliatu duen mantu entziklopediko barrokoa nabarmen dena ezkutatzeko amarru xumea beste-rik ez da; eta nabarmen den hori ez da gauza ikerkuntza-jardueran zientzia-eduki garrantzitsua luketen lan-ildoak eratzeko edo koherentziazko kritikarik egiteko. Erants diezazkiogun horri beste osagarri batzuk, hala nola, Lakarra jaunak beste-lako ikerkuntza-alorretan egosten ari denaz ez duela ezer ezagutzen edota gaur egun zientzian lanean aritzeko (ez bakarrik kurrikuluma inolako eduki sintetikorik ez duten argitalpenekin betetzeko) ezinbesteko baldintza den diziplinartekotasuna zer den ez dakiela: espezialistaren hizkera hermetikoarekin eta entziklopedistaren bibliografia panzertarrarekin nekez makilaturiko biluztasun hutsa izango dugu geu-re aurrean. Hori baizik ez. Horiek ikusita, bertan behera utziko dut, nirekiko, aspal-di samar arerioaren KO teknikoarekin bukatu zen ezta-baida hau.

Idatzi luzeei amaiera ematea batzuetan lan aldrebesa izaten denez, Krutwigen testua ekarriko dut hona (idazkiaren azterna Lakarrak berak bere kritikan emana), unibertsitateko askotxoren (baita, ene aburuz, gure irakasle horren) izaera eta jardunbidea ezin hobeki azaltzen baitu:

Por otra parte, bien es sabido que lo que se llama en la investigación un “Fachmann”, es decir, un erudito en la materia, no tiene mayormente más cerebro imaginativo y creador que un simple “robot” ... y no hacen todos ellos otra cosa que seguir las líneas de fuerza que les imponen otros hombres. Si de los periodistas se puede decir que son «hombres que hablan de todo y no saben nada de nada», de un Fachmann se puede decir que es «un hombre que habla de una sola materia, que conoce una sola materia y que supone que todo en el mundo es la materia que él en su limitación conoce». Si los unos pueden ser peligrosos por su chabacanería, los otros son temibles por su arrogancia. (Krutwig 1978).

Ozenago, bai; garbiago ezin esan daiteke.

Bibliografía

- Alonso, J. (1996): *Desciframiento de la lengua ibérico-tartésica*, Tartesos Edit., Bartzelona.
- Arnaiz, A. *et al.* (1995): "HLA Allele and Haplotype Frequencies in Algerians. Relatedness to Spaniards and Basques", *Hum. Immunol.* 43, 259-268.
- , (1997a): "Relatedness among Basques, Portuguese, Spaniards and Algerian studied by HLA Allelic Frequencies and Haplotypes", *Immunogenetics* 47, 37-43.
- , (1997b): "Origen de ibéricos, vascos y argelinos", *Investigación y Ciencia* Otsaila.
- Bergson, H. (1944): *Creative Evolution*, Modern Library, New York.
- , (1960): *Durée et simultanéité*, PUF, Paris.
- Greenberg, J. H. & Ruhlen, M.: "Origen de las lenguas americanas autóctonas", *El lenguaje humano*, Prensa Científica (Cuadernos Investigación y Ciencia), Bartzelona.
- Krahe, H. (1954): *Sprache und Vorzeit: Europäische Vorgeschichte nach dem Zeugnis der Sprache*, Quelle / Meyer argit., Heidelberg.
- Krutwig, F. (1978): *Garaldea: Sobre el origen de los vascos*, Txertoa Argitaletxea, Donostia.
- Lakarra, J. (1999): "Ná-De-Ná", *Uztaro* 31, 15-84.
- Langevin, P. (1911): "L' évolution de l'espace et du temps", *Revue de Méthapsique et de Morale*, XIX.
- Martell, M. *et al.* (1986): "Human Enzyme Polymorphism on the Canary Islands. I. Gran Canaria Island Population", *Hum. Hered.* 36, 41-44.
- Martinez Lizarduikoa, A. (1998): *Euskal Zibilizazioa*, Gaiak Argitaldaria, Donostia.
- Moral, P. *et al.* (1997): "Genetic Study of the Population of Tenerife (Canary Islands, Spain): Protein Markers and Review of Classical Polymorphisms", *Am. J. Phys. Anthropol.* 102, 337-349.
- Morvan, M. (1966): *Les origines linguistiques du basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele.
- Mukarovsky, H. G. (1963-1964): "Baskisch und Berberisch", *WZKM* 59-60, 52-94.
- , (1963-1966): "Les rapports du basque et du berbère", *GLECS* 10, 177-184.
- , (1966-1967): "Langues apparentées au chamito-sémitique: Comparaison avec le basque, l'euro-saharien et les langues ouest-africaines", *GLECS* 11, 83-91 / 160-176.
- , (1969): "Baskisch-berberische Entsprechungen", *WZKM* 62, 32-51.
- , (1969): "Über die Lautgesetzlichkeit berberischbaskischer Entsprechungen", *ZDMG Suppl.* 1/3, 1136-1147.
- , (1980-1981): "Einige hamito-Semitische und baskische Wortstämme", *Berliner afrikanische Vorträge* 21, 24-29.
- Pinto, F. *et al.* (1996): "Genetic Relationship between the Canary Islanders and their African and Spanish Ancestors inferred from Mitochondrial DNA Sequences", *Ann. Hum. Genet.* 60, 321-330.
- Quine, W. V. O. (1962): "Dos dogmas del empirismo", *Desde un punto de vista lógico*, Bartzelona.
- Rando, J. C. *et al.* (2000): "Phylogeographic Patterns of mtDNA reflecting the Colonization of the Canary Islands", *Ann. Hum. Genet.* 63, 413-428.
- Sokal, A. / Bricmont, J. (1999): *Imposturas intelectuales*, Paidós Edit., Bartzelona.
- Thuillier, P. (1983): "Posfascio contra el cientismo", *La trastienda del sabio*, Editorial Fontalba, Bartzelona.
- Trask, L. (1995): "Origins and relatives of the Basque language: Review of the evidence", *Towards a History of the Basque Language*, Current Issues in Linguistic Theory 131, 65-99.

- Vennemann, T. (1994): "Linguistic Reconstruction in the Context of European Prehistory", *Transactions of the Philological Society* 92, 215-284.
- Wölfel D. J. (1996): *Monumenta Linguae Canariae*, Ed. Dirección General del Patrimonio Artístico, Tenerife.